# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia — Iruña, 2004ko maiatzaren 20a — 43-2. ZK.

**A U R K I B I D E A**

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**
—Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena (2. or.).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren bost aletan argitaratzen da, 43-1, 43-2, 43-3, 43-4 eta 43-5. zenbakietan).

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena.

43-2 ZENBAKIAREN AURKIBIDEA

I-06. KEXEN ESTATISTIKA

Kexa-kudeaketaren laburpena

Arloen araberako banaketa

2003. urteko kexak

2003an hasitako kexak

Aurreko urteetako kexak

Kexen bilakaera urtez urte eta arloz arlo

Kexen hilez hileko banaketa

Kexa-banaketa sexuaren arabera

Erregistro orokorra. 2003. urtea

Nafarroako Gobernuari buruzko kexak, departamentuka

Nafarroako toki entitateei buruzko kexak

Kexaren xede den administrazioa

Kexen jatorria, Nafarroako herriz herri. 2003. urtea

Kexen jatorria biztanleen arabera

Beste probintzia batzuetatik datozenak. 2003. urteko kexak

Beste herrialde batzuetatik datozenak. 2003. urteko kexak

Emandako ebazpenak. 2003. urtea

Nafarroako arartekoaren ebazpenen betetzea

(Gomendioak)

Nafarroako arartekoaren ebazpenen betetzea

(Legezko betebeharren gogorarazpena)

Nafarroako arartekoaren ebazpenen betetzea

(Iradokizunak)

I-07. HERRITARREKIKO HARREMAN ZUZENA

Erakundea ezagutzea

(Nafarroako arartekoaren solasaldi eta hitzaldiak)

Herritarrek Nafarroako arartekoaren jokabideari buruz duten iritzia (iritzi-inkesta, 780 herritarri eginiko igorpen pertsonalaren bidez egina)

900 702 900 zenbakiaren hedapen-kanpaina

Nafarroako elkarte eta gizarte-talde guztieki-ko komunikazioa

I-08. HERRITARREN ESKUBIDEEN HEDAPENA

I. Eskoletarako ekintzak

"Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren eta Nafarroako Rural Kutxaren arteko lankidetza-hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitateko eskoletan giza eskubideak hedatu eta indartzeko"

2. Herritarren eskubideen hedapena arartekoaren erakundearen argitalpenen bitartez

I- 09. ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

I. Beste ararteko batzuekin

A. Arartekoak koordinatzeko XVIII. jardunaldietan parte hartzea

B. Arartekoen lurralde-erakundeen artean lankidetzan aritzeko esparru-hitzarmena: Autonomia erkidegoetako arartekoen konferentzia

C. Arartekoen eta giza eskubideei buruzko beste jardunaldi batzuetan parte hartzea

D. Ekimen bateratuetarako proposamena:

Administrazio Jokabide Zuzenaren Kodea

Udalerri eta kontzejuekin sinaturiko lankidetza hitzarmenak

Nafarroako Unibertsitatearekin sinaturiko esparru-hitzarmena, Nafarroako Foru Komunitatean herritarren eskubideak hedatzen lankidetzan aritzeko

I-10. PARLAMENTUAN IZANDAKO PRESENTZIA

I- 11. KALITATEA HELBURU GISA

Kalitateari buruzko gogoeta orokorra

Kalitatearen kudeaketa integralerako sistema, “Konpromisoen araberako kudeaketa” izenekoa

Nafarroako arartekoaren erakundearen jokabide zuzenaren kodea

Erakundean kalitate plan bat abiaraztea

I- 12. 2003KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2003ko ekitaldiko aurrekontuen betetzea azaltzeko oroit-idazkia

A) Gastuen egoera

I. Kapitulua. Langile-gastuak

II. Kapitulua. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

IV. Kapitulua. Transferentzia arruntak

VI. Kapitulua. Inbertsio errealak

B) Dirusarrerak

I- 13. NAFARROAKO COMPTOS GANBERAREN TXOSTENA

I- 14. AURREKONTU INFORMAZIOA

2001-2003 alderaketa-taula

I- 15. ETORKIZUN HURBILAREN PLANGINTZA: 2004

Lanerako plana

I- 16. 2004ko AURREKONTUA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren bulegoaren aurrekontu-proiektua kapitulu ekonomikoen arabera sailkatzea, hura Nafarroako 2004ko aurrekontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan txertatzeari begira

16.01 Gastuen eta dirusarreren laburpen ekonomikoa, kapituluen araberakoa

16.02 Gastuen aurrekontua. 2004ko ekitaldia

16.03 Dirusarreren aurrekontua. 2004ko ekitaldia

16.04 Plantilla organikoa 2004

**I- 06. KEXEN ESTATISTIKA**

2003. URTEA

Kexa-kudeaketaren laburpena

| | 2003. urtea | Aurreko urteetakoak | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| IREKIAK | 303 | 186 | 489 |
| Onartuak | 200 | 147 | 347 |
| Erreklamatzailearen arrazoia ontzat ematen da | 63 | 92 | 155 |
| Administrazioak onartzen du | 50 | 75 | 125 |
| Administrazioak eskakizuna onartzen du | 5 | 15 | 20 |
| Administrazioak ebazpena onartzen du | 18 | 36 | 54 |
| Isiltasunari buruzko gogorarazpena onartzen du | 6 | 1 | 7 |
| Bitartekotza-ebazpena onartua | 1 | 1 | 2 |
| Ebazte bidean | 20 | 22 | 42 |
| Administrazioak ez du onartzen | 9 | 14 | 23 |
| Ez du ebazpena onartzen, 34. artikulua | 9 | 14 | 23 |
| Ebazpena, erantzunaren zain | 4 | 3 | 7 |
| Ebazpena, erantzunaren zain | 4 | 3 | 7 |
| Erreklamazioa ezetsia | 37 | 41 | 78 |
| Irregulartasunik ez dago | 35 | 37 | 72 |
| Administrazioarengana jo gabe | 1 | – | 1 |
| Atzera egin du | – | 2 | 2 |
| Sub iudice | 1 | 2 | 3 |
| Ixteke | 100 | 14 | 114 |
| Ixteke, 2002-12-31n | 100 | 14 | 114 |
| Onartu gabeak | 80 | 31 | 111 |
| Arrazoi subjektiboen ondorioz | 18 | 8 | 26 |
| Izenik gabea | 2 | – | 2 |
| Helbiderik gabe | 1 | – | 1 |
| Datuak falta dira | 7 | 5 | 12 |
| Atzera egin du | 6 | – | 6 |
| Bikoiztuta | 1 | – | 1 |
| Berretsi gabe | 1 | 3 | 4 |
| Kausa objektiboak eta interesdunari aholku ematea | 62 | 23 | 85 |
| Irregulartasunik ez dago | 25 | 8 | 33 |
| Juridiko-pribatua | 4 | 2 | 6 |
| Urtebete baino gehiago | 2 | – | 2 |
| Eskumenik ez | 12 | 4 | 16 |
| Sub iudice | 10 | 4 | 14 |
| Eskaerarik ez | 3 | 3 | 6 |
| Administrazioarengana jo gabe | 4 | 1 | 5 |
| Bukatua, gaia jorratua | 2 | 1 | 3 |
| Beste arduradun batzuei bidaliak | 23 | 8 | 31 |
| Beste ararteko batzuei bidaliak | 1 | – | 1 |
| Espainiako arartekoari bidaliak | 22 | 8 | 30 |

2003ko KEXA-KUDEAKETAREN LABURPENA






2003. URTEA

Gaien araberako banaketa

| Gaiak | Bukatuak | Ixteke | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA | 10 | 6 | 16 |
| GIZARTE ONGIZATEA | 15 | 9 | 24 |
| KULTURA, KIROLA ETA ELEBITASUNA | 7 | 7 | 15 |
| HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA | 12 | 10 | 22 |
| FUNTZIO PUBLIKOA | 11 | 8 | 19 |
| OGASUNA | 12 | 4 | 16 |
| BARNE ARLOA | 27 | 27 | 36 |
| JUSTIZIA | 16 | 1 | 17 |
| INGURUMENA | 3 | 8 | 11 |
| HERRILANAK ETA ZERBITZUAK | 8 | 8 | 16 |
| OSASUNA | 22 | 7 | 29 |
| LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA | 11 | 4 | 15 |
| HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA | 27 | 9 | 36 |
| ASKOTARIKO URRATSAK | 22 | 9 | 31 |
| GUZTIRA | 203 | 100 | 303 |

2003. URTEKO KEXAK

Gaien araberako banaketa






2003an HASITAKO KEXAK

Gaien araberako banaketa






AURREKO URTEETAKO KEXAK (I)

Gaien araberako banaketa






AURREKO URTEETAKO KEXAK (II)

Gaien araberako banaketa






KEXEN BILAKAERA URTEZ URTE ETA ARLOZ ARLO






KEXEN HILEZ HILEKO BANAKETA 2003. urtea






SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA

2003. urtea







ERREGISTRO OROKORRA. 2003. urtea
Sarrerak
Kexak
Irteerak
4.000
3.000
2.000
1.000
0
1.176
303
3.258

## NAFARROAKO GOBERNUARI BURUZKO KEXAK, DEPARTAMENTUKA

| | | |
|---|---|---|
| Toki Administrazioko Dep. | 1 | % 0,77 |
| Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Dep. | 3 | % 2,31 |
| Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Dep. | 15 | % 11,54 |
| Ekonomia eta Ogasun Dep. | 11 | % 8,46 |
| Kultura eta Turismo Dep. | 8 | % 6,15 |
| Hezkuntza Dep. | 14 | % 10,77 |
| Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Dep. | 7 | % 5,38 |
| Herrilan, Garraio eta Komunikazio Dep. | 3 | % 2,31 |
| Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Dep. | 17 | % 13,08 |
| Lehendakaritza, Justizia eta Barne Dep. | 20 | % 15,38 |
| Osasun Dep. | 31 | % 23,85 |
| GUZTIRA | 130 | % 100,00 |



NAFARROAKO TOKI ENTITATEEI BURUZKO KEXAK

| UDALAK | GUZTIRA |
|---|---|
| ABLITAS | 1 |
| ANTSOAIN | 1 |
| ARGUEDAS | 1 |
| ARRAIOZ | 1 |
| AZAGRA | 1 |
| BARAÑAIN | 2 |
| BARASOAIN | 1 |
| CADREITA | 4 |
| KASEDA | 1 |
| ZIZUR TXIKIA | 2 |
| CORELLA | 2 |
| LIZARRA | 2 |
| GALAR | 1 |
| UHARTE | 1 |
| LARRAGA | 1 |
| LEOTZ | 1 |
| LOS ARCOS | 1 |
| MENDABIA | 2 |
| MENDIGORRIA | 1 |
| MURILLO EL CUENDE | 1 |
| NOAIN | 2 |
| OLLO | 1 |
| OLTZA | 1 |
| IRUÑA | 27 |
| GARES | 3 |
| ZANGOZA | 1 |
| TAFALLA | 2 |
| TUTERA | 2 |
| ERROIBAR | 1 |
| VIANA | 1 |
| ATARRABIA | 2 |

| KONTZEJUAK | GUZTIRA |
|---|---|
| ALKOTZ KONTZEJUA | 1 |
| EUGI KONTZEJUA | 1 |
| FIGAROL KONTZEJUA | 1 |
| LEGASA KONTZEJUA | 1 |

| MANKOMUNITATEAK | GUZTIRA |
|---|---|
| JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA | 1 |
| HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA | 1 |
| HIRI HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA, 10. EREMUA | 1 |
| ANTSOAIN, BERRIOBEITI, BERRIOZARKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA | 1 |

| GUZTIRA | 79 |
|---|---|

| KEXAREN XEDE DEN ADMINISTRAZIOA | | |
|---|---|---|
| | KEXA-KOPURUA | EHUNEKOA |
| ESTATUKOA | 32 | % 30,04 |
| Judiziala | 12 | % 12,77 |
| Ente pribatua | 12 | % 12,77 |
| Bestelakoa | 14 | % 14,89 |
| Zehaztu gabea | 24 | % 25,53 |
| GUZTIRA | 94 | % 100,00 |



2003. URTEA

KEXEN JATORRIA, NAFARROAKO HERRIZ HERRI

| HERRIA | KEXAK | SINATZAILEAK | KEXEN % |
|---|---|---|---|
| ABLITAS | 1 | 1 | % 0,35 |
| AITZOAIN | 1 | 1 | % 0,35 |
| ALDUATE | 1 | 1 | % 0,35 |
| ALTSASU | 1 | 1 | % 0,35 |
| AMESKOABARREN | 1 | 1 | % 0,35 |
| ANTSOAIN | 8 | 8 | % 2,83 |
| ARELLANO | 1 | 1 | % 0,35 |
| ARGUEDAS | 1 | 1 | % 0,35 |
| ARITZALA | 1 | 1 | % 0,35 |
| ARRAITZ | 1 | 1 | % 0,35 |
| ARRAIOZ | 1 | 1 | % 0,35 |
| ARRE | 2 | 2 | % 0,71 |
| ARZOTZ | 1 | 1 | % 0,35 |
| AURIZBERRI | 1 | 1 | % 0,35 |
| AZAGRA | 2 | 6 | % 0,71 |
| BARAÑAIN | 6 | 6 | % 2,12 |
| BARASOAIN | 1 | 1 | % 0,35 |
| BERA | 1 | 1 | % 0,35 |
| BERRIOBEITI | 1 | 1 | % 0,35 |
| BERRIOZAR | 4 | 1 | % 1,41 |
| BUÑUEL | 1 | 1 | % 0,35 |
| BURLATA | 5 | 5 | % 1,77 |
| CABANILLAS | 1 | 1 | % 0,35 |
| CADREITA | 4 | 4 | % 1,41 |
| CASCANTE | 1 | 1 | % 0,35 |
| KASEDA | 1 | 1 | % 0,35 |
| CASTEJÓN | 3 | 3 | % 1,06 |
| CINTRUÉNIGO | 3 | 3 | % 1,06 |
| CORELLA | 6 | 6 | % 2,12 |
| CORTES | 1 | 1 | % 0,35 |
| DONEZTEBE | 1 | 1 | % 0,35 |
| ERITZE | 1 | 1 | % 0,35 |
| ESNOTZ | 1 | 1 | % 0,35 |
| LIZARRA | 5 | 5 | % 1,77 |
| ETXARRI-ARANATZ | 1 | 1 | % 0,35 |

| HERRIA | KEXAK | SINATZAILEAK | KEXEN % |
|---|---|---|---|
| FIGAROL | 1 | 1 | % 0,35 |
| FUNES | 1 | 1 | % 0,35 |
| UHARTE | 1 | 1 | % 0,35 |
| IBERO | 1 | 1 | % 0,35 |
| IRURITA | 2 | 2 | % 0,71 |
| IRURTZUN | 1 | 1 | % 0,35 |
| IZKO | 1 | 1 | % 0,35 |
| LEGASA | 1 | 1 | % 0,35 |
| LEOTZ | 1 | 1 | % 0,35 |
| LESAKA | 2 | 2 | % 0,71 |
| LETE | 1 | 1 | % 0,35 |
| LEIUN | 1 | 1 | % 0,35 |
| LODOSA | 1 | 1 | % 0,35 |
| LOS ARCOS | 2 | 2 | % 0,71 |
| MENDABIA | 2 | 2 | % 0,71 |
| MENDIGORRIA | 1 | 1 | % 0,35 |
| MURCHANTE | 1 | 1 | % 0,35 |
| MURUZABAL | 1 | 1 | % 0,35 |
| MUTILOABEITI | 1 | 1 | % 0,35 |
| IRUÑA | 132 | 138 | % 46,64 |
| AZKOIEN | 2 | 2 | % 0,71 |
| GARES | 1 | 1 | % 0,35 |
| RIBAFORADA | 3 | 4 | % 1,06 |
| SALDISE | 1 | 1 | % 0,35 |
| ZANGOZA | 1 | 1 | % 0,35 |
| SARTAGUDA | 1 | 1 | % 0,35 |
| SUBITZA | 1 | 1 | % 0,35 |
| TAFALLA | 4 | 4 | % 1,41 |
| TUTERA | 22 | 36 | % 7,77 |
| VIANA | 2 | 2 | % 0,71 |
| VILLATUERTA | 1 | 1 | % 0,35 |
| ATARRABIA | 6 | 7 | % 2,12 |
| ZARIKIEGI | 2 | 2 | % 0,71 |
| ZIZUR NAGUSIA | 9 | 9 | % 3,18 |
| GUZTIRA | 283 | 306 | % 100,00 |

2003. URTEA

NAFARROAKO KEXEN JATORRIA BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA

| UDALERRI MOTA | KEXA-KOPURUA | EHUNEKOA |
|---|---|---|
| 2.000 biztanle baino gutxiagokoak | 24 | % 8,48 |
| 2.001 eta 10.000 bitartekoak | 56 | % 19,79 |
| 10.001 eta 20.000 bitartekoak | 29 | % 10,25 |
| 20.001 eta 50.000 bitartekoak | 28 | % 9,89 |
| 100.001 biztanletik gorakoak | 132 | % 46,64 |
| Zehaztu gabe | 14 | % 4,95 |
| GUZTIRA | 283 | % 100,00 |



2003. URTEA

2003ko KEXAK. BESTE PROBINTZIA BATZUETATIK DATOZENAK

| HERRIA | KEXAK | SINATZAILEAK | KEXEN % |
|---|---|---|---|
| Gasteiz | 1 | 2 | |
| Araba, guztira | 1 | 2 | % 6,67 |
| Lloret de Mar | 1 | 1 | |
| Girona, guztira | 1 | 1 | % 6,67 |
| Irun | 1 | 1 | |
| Hernani | 1 | 1 | |
| Donostia | 3 | 3 | |
| Gipuzkoa, guztira | 5 | 5 | % 33,33 |
| Autol (Errioxa) | 1 | 1 | |
| Errioxa, guztira | 1 | 1 | % 6,67 |
| Leon | 2 | 2 | |
| Leon, guztira | 2 | 2 | % 13,33 |
| Madril | 3 | 3 | |
| Madril, guztira | 3 | 3 | % 20,00 |
| Valentzia | 1 | 1 | |
| Valentzia, guztira | 1 | 1 | % 6,67 |
| Zaragoza | 1 | 1 | |
| Zaragoza, guztira | 1 | 1 | % 6,67 |
| Naziokoak, guztira | 15 | 15 | % 100,00 |

2003. URTEA

2003ko KEXAK. BESTE HERRIALDE BATZUETATIK DATOZENAK

| NAZIOA | KEXAK | SINATZAILEAK | KEXEN % |
|---|---|---|---|
| Argentina | 2 | 2 | |
| Argentina, guztira | 2 | 2 | % 40,00 |
| Belgika | 1 | 1 | |
| Belgika, guztira | 1 | 1 | % 20,00 |
| Peru | 1 | 1 | |
| Peru, guztira | 1 | 1 | % 20,00 |
| Suitza | 1 | 1 | |
| Suitza, guztira | 1 | 1 | % 20,00 |
| NAZIOARTEKOAK, GUZTIRA | 5 | 5 | % 100,00 |

## 2003. URTEA

### Emandako ebazpenak

| Jarduketa arloak | Legezko betebeharren gogorarazpenak | Gomen-dioak | Irado-kizunak | Guztira | Ukituriko kexak | Tramitazioan | Bukatuak | Onartuak | Txostenean sartuak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| NEKAZARITZA, INDUSTRIA | 2 | 2 | – | 4 | 5 | – | 4 | 4 | – |
| GIZARTE ONGIZATEA | 1 | 10 | 2 | 13 | 11 | 1 | 12 | 5 | 7 |
| KULTURA, KIROLA ETA ELEBITASUNA | 1 | 7 | – | 8 | 6 | 1 | 7 | 5 | 2 |
| HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA | 1 | 6 | 2 | 9 | 9 | 1 | 8 | 6 | 2 |
| FUNTZIO PUBLIKOA | 3 | – | 1 | 4 | 4 | – | 4 | 2 | 2 |
| OGASUNA | 1 | 5 | 1 | 7 | 7 | – | 7 | 6 | 1 |
| BARNE ARLOA | 1 | 2 | 2 | 5 | 6 | 1 | 4 | 2 | 2 |
| JUSTIZIA | – | 1 | 1 | 2 | 2 | – | 2 | 2 | – |
| INGURUMENA | 4 | 2 | – | 6 | 6 | 2 | 4 | 4 | – |
| HERRILANAK ETA ZERBITZUAK | 2 | 4 | 1 | 7 | 6 | – | 7 | 7 | – |
| OSASUNA | 2 | 7 | 1 | 10 | 13 | – | 10 | 8 | 2 |
| HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA | 4 | 10 | – | 14 | 14 | – | 14 | 10 | 4 |
| ASKOTARIKO URRATSAK | 1 | 1 | – | 2 | 2 | 1 | 1 | – | 1 |
| GUZTIRA | 23 | 57 | 11 | 91 | 91 | 7 | 84 | 61 | 23 |

NAFARROAKO ARARTEKOAREN
EBAZPENEN BETETZEA

| GOMENDIOAK | |
|---|---|
| Emandakoak | 57 |
| Onartuak | 34 |
| Arbuiatuak | 18 |
| Erantzuteke daudenak | 5 |



| NAFARROAKO ARARTEKOAREN EBAZPENEN BETETZEA | |
|---|---|
| LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA | |
| Emandakoak | 23 |
| Onartuak | 18 |
| Arbuiatuak | 3 |
| Erantzuteke daudenak | 2 |



NAFARROAKO ARARTEKOAREN
EBAZPENEN BETETZEA

| IRADOKIZUNAK | |
|---|---|
| Emandakoak | 11 |
| Onartuak | 9 |
| Arbuiatuak | 2 |
| Erantzuteke daudenak | – |



## I-07. HERRITARREKIKO HARREMAN ZUZENA

2003an, arartekoak herritarrei abegi egin zien guztira 106 elkarrizketa pertsonaletan, batez ere Iruñean eta Tuteran, eta Arreta Zuzeneko Bulegoak 876 pertsona zerbitzatu zituen, kexak eta kontsultak zirela-eta. Azkenean, "Nafarroako Foru Komunitateko Herritarraren Eskubideen aldeko Gutunari" buruzko proposamenaren aurkezpen-prozesuan zehar, guztira 59 bilera egin ziren, eta haietara, batez beste, hamar pertsona joan ziren deialdi bakoitzean, aipaturiko elkarteen ordezkari gisa. Guztira, 500 pertsona baino gehiago.

Herritarrekiko harreman zuzenak Nafarroako arartekoaren jardueraren ardatz nagusia izaten segitzen du; batez ere, herritarrek egiten dituzten kexei eta kontsultei dagokienez.

Kexa horietako askori erakundeko langileek erantzuten diete, bai telefonoz eta bai bulegoetan bertan. Kexa-egile horietatik ugari izan dira arartekoak berak pertsonalki abegi egin dienak hasieratik, hala eskatu izanez gero.

Dena den, 2003. urtearen bigarren seihilekoan zehar eginiko jardueretako batzuek aurreko urteetan baino harreman estuagoa ahalbidetu dute, kexetatik haratago doana. "Nafarroako adimenosasunaren arloko laguntza" txosten bereziak lortutako hedapenak, Nafarroako udalerriekin sinaturiko hitzarmenek eta "Nafarroako Foru Komunitateko Herritarraren Eskubideen aldeko Gutun" bat prestatzeko proposamenei buruzko proiektua Foru Komunitate guztian aurkeztu izanak bilera ugari egitera bultzatu dute, eta arartekoaren erakundearen jarduerari buruzko zuzeneko komunikazioa areagotu ahal izan da haietan.

Bestalde, aipatu beharrekoa da 2003an zehar Arreta Zuzeneko Bulegoa berrantolatzeari ekin zitzaiola, langile-kopurua gehitu izanari esker. Berrantolamendu horrek posible egin zuen aurrerapausoak ematea jendea zerbitzatzeko eginkizuna eta administrazio-lanari dagokion eginkizuna elkarrengandik bereiztearen ildotik. Gainera, Arreta Zuzeneko Bulego horretatik herritarrei ematen zaien laguntzaren arduradun bat (teknikaria) hautatu zen.

Bestalde, udalekin sinaturiko 37 hitzarmenak zirela-eta, erakunde horiek osatzen dituzten udalbatza gehienekin harremana sortu zen, bai zenbait ekitaldiren bitartez, non arartekoak, hitzaurre gisa, bere jardueraren ildo nagusiak eta harreman instituzionalerako bideak ezagutarazi baitzituen (aipaturiko hitzarmenetan azaltzen dira bide horiek), bai toki administrazioari buruz herritarrek dituzten kexak kudeatzeko erantzukizuna daukaten aholkulariekin izandako harreman pertsonalaren bitartez ere.

### ERAKUNDEA EZAGUTZEA

### (NAFARROAKO ARARTEKOAREN SOLASALDI ETA HITZALDIAK) (6)

Erakundearen eta bere helburuen berri emateari dagokionez, nabarmendu beharrekoa da zenbait solasaldi eta hitzalditan parte hartu izana, hala nola Gizarte Lanari buruzko Estatuko Kongresuaren inaugurazioan arartekoak emandako hitzaldia. Kongresu hori Murtzian egin zen, eta "Atención y Participación Social: Una proyección de lo particular a lo social" izenburu orokorra izan zuen. Ondoko hitz hauek hitzaldi (7) horretatik atereak dira:

"Azken hamabi hilabete hauek errealitateari buruzko datu nire iritziz esanguratsuak eskaini dizkigute guztioi, gizarte zerbitzuei buruz. Aipatu ditudan datu horiek dira, batetik, immigrazioaren bilakaerari buruzko datuak eta, bestetik, Espainiako ararteko guztien koordinazioa lortzearren Iruñean egin ziren XVII. jardunaldietatik sorturiko proposamenak, gizarte zerbitzuei eta herritarren beharrizanei buruzkoak.

Ongizatearen estatua eta gizarte zerbitzuak: bi kontzeptu horien artean lotura estua dago. Are gehiago: bereiztezinak dira. Ezin daiteke esan ongizatearen estaturik dagoenik baldin eta aldi berean horren araberako ekintza koherenterik ez badago zerbitzu horiek garatzeko, oinarritzeko, objektibatzeko eta gauzatzeko. (…)

Ongizatearen estatuari buruz hitz egitean, ezin gara beraren funtsezko izaera demokratikoaz ahaztu; izan ere, ezaugarri horri esker bereiz dezakegu ekonomiaren arloan interbentzionista diren beste estatu-eredu batzuetatik, hala nola estatu sozialista planifikatua, gerra arteko estatu faxistak edo sustapen estatua deritzona.

Ongizatearen estatuaren ezaugarrietako bat da "gizarte zerbitzu unibertsal batzuen eskaintza publikoa" eta "estatuaren erantzukizuna gutxieneko bizi-maila bat mantentzeko langintzan, eta hori gizarte-eskubide gisa ulerturik, hau da, ez gutxiengo batentzako karitate publiko gisa, baizik eta erki-

(6) *Ikus, halaber, "Adimen osasuna eta genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna"*
(7) *"Gizarte-elementua zerbitzu publikoetan edo gizarte-zuzenbidearen berreskurapena". Murtzia, 2003ko martxoa.*

dego nazional moderno eta demokratiko bateko herritar guztienganako erantzukizun kolektiboko arazo gisa". Baina orain arte ongizatearen estatutzat ulertu duguna eraldaketa sakonak jasaten ari da gizarte garatuetan. Tradizionalki, gizarte ongizatea funtsezko lau zutaberen gainean oinarritzen zen: botere publikoak, familia, lan-merkatua eta gobernuz kanpoko erakundeak (GKE).

Baina gure gizartearen demokratizazioak hiru faktore erakarri ditu, gizartearen egituran eraldaketa sakona eragin dutenak: emakumeak familiaren esparruan izan duen zeregin tradizionala gainditzea, azken 20 urteotan populazio aktiboari 2,5 milioi emakume baino gehiago gehitzearen ondorioz. Halaber, bilakaera demografiko berri bat gertatzen ari da, eta hori guztia hurbileko zerbitzuak betetzeko eskaera berriak pizten ari da. Eta, orain arte, familia izaten ari da gizarte ongizatearen lagungarri sendoenetako bat. Familiak zaintzen ditu, hain zuzen ere (8), zaharren % 75 eta ezgaituen % 91.

Bigarrenik, autonomia erkidegoen estatua errotzeak deszentralizazio handiagoa ekarri du ongizatearen estatuak berezko dituen politikak gauzatzeari dagokionez, eta, aldi berean, Espainia eraldaketa-prozesu azkar batean murgilduta dago, emigratzaileen herria izatetik migrazio-hartzaile izatera pasa baita, eta hori aldaketak eragiten ari da lan-merkatuan eta gure gizartean. Baita, ondorioz, zerbitzu publikoetarako eskari berriak sortarazten ere.

ZERBITZU HORIETARAKO ESKUBIDEAREN ALDEKO LANA

Gure ordenamendu juridikoa, Konstituzioa bera ere barne, nahasi samarra da, modu berean erabiltzen baititu “gizarte laguntza” eta “gizarte zerbitzuak” espresioak, zertarako eta, dirudienez, gauza bera adierazteko; alegia, pertsona edo giza talde jakin batzuen beharrizan oinarrizkoei edo bereziei zuzendutako laguntza, administrazio publikoek emana. Edozein kasutan ere, gizarte laguntzaren hartzaile dira gizarte segurantzaren sistemako prestazioetarako eskubiderik ez daukaten pertsona premiadunak.

Arartekoen bulegoetan izandako esperientziak erakusten duenez, Espainiako herritarrek agertu ohi dituzten gizarte arazoek giza talde jakin batzuengan eragiten dute, eta talde horietan azaleratzen dira. Horrelako giza taldeak dira, adibidez, adingabeak (bai babespekoak, bai erreformakoak), ezgaituak (haien artean sartuz, bereziki, adimen gaixotasunak dituztenak), toxikomanoak, zaharrak, edo errentarik jasotzen ez duten pertsona heldu eta prestakuntza eskasekoak, zeinek noizbehinkako lanak besterik ez baitute eta, jasaten dituzten eritasunen kariaz, kontribuziorik gabeko prestaziorik jasotzea edo lan normalizatuak lortzea ezinezkoa baitute.

ESKUBIDE SOZIALEN UNIBERTSALTASUNA

“Gizarte zerbitzuak” kontzeptua Konstituzioaren 50. artikuluan agertzen da berariaz adierazia, politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarriei buruzko kapituluaren barrenean, eta soilik zaharrei buruz aritzean. Aldizka gaurkotutako pentsio egokien bidez botere publikoek herritarrei zahartzaroan gutxieneko kaudimena bermatuko dietela ezarri ondoren, hauxe xedatzen da: “Modu berean, eta familiaren betebeharretatik kanpo, (botere publikoek) haien ongizatea bultzatuko dute gizarte-zerbitzuen bidez, beraien arazo bereziei kasu eginez, osasunari, etxebizitzari, kulturari eta aisialdiari dagokienez".

Alabaina, argi dago artikulu honetan gizarte zerbitzuei buruz adierazitako ideia osatu gabe dagoela, bai haren hartzaileei dagokien ikuspegi subjektibotik (berariaz, zaharrentzat baino ez dira aipatzen), bai babes-ekintza objektiboaren ikuspegitik ere (aintzat hartzen diren gizarte zerbitzuak osasunari, etxebizitzari, kulturari eta aisialdiari dagozkienak bakarrik dira).

Gizarte zerbitzuei buruzko legedian ohikoa izaten da unibertsaltasuna, gizarte ekintzaren arloko jarduketak argitzen dituen printzipio gisa.

Autoreren batek esana da ikusmolde horren jatorrian dagoela ongintzarekin hain esturik lotua doan marjinaltasunaren ideia saihestu nahia; alegia, berariaz behartsuei zuzendurikoak diren zerbitzuak ez sortzeko nahia. Halaber, esan izan da ideia horren azpian datzala kolektibo batzuei ezartzen zitzaien diskriminazioa amaiarazteko asmoa. Diskriminazio hori sortuko litzateke haiei zerbitzu jakin batzuk, osasun, kultura edo hezkuntzaren arlokoak, ongintzaren edo gizarte laguntzaren bitartez ematean, horrela pertsona horiek maila marjinal batean uzten baitira, gizarte prestazioak ez baitituzte modu normalizatuan jasotzen, hau da, dagokien sistema publikoaren bitartez. Horrekin, ordea, ezin da gizarte ekintzako sistemaren xedearen izaera bestelakotu, ez eta hein handi

(8) *Víctor Pérez Díaz.“Familia eta ekonomia”*

batean sistema horren helmuga diren onuradunekin egin beharreko nahitaezko bereizketa ere.

Printzipio horren adierazpenak eragin onuragarriak izan ditu; adibidez, oinarrizko gizarte-zerbitzu komunitario edo orokorren sistema bat sortzea. Zerbitzu horien helburua da beharrizanak prebenitu edo haiei erantzutea eta bizikidetasun sozialeko baldintzak sortzea, eta biztanle guztiei zuzenduta daude (nahiz eta, jakina, aldez aurretik definituriko beharrizanak pairatzen dituztenak izanen diren zerbitzu horien onuradun).

"Gizarte-zerbitzuak, haien beharrean dauden guztientzat" printzipioaren aplikazioa da, baina, aldi berean, horrek ez du esan nahi gizarte-ekintza lehentasunez zuzendu beharko litzaiekeen kolektiboentzako laguntza indargabetzen denik.

GIZARTE ZERBITZUEN PRIBATIZAZIOA

Pribatizazioak ez dira ongizatearen estatuak berezko dituen prestazioak ematen diharduten enpresa edo entitateetan soilik eragiten duten fenomenoak (enpresa horiei eraginkorrak ez izatea eta defizitak sortzea leporatu ohi zaie, eta baliteke salaketa horiek zuzenak izatea, nahiz eta kontua ez den hain larria, gogoan hartzen badugu haien helburu nagusia ez dela urte amaieran dibidenduak banatzea). Beste zerbitzu batzuk, estatu-jendarme deritzonaren garaietan ere publikoak izan zirenak, eta ondo antzean funtzionatu zutenak (posta, garraioak eta abar), gainbeheran bide dira, eta haien ordez, pixkanaka, zerbitzua enpresa pribatu bati kontzesioan edo errentamenduan ematen zaio, betiere ikuskapen publikoari loturik, edo, bestela, ustiapena zuzenean enpresa pribatuen bitartez egiten da, jarduera berberak kostu baxuagoan egiten baitituzte, antza denez. Beste kasu batzuetan, ongizate estatuaren zerbitzu sozial tipikoak auzitan jartze hutsaz haratago iritsi da egoera, eta esparru juridiko berri bat ere sortu da, non estatuak nolabaiteko utzikeria agertu baitu bere jarduera-eremu berezkoa tradizionalki osatu izan duten gai batzuei dagokienez.

Horrela, bada, argi dago arartekook erne behatuko dugula ongizate estatua gaur egun bizitzen ari den garaiaren bereizgarri bilakaturiko prozesu hori, horrela herritarren eskubide konstituzionalen urraketak gertatzea eragozteko.

GIZARTEKO ERREALITATE ETA ESKARI BERRIEI EMANDAKO ERANTZUN GISA

Emakumeak lan-merkatuan sartzeak (soilik azken bost urteotan, 1,3 milioi emakume gehiago laneratuta egotera iritsi dira), gizarte segurantzan emakumeen afiliazioak % 40ko gorakada izateak eta emakumezkoen jardueraren tasak 3,7 puntuko gehikuntza izateak (gaur egun, % 41) zenbait ondorio ekarri dizkiete familiei eta gizartearen antolamenduari. Nahiz eta emakumeek tradizionalki zaintzaile eginkizunetan ziharduten (modu desinteresatuan eta horren truke ordainsaririk jaso gabe), kontua da lanean ari direnen populazioan sartzen ari direla pixkanaka (5,6 milioi emakume baino gehiagok egiten dute lan, Populazio Aktiboaren Inkestako datuen arabera), eta gaur egun beste pertsona batzuk kontratatu ohi dira eginkizun horiek hein batean behintzat betetzeko eta beharrizan horiei erantzuteko.

Bestalde, Espainian 0 eta 3 urte bitarteko 1,5 milioi haur daude; horietatik % 11 baizik ez dira eskaintza publikoaren edo erdi-publikoaren zerbitzua jasotzen dutenak. Guztira, 200.000 postu inguru eskaintzen dira, eta eskaintza horren ezaugarrietako bat da han-hemenka barreiatutako postuak direla.

Gure herrian sei milioi eta erdi pertsona zahar daude, eta horietatik milioi bat eta erdik 80 urte baino gehiago daukate. Kolektibo horrentzat gero eta beharrezkoagoak dira zerbitzu sozialak eta laguntza soziosanitarioa. Emakumeen okupazioak, jaiotza-tasen beherakada handiak eta bizi-itxaropen handiak, eta populazioaren urbanizazio prozesu trinkoek berekin ekarri dute nabarmen handitzea gure hirietan bakarrik bizi diren pertsona zaharren kopurua (berriki, erakunde honek bere arioz ikerketa bat zabaldu du botere publikoek pertsona horiei ematen dieten laguntza aztertzeko).

Mendetasun larri baten eraginpean dauden pertsona zaharrek % 11 egiten dute, hau da, 700.000 pertsona baino zertxobait gehiago dira.

Premia horiei gehitu behar zaizkie ezgaitasunak dauzkaten pertsonen kolektiboak eginiko eskaerak. Horien kopurua zehaztea zaila da; izan ere, pertsona horietako askok, ezgaitasun horrek jartzen dizkien lan eta gizarte arloko oztopoak direla-eta, ez dute bere egoera datu estatistikoetan agertzen.

Logikoa denez, aldaketa horiek guztiak bat datoz espainiarren eskaerekin. CISek eginiko azken inkestek horixe erakusten dute.

• "Seme-alabak eta bikoteak" izeneko inkestan, zeina 1998ko martxoan egin baitzen, inkesta egin zitzaien pertsonen % 68k txar edo oso txartzat jotzen zuten jaiotza-tasak izandako beherakada, eta familientzako laguntza bereziak eskatzen zituzten.

• "Pertsona zaharrei zuzenduriko laguntza informala" izeneko inkestan, ahaide zahar bat

zaintzen ari diren pertsonen % 93k ez dute profesionalen edo erakundeen laguntzarik jasotzen.

• “Herritarrak eta estatua” izeneko inkestan, zeina 1996an egin baitzen, inkesta egin zitzaien pertsonei zer aukeratuko luketen galdetu zitzaienean, gobernuak zergak jaistea edo zerbitzu publikoetan gehiago gastatzea, gehienek bigarren aukera horren aldeko hautua egin zuten.

ESKAERA BERRIAK: GIZARTE ZERBITZUEN KONTZEPTU BERRIA

Administrazio publikoek immigrazioak ezartzen dien hazkunde demografiko handiaren erronkei aurre egin behar diete, eta zerbitzuak eskaini behar dizkiote gero eta herritar gehiagori eta, gainera, kultura, hizkuntza eta arraza ezberdinetako herritarrei; herritar horiek, etorkinak baino areago, pertsona moduan lagunduak eta aintzat hartuak izateko beharra daukaten pertsonak dira betiere.

Gizarte zerbitzuak direla eta, une historiko bat bizitzen ari gara. Historikoa zeren eta zerbitzuen eredu berri bat prestatu behar baita, populazio berriari egokitua; historikoa administrazioek egoera horren aurrean daukaten erantzukizunarengatik eta zerbitzu berri horiek abian jartzeko erabiliko diren irizpideengatik, eta historikoa, azken batean, administrazioek azterketa, plangintza eta itun sozialeko ariketa hori egitearen aldeko jarrera ote duten ikusi behar delako.

BIZTANLE BERRIAK ETA ESKUBIDE BERRIAK: ETORKINAK

Gizarte zerbitzuen laguntza behar duen etorkinaren profilak, halere, honako ezaugarriak ditu: ez da adingabea, ez da gaixoa, ez da adineko pertsona eta ez da toxikomanoa. Ziur aski, pertsona horiek beren jatorrizko herrialdeak utzi eta emigrazioaren “abenturari” aurre egiteko behar diren adorea eta energia fisikoa direla eta, ohiko emigrantea pertsona gazte eta osasuntsua izaten da. Horrenbestez, dauzkaten arazo sozialak ez dira Espainiako herritarrek topatu ohi dituztenak. Hartara, errentarik ez dutenez, normala da etorkinek bizitzarako eskubide oinarrizkoenak berma dakizkien eskatzea, baina ez berezko helburu gisa, baizik eta lan bat topatu artean bizi ahal izateko bitarteko gisa. Hori dela eta, gizarte zerbitzuek larrialdiko laguntzak eman eta, batez ere, orientabide sozial, prestakuntzakoak eta lan arlokoak eskaini beharko dituzte.

Valentzian izan genuen topaketan Valentziako Erkidegoko Sìndic de Greugesek adierazten zuen bezala, gure ordenamendu juridikoa, haiek hemen egotea legezkoa izatea errazten ez duen edo eragozten duen ordenamendu bera hain zuzen ere, da atzerriko etorkinari gizarte zerbitzuen laguntza izateko eskubidea aitortzen diona, espainiarren baldintza beretan. Ez dirudi, halere, gure gizarte zerbitzuen sarea arauzko konpromiso horretaz guztiz jabetua dagoenik; gehiago dirudi arazoa ez duela ezagutu nahi. Horrela jokatzeak, hura konpontzen ez laguntzeaz gainera, arazoa larriagotzen du, eta nahi ez bezalako ondorio sozialak ekar ditzake, hain zuzen ere espainiarrengan eta etorkinengan hein berean eraginen duten ondorio negatiboak.

Eta hori horrela da bitarteko aski ez dagoelako, ez materialik eta ez pertsonalik ere, kolektibo berrien beharrizan berriei erantzuteko, eta dauden bitarteko eskasak ere ez daudelako egokituak etorkinek dauzkaten beharrizanei, zeinak ezberdinak baitira beharrean dauden espainiarrek dituzten premiekin alderatuta. Gainera, eta hori kezkagarria da, beharrean dauden espainiarrek dauden baliabide eskasak etorkinekin konpartitu behar dituztenez, etorkinei laguntza gutxi emateaz gainera, herritar espainiarrei berei ere gero eta laguntza eskasagoa ematen ari zaie kasu batzuetan; horrek gure herritarrengan sentimendu xenofoboak eragin ditzake, zeren eta iruditu bailekieke espainiarrei ukatzen zaizkien laguntzak atzerritarrei ematen ari zaizkiela. Gogoan har bedi ezen, populazioak de facto izan duen gorakadari buruzko datuek erakusten duten errealitate saihestezina gorabehera, zerbitzu publikoetarako zuzkidura (osasunerako, hezkuntzarako, zerbitzu sozialetarako, etxebizitzetarako) oro har oso gutxi hazi dela, azkenaldi honetan, estatu guztian –murriztu ere egin ez denean–; horrela, bada, espainiarrek hartzen duten laguntzaren “dosiak” beheranzko joera izanen du, nahitaez.

“ARAZO SOZIALARI” BERRIRO HELTZEA

Bazterkeria sozialerako arrisku hori are nabarmenagoa egiten da herritar batzuen eskubideek beste batzuenen aldean lehentasuna izatea nahi denean gizarte zerbitzuez baliatu ahal izateko orduan: hiri edo erkidego batean jada ezarrita dauden herritarrek –edozein dela ere haien jatorria edo estatus soziala– iritsi berrien eskubideen aldean –era berean, edozein dela haien jatorria eta estatus administratiboa– lehentasuna izatea.

Batzuen eskubideak ideologikoki beste batzuen eskubideen gainetik jartzeak berekin dakar administrazio orori exijitzen zaion eskubide-defentsari uko egitea, eta zatiketa sozialeko faktore bat eragiten du, desegokia eta zuzengabea.

Administrazio publikoek ezin diote herritarren inongo kolektibori zerbitzu sozialez baliatzeko

bidea itxi, batzuetan talde sozial batzuek beren inguruan sortzen dituzten lainoak gorabehera. Diskurtso sozial arriskutsu bat badago, nahasgarria eta ezkutatzen ez dituen gauzetan okerra dena; diskurtso sozial hori xenofobiatik hurbil dago, herritar guztiek bereizketarik gabe zerbitzu sozialez baliatzeko duten eskubideari dagokionez. Arartekoek, baina herritar guztiek ere bai, nire ustez, administrazio publikoekin batera egin behar dugu lan herritarren kolektibo guztiak defendatzen segitzeko, ez modu berean defendatzen, baizik eta bidezkoa den moduan, eta autonomi erkidegoen balizko garapenari buruzko diskurtso itxaropentsuetarako nahasgarri gerta daitezkeen tirabira sozialak errotik deuseztatu behar ditugu.

Gizarte zerbitzuez baliatu ahal izateko eskubidea aztertzeari ekitean nekez ahaztu ahal dut helburu publikoei buruzko irizpideen atzetik badagoela erantzukizun politiko bat, edozein dela ere, administrazioaren eraginkortasunaz gain.

Gaur egun zerbitzu horien eskaintza/eskariaren artean bizi den tentsioak, batetik, eta zerbitzu horiek finantzatzeaz zein administrazio arduratu behar den erabakitzeko tentsio paraleloak, bestetik, herritarren babesgabetasun handiagoko egoera bat ekartzen digute, nahiz eta haiek izan, azken batean, administrazio batzuen eta beste administrazioen arteko desadostasunak pairatzen dituztenak, eta ez soilik zerbitzu ereduari dagokionez –berez ere eztabaida garrantzitsua izanen litzatekeena–, baizik eta zerbitzu horiek finantzatzeko presio fiskalaren erantzukizuna bere gain nork hartu behar duen erabakitzeari dagokionez ere, noiz eta aurrezpen sozial handiagoa helburu gisa ezarri denean, agerian edo isilpean.

**Irizpide ekonomikoak eta eskubide sozialak**

Arartekook kezka handiz ikusten dugu hazkunde ekonomikoaz eta zero defizitaz hitz egiten digun diskurtsoaren esanahi bikoitza, gizarte zerbitzuen kontzeptuaren erroraino bertaraino sakontzeko beharra iragartzen digun errealitatearen aurrean. Haiek berriz ere planteatzeko. Lehenbizi, eskubide bat direlako, ez graziaz emaniko lagapen bat; gero, eskema administratibo eta finantzario bideragarri batean txertatutako misio bat diren aldetik. Eta, azkenik, gizarte zerbitzuak bazterkeria sozialeko faktore bihurtzearen arriskua saihesteko.

Gizarte ongizatearen politika gastu sozial deitzen ditugunetan egiten diren inbertsio handietan azaltzen da; ondokoak aipatu behar dira: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, pentsioak eta langabezi asegurua. Ez da kasualitatea horiek izatea, eta ez beste batzuk, gastu sozial deitzen ditugunak, zeren eta kapitalismo industrialaren finkapenak adierazten duen aldaketa traumatikoak sorrarazitako behar objektiboak baitira. Eta, ikusten dugun bezala, baldin eta beharrizan objektibo horien ondoriozkoa bada estatuaren esku-hartzearen hazkuntza, badirudi arrazoizkoa dela hazkuntza hori behinola eragin zuten zergatien aurka taxuturiko soluzioa ez dadila desager, zergati horiek –ziur aski berez loturik daudenak kapitalismoaren ekoizpen-moduari– oraindik ere dirautenean. Alegia, soluzio hori ez desagertzea, haren ordez beste nolabaiteko baliabide bat ezartzen ez bada. Beraz, kontua ez da gehiegizko gastuen ondorioz finantzen edo baliabideen esparruan sorturiko krisi bati aurre egitea; eta estatuaren esku-hartzeak beste agente ekonomiko batzuengan eragin pizgarria ez, baizik eta aurkakoa izanen balu ere, eta hazkuntza mugatuko balu, horrek ez luke nahitaez ekarri beharko gastu sozialen desagerpena, zeren eta estatuak zerbitzu sozialak ematearen arrazoietako batzuk honakoak baitira: merkatuak berak sortzen dituen desorekak zuzentzea eta, etekina neurgarria ez den kasuetan, edo berehalakoan neurgarria ez denetan, merkatuak agertzen duen eskastasunak utzitako hutsuneak betetzea.

Gutxieneko garapen-maila bat lortu ondoren, ongizatearekin zerikusia daukaten gaiak hein handiagoan dira baliabide-banaketari dagokion arazo bat hazkuntza ekonomikoaren esparruko arazo baino.

**Parte-hartzeaz**

Gizarte ekintzaren arloan, botere publikoek protagonismoa hartu dute pixkanaka, erantzukizun publikoari buruzko adierazpen orokorraren babespean, eta horrek berekin ekarri du gizarte-ekimenaren posizioa bigarren maila batean gelditzea. Horri aurre egiteko, zenbait baliabide taxutzen ari dira parte-hartzea errazteko, bai tarteko entitate pribatuena bai zerbitzuen erabiltzaileena beraiena ere.

Baina gogoan izan behar da gizarte ekintzaren onuradun askok izaera hori lortzen dutela beren kasa jarduteko ezintasunak sortzen duen marjinaltasun-mailaren ondorioz, bai eta ingurune sozialak, batez ere familiak, marjinaltasunaren ondoriozko arazoak esparru horretan konpondu ahal izateko dituen eskastasunen ondorioz. Horregatik, babesik ez duten adingabeak, errehabilitazioaren lehen fasean dauden toxikomanoak, zahar ezinduak, minusbaliatu psikikoak eta abar, parte-hartze eskubide horiek erabili ezin izanen dituzten giza taldeak dira.

HERRITARREN IRITZIA NAFARROAKO ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZ (780 HERRITARRI BIDALITAKO GALDEREN ERANTZUNETAN OINARRITURIKO INKESTA)

"Nafarroako Foru Komunitateko Herritarraren Eskubideen aldeko Gutun baterako proposamenak" izeneko proiektuaren bidalketarekin batera, erakundeak beste galdera-sorta bat bidali zien arartekoaren laguntza arrazoi ezberdinengatik eskatuta zeukaten pertsona guztiei. Triptiko horrekin lortu nahi zen arartekoak emandako zerbitzu orokorrei buruzko iritzia ezagutzea, eta herritar horiek zerbitzu haiei buruz pentsatzen zutena jakitea. Triptikoa arartekoarengana jotzen zuten pertsona guztiei banatzen hasi zitzaien geroago.

GALDERA-SORTAREN EDUKIA:

Bidalitako 780 gutunei emandako erantzunen kopurua bat dator edozein bidalketa masibok lortu ohi duen ehunekoarekin (100eko 10 inguru), eta zenbateko hori gehitu ere egin zuen, guztira 110 erantzun jaso baikenituen.

Logikoa denez, iritzi askoren ardatza izan dira espedientearen kudeaketaren aurrekariak, gaur egungo egoera eta ondorioak. Arlo honetan, hiru motatako erantzunak bereiz ditzakegu:

• Gehiengo handi baten iritzia, arartekoaren zereginaren argi-itzalak adierazten dituena.

• Bi iritzi, gutxiengo batenak, eta antzeko pisua daukatenak. Alde batetik arartekoaren zereginari buruzko iritzi oso negatiboak, arartekoaren existentzia bera ere auzitan jartzen dutenak, adierazten badira ere, bestetik ikuspegi oso positiboak helarazi zaizkigu administrazioaren aurrean ekimen partikularrak kudeatzea arartekoak eginiko lanari buruz. Esan beharrekoa da iritzi horiek jende gutxik adierazi dituela, eta iritzi horietako bakoitzak antzeko pisua daukala.

Lehendabiziko iritziari dagokionez –gehiengoa duena–, funtzionamenduaren zenbait elementu auzitan jarri ditu, bai eta espediente zehatzen ebazpenean izandako jokabidea ere.

Bloke honi buruzko ekarpenak lau iritzitan laburbil daitezke; hain zuzen ere, honako hauetan:

**1.** Herritarrek eginiko kexei erantzuteko epeak eta Nafarroako arartekoaren erakundeak espedienteak ebazteko eginiko lana.

Iritzirik gehienak puntu zehatz honen inguruan gorpuzten dira. Herritarrek bi iritzi agertu dituzte:

• Guztiek aho batez goraipatzen dute haien ekimena tramitatzean Nafarroako arartekoaren erakundeko langileengandik izan duten laguntza.

• Nafarroako arartekoak egin zaizkion eskariei erantzuna emateko behar izan duen denbora-epeari ozta-ozta eman diote oniritzia.

Herritarrak nahasmena eta ezjakintasuna agertzen ditu Nafarroako arartekoak espediente baten tramitazioari ekin ondoren hura ebazteko aplikatuko dituen tramite eta epeei buruz.

Nahasmena dago, halaber, Nafarroako arartekoaren jarduera-eremuko erantzun edo egintzak eta kasuko administrazioaren eremukoak zein diren bereizteko garaian.

Dena den, kritika nagusia honakoa da: Nafarroako arartekoari azkartasun handiagoa eskatzen zaio helarazten zaizkion kexak tramitatu eta haiei erantzuna emateko. Erantzun hori, itaunduriko pertsonen arabera, motelegia da.

**2.** Administrazio publikoen aurrean herritarren eskubideak defendatzeko langintzan Nafarroako arartekoaren erakundeak agerturiko eraginkortasunari buruz:

Erantzun batzuek auzitan jartzen dute arartekoak Nafarroako administrazio publikoen aurrean izandako esku-hartzeen eraginkortasuna. Batez ere, iritzi hori agertzen duten herritarrak dira espedientea beren interesetarako oro har desegokia den moduan ebatzi zaienak.

**3.** Nafarroako arartekoaren eskumenek administrazio publikoekiko daukaten izaera lotesleari dagokionez:

Aurreko iritziari kontrajarrita, herritar-multzo honek –hauei ere espedientea ez zaie beraientzat mesedegarria den moduan ebatzi– urrats bat eman du haratago, Nafarroako arartekoaren zereginari buruzko ikuspegi positiboago batetik abiatuta, eta arartekoarentzat eskumen argi eta lotesleak eskatzen dituzte, haren zeregina indartzeko, eta horrela herritarren eskaerei erantzun asebetegarriak eta zehatzak eman ahal izateko.

**4.** Arartekoaren bulegoak tramitaturiko espedienteak eta haien emaitzak urtero argitaratzea:

900 702 900 zenbakiaren berri emateko kanpaina

2003an zehar, arartekoaren erakundeak zenbait iragarki argitaratu zituen Foru Komunitateko egunkari nagusietan (“Diario de Navarra” eta “Diario de Noticias”), herritarrei laguntzeko doako telefono zenbakia, 900 702 900, ezagutarazteko.






Horretan jasotako deien kopurua hauxe izan da:

| HILABETEA | PROBINTZIEN ARTEKO DEIAK | | | | PROBINTZIA BARNEKO DEIAK | | | | DEI KOPURUA, GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Dei kopurua | o. | m. | s. | Dei kopurua | o. | m. | s. | |
| Urtarrila | 17 | 0 | 24 | 20 | 25 | 1 | 29 | 14 | 42 |
| Otsaila | 22 | 0 | 25 | 49 | 22 | 1 | 47 | 56 | 44 |
| Martxoa | 28 | 0 | 49 | 58 | 32 | 2 | 4 | 58 | 60 |
| Apirila | 38 | 2 | 39 | 13 | 41 | 1 | 28 | 43 | 79 |
| Maiatza | 27 | 1 | 24 | 38 | 39 | 2 | 20 | 17 | 66 |
| Ekaina | 33 | 1 | 15 | 53 | 30 | 1 | 43 | 07 | 63 |
| Uztaila | 54 | 1 | 28 | 22 | 37 | 2 | 47 | 00 | 91 |
| Abuztua | 21 | 0 | 24 | 43 | 32 | 2 | 37 | 48 | 53 |
| Iraila | 23 | 1 | 19 | 45 | 43 | 3 | 19 | 30 | 66 |
| Urria | 59 | 1 | 55 | 14 | 49 | 2 | 24 | 28 | 108 |
| Azaroa | 89 | 2 | 42 | 15 | 68 | 3 | 30 | 13 | 157 |
| Abendua | 36 | 0 | 39 | 44 | 27 | 1 | 21 | 53 | 63 |
| GUZTIRA | 447 | 3 | 383 | 414 | 445 | 21 | 349 | 367 | 892 |

NAFARROAKO ELKARTE ETA KOLEKTIBO SOZIAL GUZTIEKIKO KOMUNIKAZIOA

"Herritarraren eskubideen aldeko gutun" bati buruz herritarrek eginiko proposamenak sustatu eta jasotzeko prozesuaren antolaketaren esparruan, gure Komunitatean dauden elkarte eta kolektibo sozialekin –foru administrazioaren aurrean halakotzat erregistraturik agertzen direnekin, betiere– zuzeneko harremanak ezartzera bideraturiko prozesu masibo bati ekin zitzaion.

Alde batetik, zenbait material bidali zitzaizkien, "Nafarroako herritarraren eskubideen aldeko gutuna" proiektuari buruzkoak, bai eta arartekoaren erakundearen laguntza eskuratzeko doako zenbaki publikoa gogorarazten zuen kartel bat ere.

Bestalde, lankidetzarako ildo bat abiaraztea proposatu zen. Ildo hori astiro hezurmamitu beharko da, denbora-epe aski luzean, "Nafarroako arartekoarekin lankidetzan diharduten elkarteen sare" bat gorpuzteraino, elkarrekin lanean jarduteko oinarrizko ideia gisa. Ziur gaude arartekoaren web orriaren edukien eraldaketak –2003. urtearen amaieran ekin zitzaion, eta eginkizuna 2004ko apirila baino lehenago buruturik egonen da– lankidetza hori behar den bezala egituratzen lagunduko duela, 2004. urte horretarako lan-egitarauan aurreikusitako bestelako jarduera batzuekin batera [9].

*(9) Ikus "Erakundearen 2004rako lan-planerako proposamenak"*

**I- 08. HERRITARREN ESKUBIDEEN EZAGUTARAZPENA**

1. IKASTETXEETARA ZUZENDUTAKO EKINTZAK

Arartekoaren erakundea ikastetxeetan ezagutarazteko asmoz 2001 eta 2002an eginiko jarduerek eta haietan izandako esperientziek bultzatu gintuzten ekimen horiek berrantolatzera, zeren eta arartekoa ikastetxeetara pertsonalki joateari zegokionez aldatu beharreko zenbait gauza baitzeuden. Alde batetik, arartekoa ikastetxeetara fisikoki joatea soilik noizean behin zen posible, eta ez ohitura gisa, erakundeak zituen beste betebeharrak zirela-eta. Bestetik, ikasleekin erlazionatzeko moduak ulermena ahalbidetzen zuen lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleekin, baina ez aurreko mailetakoekin, eta, horrez gain, DBHko ikasleek, argi eta garbi, bestelako motibazioak eta komunikazio-sistemak behar dituzte, ez dutenak zertan izan erakundeko titularrarekin zuzenean harremanetan jartzea.

5. eta 6. mailetako eskola-urte horiekin jadanik jorratutako jarduera hori orain arte egin izan den bezala egitea alde batera utzi gabe (interes nabarmena agertzen dute erakundeak lantzen dituen gaiekiko), bestelako baliabide bat aurkitu beharra zegoen, ikasleek aukera izan zezaten gure erakundea ez ezik herritarren eskubideei buruzko jakintza eta praktika ere sakonkiago aztertzeko, horixe baita bisita horien arrazoi nagusia. Eta jokatu behar da jarduera hori irakaskuntzaren ohiko funtzionamenduan txertaturik gelditzeko eta aldi bakoitzean ahalik eta ikasle-kopuru handienari iristeko moduan, harreman horren aldizkakotasuna ezarri behar izan gabe.

Bestalde, garrantzitsua iruditzen zitzaigun irakaskuntzako langileek –alegia, zuzendaritzak eta irakasleek– zuzeneko konpromisoa hartzea –konpromiso hori hartuta daukate jadanik, zalantzarik gabe– pertsonen eskubideak ikastetxeen alorrean hobeki ezagutarazteko apustu horretan.

Ildo horretan, 2003an zehar proiektu berri bat landu zen, edukiaren eta aurrekontu-aukeren ikuspegitik. Proiektu horrek jaso ahalko lituzke lehenago aipaturiko ezaugarri horiek guztiak, aldibereko inplikazioari buruzkoak: orokorragoa, eta arartekoa sistematikoki bertaratzera behartzen ez duena. Proiektu hau jadanik 2002an hasi zen prestatzen, zenbait elkarrizketa eta Nafarroako Kutxa Fundazioari aurkeztu zitzaizkion proiektu batzuk zirela medio. Alta, azkenean ez zen lortu haren interesa piztea proiektuan parte hartzeko, eta, amaieran, aldibereko bi ekintzatan gauzatu zen. Bi kasu horietan beharrezkoa izan zen besteren lankidetza, zeina lortu ahal izan baitzen, modu asebetegarrian.

Lehenik eta behin, unitate didaktiko baten prestaketa aipatu behar da. Haren izenburua “Heldu gure eskubideei” da, eta 2004an hiru argitalpen izatekoa da. Xedetzat dauka herritarren eskubideen gaian ikasle eta irakasleen interesa gidatu eta piztea. Material didaktikoak prestatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko arartekoaren erakundeak jadanik izandako zenbait urteko esperientziaz baliatu ginen. Erakunde horrekin lankidetza-hitzarmen bat sinatu genuen arlo honetan, material horiek erabili ahal izateko, zeinak Nafarroan hezkuntzaarloan diharduten profesionalen talde batek geroago ikuskatu baitzituen.

Bigarrenik, eskola-lehiaketa baterako deialdia egitea, eskola-esparruko parte-hartze kolektibotik herritarren eskubideak hobeki garatzeko asmoz sortzen diren ekimen guztiak, hala ikasleenak nola irakasleenak, jaso eta saritzeko. Formula irekia erabiliko da parte-hartzeari, helburuen hautaketari eta ondorengo aplikazio-metodoari dagokienez. Lehiaketarako proposamena Nafarroako Kutxak onartu ez zuen dokumentuan jasota zegoen jadanik, eta Nafarroako Rural Kutxak berehalako babesa eman zion. Kutxa horrekin lankidetza-hitzarmen bat sinatu zen, lehiaketa finantzatzeko eta nahitaezko koordinazioa ezartzeko adingabeei zuzenduriko bertako ekintzen eta unitate didaktikoak nahiz eskola-lehiaketak –elkarrekin estu lotuak– dituzten helburuen artean.

Prozesu hori guztia eta materialen diseinu orokorra 2003. urtea amaitzean bukatu ziren, 2003/04 ikasturtearen bigarren seihilekoan haiek banatzeari ekin ahal izateko.

UNITATEAREN MATERIALAK




LEHIAKETAREN MATERIALAK



NAFARROAKO ARARTEKOAREN ETA NAFAROAKO RURAL KUTXAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKASTETXEETAN GIZA ESKUBIDEAK EZAGUTARAZI ETA INDARTZEKOA

Iruñean, 2003ko urriaren 31n.

BILDURIK

Alde batetik, M.ª Jesús Aranda Lasheras andrea, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa.

Bestetik, Félix Sola Arrese jauna, Marketing arloko zuzendaria, Nafarroako Rural Kutxaren ordezkari gisa.

AZALTZEN DUTE

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundea abian jarri zenetik, lehentasunezko helburu izan du, dituen eskumenen esparruan, Komunitateko herritarren eskubide eta askatasunen ezagutarazpen eta sustapena, bai eta eskubide horiek sendo errotzeko borondate irmoa ere.

Alabaina, eskubide eta askatasun horien defentsa eta egikaritzak duen garrantziaz gizartea jabetu dadin lan egitea ez da epe laburreko kontua eta, era berean, ez da gizabanako bakoitzak eginiko urratsen bidez bultza daitekeen zerbait. Aitzitik: eginahal berezia eskatzen du, lanerako metodo zorrotz bat, bai edukien ikuspegitik, bai ekintzaren helmuga izanen den publiko objektiboa hautatzearen ikuspegitik ere. Halaber, eskubide eta askatasun horiek ezagutarazteko sistemetan asmatzea beharrezkoa da. Hori horrela, izugarrizko garrantzia dauka adingabeei prestakuntza eta orientazioa emateak, ez soilik beren familietan, baizik eta ikastetxearen esparruan, aipatu diren eskubideak eta haien inguruan eutsi eta defendatzekoak diren balioak gizabanakoaren garapenaren alderdi gisa hartzen baitira, gizarte-bizikidetasuneko eredu egokietara zuzenduriko bide gisa.

Azken bi urteetan, arartekoaren erakundeak arreta bereziz tratatu du, bere bitartekoek ahalbidetu dioten heinean, herritarren talde hori. Horrela, haiei zuzenduriko zenbait ekimen garatu ditu, giza eskubideak ezagutarazteko helburu horretara bideratuak. Ekimen horietan lagundu dute bai Nafarroako eskola-kontseiluak, bai Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak.

Hasierako harreman horiek ezarri ondoren, ezinbestekoa da ikastetxeen arloan eskubideak eta askatasunak ezagutarazteko metodo bat, hasierako harreman pertsonala gaindituko duena, ikasle eta ikasturte jakin batzuen egitura didaktikoaren zati bat bilakatu arte, beste autonomia erkidego batzuetan egiten den bezalaxe.

Bestalde, ikasleak eskubide eta askatasun hauen jakintza, praktika eta defentsarekin lotzeko beharrezkoa da halako erakargarritasun bat, parte-hartzea errazten duen bitarteko batek soilik sortzen duena. Alegia, hertsiki didaktikoa den ikuspegiaz gain, bestelako lan-ildo bat, talde-lana eta behar adinako pizgarriak eskainiko dituena.

Nafarroako Rural Kutxaren aburuz, Foru Komunitateko herritarren garapenak eta ongizateak ikastetxeetan dute sorburua, eta familiaren baitako bizikidetasuneraino hedatzen dira; horregatik, ikasleen eskola-garaiko prestakuntza indartu beharra dago, modurik egokienean eta pizgarrienean.

Nafarroako Rural Kutxak jotzen du ezen, fundatu zen garaiko aurrekari sozialak, Foru Komunitateko lurralde osoan duen ezarpena eta familiekin duen harreman estua kontuan izanik, bere interesaren araberakoa dela lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduriko hezkuntza-programa osagarri bat abiaraztea.

Alderdiek egoki deritzote Rural Kutxaren eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundearen artean hitzarmen bat ezar dadin erabakitzeari. Hitzarmen hori urtero berritu ahalko da, gehienez ere hiru urtez, eta haren xedea izanen da adingabeei eskubide eta askatasun publikoen berri ematea eta horietan sakontzea, hori guztia haien eskola eta familia inguruneetan. Aipaturiko hitzarmenak nolabaiteko esparru bat izan behar du, egon daitezkeen lankidetzen ildoak finkatuko dituena, bai eta bi erakundeen artean aurrerantzean gauzatu beharreko ekintza zehatzetarako erreferentzia ere.

Gogoan izanik ezen lankidetza akordio edo hitzarmenak balio edo interes sozialeko jarduerak aurrera eramateko bide izan ohi direla, eta Nafarroako administrazio publikoen kontratazioari buruzko araudiak hitzarmenaren figura hori jasotzen duela, lankidetzaren ideiari lotuta, eta ahalbidetzen duela egokitzat jotzen diren kontratu, itun eta baldintzak hitzartzea, baldin eta interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren edo administrazio onari dagozkion printzipioen aurkakoak ez badira (hain zuzen ere, azken horiek errespetatuz bete beharko dira aipaturiko kontratu, itun eta baldintzak).

Ideia horietan oinarriturik, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak eta Nafarroako Rural Kutxak bidezko deritzote honako akordio edo hitzarmen hau izenpetzeari, honako klausula hauei jarraikiz:

KLAUSULAK

LEHENA. Akordio honen xedea da lankidetzarako esparru edo protokolo orokor bat ezartzea Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren eta Nafarroako Rural Kutxa entitatearen artean, urtebeteko iraupena izanen duen eperako, zeina hiru urteko iraupena erdietsi arte berritu ahalko baita. Lankidetzak helburu gisa dauka lehen eta bigarren hezkuntzan giza eskubideak ezagutarazi eta indartzeko hezkuntza programak eta proiektuak prestatzea.

BIGARRENA. Nafarroako arartekoaren erakundearen eta Nafarroako Rural Kutxaren arteko lankidetza hori esklusiboa izanen da entitate eta pertsona pribatuentzat, hitzarmenaren esparruan jasotako jarduerei dagokienez, eta, eraginkortasunik handiena lortzeko asmoz, gure Komunitateko ikastetxe-arloarekin lotura daukaten bestelako organismo eta erakunde publikoekin lankidetzan aritzea bilatuko du.

HIRUGARRENA. Erabakitako lankidetza gauzatzeko, honela jokatuko da, hitzarmen honen garapenean antzematen diren eta alde bientzat interesgarritzat jotzen diren beste aukera batzuez gain: bi erakundeen artean hitzarturiko jarduera prestatu eta gauzatuko da, ikastetxeen arlo horretara zuzendua. Haren izen orokorra “Heldu giza eskubideei” izanen da, eta Foru Komunitateko ikastetxe publiko edo hitzarturiko pribatu guztietan gauzatuko da, hitzarmen esparru honi I. eranskin gisa gehituriko lan-planaren arabera. Ezaugarri nagusi hauek ditu:

• Giza eskubideei eta herritarren eskubideei buruzko unitate didaktikoak prestatzea, Nafarroako Foru Komunitateko lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduak.

• Ikasleen Lehiaketa baterako deialdia egitea urtero, ikastetxe horietako ikasleei zuzendua. Haren helburua da elkarrekiko lankidetza sustatzea, bai eta herritarren eskubide horien garapen eta begirunerako biderik egokienaren bilaketa ere.

LAUGARRENA. Hitzarmen honen indarraldiaren urte bakoitzari dagokion lan-planaren proiektua garatuko da Nafarroako arartekoaren Erakundearen lan-taldeen ekimenez, eta Nafarroako Rural Kutxakoekin koordinatuko da, plan hura ahalik eta modu egokienean bete dadin. Urteroko lan-plan horrek honakoak bildu beharko ditu:

• Kasuan kasuko urteari dagokion proiektuaren xedea zehaztea, une bakoitzean lortu nahi diren helburu partikular eta aldi batekoak adierazita, bai eta haiek lortu ahal izateko egin beharreko ekintzak azalduta ere.

• Jarduera bakoitzaren deskribapen zehatza eta jarduera bakoitza egiteko kronologia.

• Hitzarmen hau sinatzen duen entitate bakoitzaren presentzia instituzionala, bai proiektuaren euskarri eta materialetan, bai xede horrekin dei daitezkeen egintza, bilkura eta topaketetan.

Nafarroako Rural Kutxa babesle gisa agertzen da hitzarmenean. Horretarako, hitzarmeneko jarduerei buruzko ikasketa- eta komunikazio-material guztian Nafarroako Rural Kutxaren babesletzaren berri emanen da, eta haren logotipoa ere ipiniko da, bi alderdiek adostasunez erabakitzen duten tokian.

Nafarroako Rural Kutxak zilegi izanen du egoki jotzen dituen komunikazio- edo hedapen-moduetan aipatzea, baita bestelako merkataritza-erabileretan ere, kontratu honetan adosturiko babesletza.

• Hitzarmena betetzeko esleitzen diren aurrekontua eta giza nahiz gauza baliabideak, urte bakoitzerako hitzarturiko ekarpena gehieneko muga izanik.

BOSGARRENA. Helburu horrekin, Nafarroako Komunitateko arartekoak eta Nafarroako Rural Kutxa entitateak lehendabiziko unitate didaktikoa, “Zure eskubideak dira”, prestatuko dute aurten, 2003an. Lehen hezkuntzako ikasleei dago zuzendua. Halaber, “Heldu gure eskubideei” izeneko lehen ikastetxe-lehiaketarako deialdia eginen da. Lehiaketa 2003/04 ikasturte honetan eginen da. Nafarroako Rural Kutxa entitateak lankidetza-proiektu hau gauzatzeko eginen duen diru-ekarpena urtean 6.000 eurokoa izanen da, gehienez ere.

SEIGARRENA. Lankidetza-jardueren gauzatzea bultzatu eta koordinatzeko xedez, jarraipen-batzorde bat eratuko da, erakunde bakoitzeko bi ordezkarik osatua.

Batzorde horrek ebaluatu eginen ditu lankidetza gauzatzeko egiten diren jarduera guztiak, eta urtebeteko ekitaldi bakoitzean egin beharreko jarduketa-proposamenak organo eskudunei igorriko dizkie, onets ditzan.

ZAZPIGARRENA. Esparru-akordio honek indarra hartuko du sinatzen den unean, eta automatikoki luzatu ahalko da urtebeteko epeetarako, alderdiek ez badute akordioa salatzen urte bakoitza amaitu baino bi hilabete lehenago. Edozein kasutan ere, abian diren jarduerak eta proiektuak behar bezala amaituko direla bermatuko da.

Aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, esparru-akordio honen bi ale sinatzen dira hasieran adierazitako toki eta egunean.”

2. HERRITARREN ESKUBIDEEN EZAGUTARAZPENA ARARTEKOAREN ARGITALPENEN BITARTEZ

2003. urtean posible izan zen erakunde orok eta, bereziki, herritarren eskubideak defendatzeko xedez haiekin harremanetan jartzea helburu duten erakundeek lortu nahi izaten duten zerbaiti heltzea: erakundearen argitalpenen plan bat prestatzea.

2003. urte honetan erakundearen argitalpenen plan baten oinarrizko edukia taxutu zen; izan ere, arartekoaren erakundea, batetik, txostenak ematera behartuta dago –urteko txostena nahiz txosten bereziak, bere ekimenez nahiz Parlamentuak eskatuta eginak, 2003. urtean zehar bezala–, eta, bestalde, herritarrekin eta baita informatika bidezko komunikazio-sistema berriak eskuratzeko zailtasun handiagoak dituztenekin ere komunikazioeuskarri egokiak ezartzearen egokitasunaz ohartzen da; azkenik, argi ikusten du ezen Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak bere ahalmen tekniko eta ekonomikoen mugen barnean, bai, baina zorroztasun eta kalitate handiz ere ezagutarazi behar dituela herritarren eskubideak. Edukiei eta irudiari dagokienez ohiko eta beharrezko jotzen denari lehentasuna ematen dio plan honek–urteroko txostenak, txosten bereziak, “herritarren eskubideak” aldizkaria eta arartekoaren web orria–, eta argitalpenen arloko beste ekintza batzuk ere jasotzen ditu, dibulgazio-kutsu nabarmenagoa daukatenak, gai juridikoetan jakitun zertan izan ez daukaten biztanle batzuei zuzenduak, haien eskubideen iraupen eta defentsari buruzkoak.

Ildo horretatik, jadanik hein handi batean inprimatuak dauden bi argitalpen-lerro abiarazi ziren, 2004ko lehen lauhilekoan aurkeztu eta banatuko direnak:

• Herritarren eskubideen eskuliburua. Poltsikoko bost liburuz osaturiko bilduma da, eta bertan azterketa xehekatua egiten da oinarrizkotzat jotzen ditugun eskubideetako bakoitzean aplikatzekoa den araudi osoari buruz, bai eta herritarrek eskubide horiek egikaritzeko dituzten aukerei buruz: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, administrazio publikoarekiko harremanak, kontsumoa eta abar. Arauei buruzko azterketa horrek bereizita jasotzen ditu estatu mailako araudia eta foru araudia.

Hori egiteko, bi hitzarmen sinatu dira: bata, Andaluziako arartekoarekin (jadanik 2002ko urteroko txostenean horren berri eman zitzaion Parlamentuari), eta beste bat Nafarroako Unibertsitatearekin, horrek baitauka behar den arau-ikerketa egiteaz arduraturiko lan-taldea zuzentzearen erantzukizuna.

• Herritarren eskubideei buruzko liburuxkak. Herritarren eskubideei buruzko tailerrak 2004an egin nahi diren ekintzetako beste bat dira, baina lan horiek amaitzen dira liburuxka monografiko batzuk argitaratzearekin. Liburuxka horiek argitalpen-planaren zati izanen dira, eta elkarteei, abokatuei eta administrazioetako profesionalei banatuko zaizkie. Haietan osoki jasoko dira tailer horietan programatzen eta gauzatzen diren eztabaiden edukiak.

| Txostenak | Urtekoak | Bereziak | Ofiziozkoak |
| --- | --- | --- | --- |
| |  |  | Parlamentuak eskatutakoak |
| Herritarren Eskubideen Eskuliburua |  |  | Nafarroako Unibertsitatearen lankidetzarekin egina. Urtebeteko hitzarmen berriztagarria |
| Herritarren eskubideei buruzko liburuxkak |   | | Transkripzioa "Herritarren eskubideei buruzko tailerrak" |
| Herritarren Eskubideak, aldizkako boletina |  | | Erakundeari buruzko informazio orokorra |
| Eskola-unitate didaktikoa |  | Orokorrak. 5 ale 2003/4an Berariazkoak. Adingabearen eskubideei buruzko bolumen bat 2004an | Nafarroako Rural Kutxarekin lankidetzan. Hiru urteko hitzarmena |
| Web orria |   | | Beste arartekoekin eta herritarren erakundeekin lankidetzan |

## I- 09. LANKIDETZA INSTITUZIONALA

### *I. BESTE ARARTEKO BATZUEKIN*

A. ARARTEKOAK KOORDINATZEKO XVIII. JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA

Nafarroako arartekoaren erakundeak partehartze aktiboa izan zuen Espainiako arartekoak Koordinatzeko XVIII. Jardunaldietan. Gaztela-Mantxako arartekoak antolatu zituen, eta Toledo eta Albaceten egin ziren. Jardunaldi horiek egin aurreko hilabeteetan antolatu ziren lan-tailerretan erakundearen hiru ordezkarik parte hartu zuten, eta Nafarroako arartekoak ponentzia bat aurkeztu zuen ponentzia markoaren barruan, adimen gaixotasun bat jasaten duten pertsonentzako laguntzari buruzkoa.

TAILERRAK

Iruñean 2002an egindako jardunaldietan erabaki zen tailerrak egitea. Jardunaldiak baino lehenago egiten diren lan-bilerak dira tailerrak, eta haietan, erakunde bakoitzeko ordezkariek aztertu egiten dute eztabaidarako proposaturiko gai bat, eta ondorioak ateratzen dituzte, koordinazio-jardunaldietara eramaten direnak. 2003koak Albaceten eta Toledon egin ziren, eta jarraian adierazitako gaiak aztertu ziren (ondorioak aho batez onartu zituzten arartekoaren erakundeetako titularrek):

- “Ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak”
- “Etxebizitza eskuratzea: etxebizitza egoki eta duina bermatzera zuzenduriko esku-hartze publikoa eta herritarra”
- “Emakumeen eta menpeko pertsonen aurkako indarkeria bizikidetzaren esparruan”

2003an EGINDAKO TAILERREN ONDORIOEN EDUKIA

- I. tailerra: “Ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak”.
- II. tailerra: “Etxebizitza eskuratzea: etxebizitza egoki eta duina bermatzera zuzenduriko esku-hartze publikoa eta herritarra”

**Sarrera**

Inolako zalantzarik gabe, etxebizitza eskuratzea funtsezko baldintza da herritar ororen nortasunaren garapena osoa izan dadin, bai gizabanako den aldetik, bai familia bateko eta gizarte-talde bateko partaide den aldetik ere. Etxebizitza bat edukitzea baldintza ia saihestezina da pertsona guztiei zuzenbide-estatu demokratikoetan aitortzen zaizkien eskubideen araberako bizi-proiektu bat garatu ahal izateko.

Ideia horri eutsi zioten 1978an Espainiako Konstituzioaren egileek, espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dutela aitortzen baitu Konstituzioak. Izan ere, politika sozial eta ekonomikoa gidatzen duten printzipioen barrenean, botere publikoek garatu behar dituztenetako bat da eskubide hori, eta horrek beharrezko egiten du botere horien ekintza zuzenean bideratzea eskubidearen eraginkortasuna bermatzera.

Bestalde, begi-bistakoa da etxebizitza eskuratzea behar-beharrezko oinarria dela Konstituzioan aitorturiko oinarrizko eskubideak gozatu ahal izateko, hala nola berdintasunerako eskubidea, herritar guztien arteko egiazko berdintasun gisa ulertua, edo norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea. Ez da ahaztu behar zer-nolako lotura estua dagoen Konstituzioko 47. artikuluan aitorturiko eskubidearen eta beste printzipio zuzentzaile batzuen (ingurumenaren babesa, ondare historikoaren kontserbazioa eta minusbaliatu fisikoen integrazioa, kasu) artean.

Dena den, Konstituzioak aitortzen duen eskubidea, etxebizitza bat eskuratzekoa, ez da edonolako etxebizitza bat eskuratzekoa, baizik eta duintasun eta egokitasun baldintzak betetzen dituen bat eskuratzekoa. Hala da: pertsona guztiek eskubidea daukate bizitzeko eremu bat eskuratzeko, bizigarritasun-baldintza jakin batzuk betetzen dituena eta gutxieneko ekipamendu egokiak dauzkana, bai barnekoak (zerbitzu higienikoak, berokuntza, instalazio elektrikoa...), bai hirigintzakoak (ur-hornidura, estolda-sareetarako lotura, argiztapen publikoa...) bai erkidegokoak (eremu libreak eta berdeguneak, hezkuntza-arloko azpiegitura, osasun-zerbitzuak eta gizarte-laguntzakoak, kultur ekipamenduak...). Ildo horretatik, komenigarria litzateke arau bitartez ezartzea, oraindik ezarri gabe dauden alderdiei dagokienez, zein diren etxebizitza batek bete beharreko gutxieneko betekizunak, duin eta egokia izateko bizigarritasun baldintzak eskain ditzan.

Laburbilduz, etxebizitza bat izateko eskubide konstituzionala ez da ulertu behar etxebizitza-unitate bat soilik eskuratzeko eskubide gisa, baizik eta ikuspegi orokor batetik behatua izan behar da, behar bezala aintzat hartuz etxebizitzaren ondoko inguruak eta etxebizitza kokaturik dagoen eremua hiri edo landa ingurunekoa den.

Bada, eskubide hori bermatzeak duen garrantziak beharrezko egiten du, lehenago adierazi bezala, botere publikoek beharrezkoak diren baldintzak ezartzeko tinko esku hartzea, guztiek etxe-

bizitza duin eta egokiaz, gorago aipaturiko zentzuan, gozatu ahal izan dezaten. Hala ezartzen du berariaz, botere publiko nazionalei dagokienez, Espainiako Konstituzioko 47. artikulu jadanik aipatuak. Arau hori aise txertatzen da Europako zuzenbidean, gogoan hartzen bada Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak 34. artikuluan xedatzen duela Europar Batasunak aitortu eta errespetatzen duela etxebizitza baterako laguntza ematea behar adinako baliabiderik ez daukaten guztiei bizitza duina bermatzeko.

Guztiei etxebizitza duina eta egokia eskuratzea bermatzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatzeko xedez erakunde publikoek egindako urratsek gaur arte izan duten emaitzak aztertuz gero, urrats horiek eskasak eta, kasu askotan, desegokiak izan direla ondorioztatzen da.

Izan ere, gaur egungo egoera ekonomiko eta sozialaren ezaugarri bereizgarria da higiezinen merkatu librean ezer eskuratzeko oztopo ia gaindiezinak dituztela populazio-talde zabalek, bereziki gazteek. Horrela, etxebizitza librearen prezioak izan duen etengabeko gorakada, herritarren dirusarrerena baino askoz handiagoa izan dena, eta bete gabe dauden etxebizitzen kopuru handia eta babesturiko etxebizitzen eskaintza eskasa, horiek guztiak ondorio gisa ekartzen ari dira gaur egungo egoeran familiek etxebizitza duin bat erosteko egin behar duten ahalegina eta beren gain hartu behar duten zorra gehiegizkoa izatea.

Horri gehitzen baldin badiogu etxebizitzak etengabe narriatzen ari direla, nahiko berriak diren arren, edo populazio-gune handietako auzo batzuetan eremu marjinalak ezarri direla, argi ikusten da arlo honetan erakunde publiko guztiek egiten duten jarduera ildo berrietatik bideratzeko premia gorria dagoela.

Arartekoen aburuz, etxebizitzaren arloan eskuhartze publikoko politikak abiaraztean bi printzipio orokor hartu behar dira aintzat: lurralde bakoitzeko erakundeen arteko lankidetza eta koordinazioa, batetik, eta etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektibo zehatzekiko arreta berezia.

Lehenik eta behin, non eta estatuak, autonomia erkidegoek eta toki entitateek eskumenak dituzten arlo batean, beharrezkoa gertatzen da dei egitea erakunde publikoek elkarrekin lankidetza nahitaezkoan jardun dezaten, arlo honetako eskuhartze publikoaren lanabesak taxutu eta praktikan jartzeko garaian.

Bigarrenik, etxebizitza eskuratzen laguntzera zuzenduriko ekintza publiko orok aintzat hartu behar du badirela zenbait kolektibo arreta berezia behar dutenak, beraien egoera berezia dela-eta. Hala da, izan ere: zaharrek, gazteek, etorkinek, ezgaituek, familia ugarietako kideek edo famili zamak jasaten dituzten emakumeek (dela banantze- edo dibortzio-prozesuen ondorioz, dela tratu txarrak saihestu beharraren ondorioz, euren bikotekidearengandik urruntzeko beharra dutenean) errentarekin eta gizarteratzearekin zerikusia daukaten arazo bereziak izaten dituzte, eta arazo horiei aurre egin behar zaie aurrera eramaten diren esku-hartze politiketan. Era berean, arreta berezia merezi dute terrorismoaren biktimek, zeren eta, pairatzen duten jazarpena eta segurtasunik eza direla-eta, terrorismoaren biktima batena den babes ofizialeko etxebizitza batetik beste egoitza batera joatea erraztu beharko baita.

Adierazitako ideia orokor horiek aintzat hartuak izan behar dira dokumentu honen bitartez gomendatuko diren jarduera publiko guztietan; horretarako, ikuspegi sistematiko batetik, botere publikoek izan beharreko nahitaezko esku-hartzea bereizi eginen dugu: batetik, lurzoruaren merkatuko eskuhartzea, eta bestetik, errentan emandako etxebizitzaren eta etxebizitza babestuaren merkatuaren sustapenean esku hartzea.

### I. Lurzoruaren merkatuan esku hartzeko neurriak

Jabetza pribatua/interes orokorra kontrajarpenaren ondoriozko tirabirek, hain zuzen ere jabetza pribatuaren dinamikak berak eragindakoek, ematen diete oinarri lurzoruaren merkatuan esku hartzeko neurriei, eta neurri horiek lurzoruaren espekulazioaren aurkako tresnatzat agertzen dira.

Horri buruz esan behar da ezen, nahiz eta gaur egungo hirigintza-legediak behin eta berriro “lurzoruaren udal ondareak” oinarrizko tresna gisa antolatu izan dituen lurzoruaren eta etxebizitzaren merkatuan erakunde publikoek esku hartzeko, esperientziak hauxe erakutsi duela: ez daukatela inolako eragin murriztailerik lurzoruaren eta etxebizitzaren balioak jasaten duen gehikuntza-prozesuan.

Horretan zeresan nabarmena izan dute udalek, haietan agintean dagoen alderdi politikoa edozein dela ere; izan ere, tresna hori oker erabili izan dute, eta higiezinen arloan diharduten jabe “pribatuetako” beste bat bilakatu dira.

Horregatik, Parlamentuko ordezkariek nahitaezkotzat jotzen dute tresna hori eraldatzea, espekulazioaren aurka eraginkorra izan dadila lortzeko abiapuntu gisa.

1. Eskumen-esparrua zabaldu behar da, bertan lurzoruaren jabe diren administrazio publiko guzti-

ak sartuta egon daitezen (udalak, diputazioak, irletako kabildoak, autonomia erkidegoak eta estatua). Horrela, lurzoruaren ondare publikoak izanen genituzke hizpide, eta “lurzoruaren udal ondare” izendapen zaharra alde batera utziko genuke.

2. Eskumen-esparruaren hedapen horrekin zuzenean loturik, Parlamentuko ordezkariek beharrezkotzat jotzen dute honakoa: administrazio publiko guztien eta haiei loturiko edo haien menpeko zuzenbide publikoko entitateen jabetzakoak diren ondare-izaerako ondasun higiezin guztiek, baldin eta hirigintza-planeamenduan hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuak badaude, lurzoruaren ondare publikoak osa ditzatela.

3. Arau bidez zehaztu behar dira “interes orokor/sozialeko bestelako helburuak/erabilerak” kontzeptu juridiko zehazgabeari buruz egin behar diren interpretazioak, eta haiek murriztu behar dira halako moduan non betiere bermaturik egonen baita lurzoruaren ondare publikoak osatzen dituzten ondasunen oinarrizko eta funtsezko helburua; hots, babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzea.

4. Parlamentuko ordezkariek ezinbestekotzat jotzen dute enkantearen sistema ez izatea ondare publikoetako osagai diren ondasun higiezinak besterentzeko modu bat, eta beraz, besterentzeko moduetatik enkantea kentzea. Ikuspegi horretatik, egokien jotzen den sistema lehiaketarena da. Zuzeneko adjudikazioa zehazki zerrendaturiko kasuetan baimendu behar da.

5. Gogoeta bat egin beharko litzateke Lurzoruaren Araubideari eta Balioespenei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 40. artikuluko 3. puntuak lursail berriak lurzoruaren udal ondareetan sartzeari ekarri dizkion eragin negatiboei buruz; batez ere, kontuan hartzen baditugu higiezinen eta garraioaren sektorea liberalizatzeko presako neurriei buruzko maiatzaren 20ko 10/2003 Legeak lurzoru urbanizagarriaren balioespenetan ezarri dituen azken aldaketak.

Lurzoruaren merkatuan esku hartzeko proposatzen den bigarren neurria jadanik abian jarri dute zenbait autonomia erkidegok. Kontua da nagusiki etxebizitzetarako erabilera daukaten kudeaketa-eremuetako guztizko etekin-aprobetxamenduaren portzentaje bat ezartzea babes publikoko nolabaiteko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzeko. Horrekin batera gomendatzen da portzentaje horiek gauzatu behar direla jarduketa integratuaren esparru bakoitzean (poligonoak edo jarduketa/exekuzio unitateak). Horren bidez, gizarte-kohesioa sustatuko litzateke, eta gizarte-talde-en, erabileren eta jardueren nahasketa orekatua lortzeko bidea sortuko litzateke.

Azkenik, higiezinen alorreko eragile guztiak honakoan bat datoz: eraikitzeko balio duen lurzorua egotea lurzoruaren eta etxebizitzaren merkatuko faktore erabakigarri bat dela. Horregatik, oinarrizkotzat jotzen da botere publikoek beharrezkoak diren neurriak har ditzatela, hiri-lurzoru finkatu gabea edo lurzoru urbanizagarria izatearen sailkapena daukaten lursailen urbanizazio-prozesuak azkartu ahal izateko.

Horri buruz, Parlamentuko ordezkariei derrigorrezkoa iruditzen zaie:

a) Ahal den gehiena sinplifikatzea, arauen ikuspegitik, hirigintzaren kudeaketarekin zerikusia daukaten administrazio prozedurak, betiere herritarren parte-hartzea bermatuz.

b) Administrazio-eginkizunak azkartzeko jardunbideak ezartzea, kasuko prozeduren tramitazioan atzerapenak saihestu ahal izateko. Ikuspegi honetatik, azpimarratu beharrekoa da administrazio-isiltasunaren figuraren erabilera.

c) Espekulazio asmoz lurzorua merkatura atera gabe edukitzearen jokabidea saihestea, jokabide hori eragozteko jardunbideak ezarriz. Kasuko planeamendu-tresnan exekuzio-epeak ezarri behar dira lurzoruaren urbanizazioari dagokionez, eta hortik aurrera neurriak hartu behar dira epe horiek betetzea bermatzeko, bereziki urbanizatze-eginkizuna erraztuz, dela administrazioaren zuzeneko esku-hartzearen bitartez, dela esku-hartze pribatuko figuren bitartez.

**II. Errentan ematen diren etxebizitzen merkatua sustatzea**

Etxebizitza bat edukitzeko eskubidea, Konstituzioak aitortzen duena, ez da etxebizitza baten jabe bihurtzearen sinonimoa. Alderantziz: alokairu-araubideko etxebizitzak eskuratzea, gaur egungo egoeran, aztertzen ari garen problematikarako irtenbide garrantzitsuenetarikoa dugu.

Espainiako higiezinen merkatuaren ezaugarri bereizgarrietako bat, gure inguruko herrialdeekin alderatuta, hauxe da: jabetza bilakatu dela etxebizitza eskuratzeko modu nagusia. Egoera hori ikusirik, beharrezkoa gertatzen da ohartarazpen-dei bat egitea alokairu-erregimenak populazio-talde zabalei etxebizitza duinak eskuratzeko ematen dien aukeraz eta, beraz, erregimen horren komenigarritasunaz. Dituzten dirusarreren zenbatekoa dela-eta etxebizitza horien jabe bihurtzea ezinezkoa duten biztanleez ari gara.

Ondorioz, botere publikoek alokairuaren aldeko apustu tinkoa egin behar dute etxebizitza eskuratzeko erregimen gisa, eta neurriak hartu behar dituzte alokairu-etxebizitzen eskaintza suspertzeko eta haiek ikuspegi ekonomikotik erakargarriago egiteko. Aldi berean lortu behar da gaur egun dauden etxebizitza hutsen kopurua murriztea.

Ildo horretan, Parlamentuko ordezkarien aburua da neurri fiskalak direla hartu beharrekoak, alokairurako etxebizitzen eraikuntza sustatzera eta alokairuen errentagarritasuna (bai etxebizitza errentan ematen duenarena bai errentan hartzen duenarena) gehitzera bideratuak.

Lehenbizi aipaturiko neurriek ez dute orokorregiak izan behar, baizik eta, funtsean, nolabaiteko babes-araubide bateko etxebizitzak eraikitzera zuzendu behar dira, eta bereziki hartu behar dituzte aintzat alokairua sustatzeko beharrik handiena daukaten etxebizitza-motak.

Bigarrenik aipaturikoei dagokienez, nahiz eta berriki neurriak hartu diren alokairu-etxebizitzen eskaintzari laguntzeko, komeni da ildo horri eustea, bai eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan kenkariak ezartzea ere, alokairu-etxebizitzak hartzen dituztenentzat, haientzako alokairua bereziki premiazko egiten duten baldintzak gertatzen direnean.

Etxebizitzak errentan ematea sustatzeko xedez dihardutenean botere publikoek, haien jarduerak aurkitzen dituen oztopoetatik garrantzitsuenetarikoa da jabe askok beren etxebizitza errentan emateko daukaten gogo txarra, kontuan hartzen baitituzte etxebizitza errentan hartzen duenak bere betebeharrak betetzen ez dituenean ekarri ahal dizkien balizko kalteak. Hori dela-eta, bereziki komeni da pertsona horiei babes juridiko eta berme handiagoa ematera zuzenduriko neurriak har daitezela.

Neurri horietako bat, jadanik autonomia erkidegoren batean gauzatua, eta gainerakoetara hedatzea asko komeni dena, hauxe da: partikularren arteko alokairu-programak garatzea, non administrazioak bi alderdien arteko bitartekotza-lana egiten baitu, eta etxebizitzaren errentamendua babesten baitu, errentaren eta etxebizitzetan eragin daitezkeen balizko kalteen ordainketa bermatzen duen aseguru bat sinatuz.

Beharrezkoa gertatzen da, halaber, arauetan zenbait aldaketa egitea, jabeei erraztasunak emateko betebeharrak urratzen dituzten maizterren aurkako ekimenak aurkez ditzaten auzitegietan, eta horretarako denbora-epeak ere laburtzeko.

Etxebizitzen alokairuaren arloan esku-hartze oraindik tinkoagoa da administrazio publikoek alokairurako etxebizitzak zuzenean sustatzea. Beharrezkoa da figura hori gehiagotan erabiltzea, etxebizitza bat eskuratu ahal izatea bermatzen baitio familia-multzo bati; hain zuzen ere, daukaten errenta-mailarengatik babes ofizialeko etxebizitzak ere jabetzan eskuratu ezin izanen lituzketen familiei. Hori dela-eta, etxebizitza-sustapen hori bitarteko bereziki komenigarria da beharrik gorriena jasaten duten biztanle-taldeen gizarteratzea lortzeko. Horrelako etxebizitza-sustapenen gehikuntzarekin batera, etxebizitza horien kudeaketa egokia ahalbidetuko duen sistema bat eratu behar da.

Bestalde, administrazio publikoek esku-hartze azkarra eta eraginkorra beharrezkoa duten larrialdi-egoera sozialei erantzuteko dituzten etxebizitzen multzoa handitu beharra dago.

Azkenik, botere publikoek tinko ekin behar diote etxebizitzak zaharberritu eta ondoren alokatzeko programak eta proiektuak egiteari, bai hiriguneetan bai hirien kanpoaldeko auzo pobretuetan ere. Programa horiek barnean hartu beharko dituzte ingurune egokia bermatzera bideraturiko ekintzak, eremu horietan aurkitu ohi diren baldintzen desagertarazpena sustatuko dutenak (hala nola kutsadura akustikoarena edo biztanleek behar dituztenak bezalako ekipamendu publikoen gabeziarena).

**III. Babes publikoko etxebizitzen sustapena**

Lehenago ere aipatu dugu Espainian etxebizitzari dagokionez egoera berezia dagoela, eta egoera horrek botere publikoak behartzen ditu etxebizitza babestuekiko konpromisoa sendotu dezaten, horixe baita biztanle askok ordain ditzaketen prezioetan etxebizitzak ekoizteko modua eta higiezinen merkatu libreko prezioen gorakada gerarazteko sistema. Arartekoek botere publikoak premiatzen dituzte konpromiso hori zenbait neurritan gauzatu dadin; hain zuzen ere, neurri horiek, etxebizitza haien ekoizpena areagotzeaz gain, bermatu beharko dute etxebizitza haiek bete eginen dituztela haiek eraikitzearen eta finantzatzearen helburuak.

Neurri horien abiapuntu gisa, autonomia erkidegoek arlo honetan daukaten eskumen legegilea egikaritu behar dute, oraindik ere egikaritu ez badute, etxebizitzaren arloari aplikatzekoa den ordenamendu juridikoaren zatiari koherentzia handiagoa eta segurtasun juridikoa emateko xedez. Bereziki azpimarratzekoa da, babes ofizialeko etxebizitzen arloan, zehapenei dagokiena.

Halaber, aipaturiko konpromisoak betiere aintzat hartu behar du nahitaezkoa dela babesturiko

etxebizitzak ez erabiltzea haiek eraikitzearen arrazoiez bestelako helburuetarako, hala nola espekulaziorako. Horregatik, arartekoek komenigarritzat jotzen duten neurri bat da babes ofizialeko etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa iraunkorra izatea, horrela saihestuko bailitzateke haren deskalifikazioak higiezinen merkatuko espekulazioan bertan eragitea.

Babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntzari dagokionez, adierazi behar da ezen, administrazio publikoek etxebizitzak zuzenean sustatu aurretik, azterlan zorrotz bat egin behar dela etxebizitza haien kokaleku egokienari buruz, bai eta premiazkoena den etxebizitza-motari buruz ere. Eginkizun hori betetzeko, garrantzi berezia dauka autonomia erkidegoetako eta udaletako erakundeak lankidetzan aritzeak. Halaber, azpimarratu behar da administrazioak fase horretan eraginkortasunez zaindu behar duela babesturiko etxebizitzen eraikuntzak bai babes ofizialeko etxebizitzen araudi berekia bai onetsiriko eraikuntza eta exekuzio proiektuak errespeta ditzan.

Etxebizitza babestuen adjudikazioari dagokionez, lehenik eta behin adierazi behar da hobetu behar direla herritarrek jabetzan edo alokairuan eskura ditzaketen etxebizitza babestuei buruzko informazioa lortzeko bideak. Teknologia berriak erabiltzeak erraztu dezake herritarrari gai honi buruzko informazio gehiago eta hobea ematea.

Bestalde, bermatu behar da babesturiko etxebizitza guztien adjudikazioak publizitate, konkurrentzia publiko eta gardentasun printzipioak errespeta ditzala, ezaugarri horiek ezartzen dituen prozedura bat ezarriz, halakorik gaur egun ez dagoen tokietan.

Administrazio publikoek zuzenean sustaturiko etxebizitzen kasuan, bai alokairurakoak bai jabetzan ematekoak, adjudikazioa egin aurretik eskatzaileen baldintza pertsonalei buruzko baremo objektibo bat egin behar da. Erabilitako baremoaren helburua izan behar da etxebizitza horiek zuzentzea etxebizitzaren merkatu librean etxebizitzak eskuratzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonei. Halaber, adjudikazio prozedura hauek arauek ezarritako epeen barrenean ebaztea lortzeko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira.

Administrazioak zuzenean sustaturiko etxebizitzak esleitu ondoren, atzerapenik gabe entregatu beharko dira. Horretarako, egin behar diren urbanizazio-obrei dagokienez hirigintza-araudiak ezarritako betekizunak betetzen direla bermatu behar da. Baldin eta, etxebizitza bat adjudikatu ondoren, hura gehiegizko atzerapenez entregatzen bada, etxebizitza sustatu duen administrazioaren ondare-erantzukizuna sortarazteko beharrezkoak diren elementuak gauzatzea gerta daiteke, eta kasu horretan bidezkoa litzateke ofizioz prozedura bati ekitea atzerapenak eragindako balizko kalteengatik kalte-ordainak ordain ote daitezkeen egiaztatzeko.

Babesturiko etxebizitzak eraikiak, adjudikatuak eta entregatuak daudenean, haiek zaindu eta mantentzeko eginkizunaren txanda iristen da. Nahitaezkoa da seriotasunez eta sakontasunez aurre egitea babesturiko etxebizitzen hondamenaren arazoari. Horretarako, tinko egikaritu behar dira ordenamendu juridikoak administrazio publikoari arlo honetan aitortzen dizkion ahalmenak, bai eta, kasua bada, etxebizitzen sustatzaile den aldetik dagozkiokeenak ere. Ahalmen horiek behar bezala egikaritzeko betekizun nahitaezkoa da zainketa-aginduak betetzen direla bermatzea edo, kasua bada, ezartzen diren zehapenak betetzen direla; horretarako, betearazte subsidiariora jo beharko da, isunen eraginkortasunik ezak horretara behartzen duenean.

Babesturiko etxebizitzek beren helburuak betetzen dituztela bermatzeko eta kasuren batean gizartean izan duten ospe-galtzea saihesteko funtsezko tresnetako beste bat da administrazio eskudunek dituzten zigor-ahalmenak behar bezala erabiltzea, babesturiko etxebizitzen arloko jokabide arau-hausleen aurka, jokabide horiek etxebizitza babestuen helburuak desitxuratzen baitituzte.

Ildo horretatik, dokumentu honetako beste leku batean aipatu dugu jadanik zein komenigarria den arlo honetako arau-hauste eta zehapenak lege baten bitartez tipifikatzea oraindik urrats hori eman ez den autonomia erkidegoetan, segurtasun juridikoa bermatzearren.

Horri gehitu behar zaio ikuskapen-zerbitzu publikoak eratu beharra, arau-hausteak detektatzeko egokituak eta, aldi berean, arau-hausteak egiteari dagokionez gogogabetze-eragina izanen dutenak.

Arlo honetan maiztasun handienaz egiten diren arau-hausteetako bi dira etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzeko betebeharra ez betetzea eta aurrerago eginiko etxebizitza-eskualdaketak, horretarako ezarritako baldintzak bete gabe eginak eta, batez ere, ezarritako gehieneko salneurria baino handiagoan eginikoak. Bi kasu horietan, arau-hausteek funts publikoen desbideraketa sortzen dute; izan ere, funts horiek erabiltzen dira, azken batean, bigarren etxebizitzen erosketak finantzatzeko, edo adjudikazio-hartzailearen espekulazioaren etekinari laguntzeko. Horregatik, kasu

hauetan administrazio publikoak behartuta daude horrelako jokabideei aurrea hartzera eta haiei zigorra tinko ezartzera.

Lehen kasuan, arau-haustea frogatu ondoren, hura amaiarazteko behar diren neurriak hartu behar dira; beharrezkoa eta bidezkoa bada, maizter-botatze administratiboaren baliabidea ere erabili beharko da.

Lehen azaldutako jokabideetatik bigarrenari dagokionez, haren zergatietako bat da gaur egun etxebizitzen merkatu libreko prezioaren eta babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako gehieneko salneurriaren artean dagoen aldea. Udalerri berezien deklarazioaren bitartez, zeina estatuko Etxebizitza Planean jasota baitago, beste herri batzuekin alderatuta etxebizitzen batez besteko salneurriak altuagoak diren udalerrietan gehieneko salneurri hori igotzea bermatu behar da.

Edozein kasutan ere, gaur egungo neurriak ez dira eraginkorrak iruzurrezko jokabide horiek oztopatzeko. Haiek ugaritzea eragozten saiatzeko, badirudi beharrezkoa dela, lehenik eta behin, gaur egungo araubidea aldatzea, halako moldez non kontratu horiei –baita ezarritako gehieneko salneurria gainditzen dutenean ere– balioa ematen dien jurisprudentzia gainditu ahalko den.

Halaber, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubide bat aitortu behar zaio administrazioari, babesturiko etxebizitza guztien gain. Eskubide hori egikaritu beharko du, betiere, legez ezarritako baldintzak betetzen ez dituen pertsona bati egiten zaionean eskualdaketa, edo ezarritako gehieneko salneurria baino handiagoa ezarriz egiten denean. Eskubide horiek behar bezala egikaritu ahal izateari begira, behar diren aurrekontu-kontsignazioak egin behar dira.

Azkenik, Parlamentuko ordezkariek oharpendei bat egin nahi dute zenbait hiritan gertatzen ari den eremu-bereizkeriari buruz, hirietako eremu jakin batzuetan giza talde sozialki homogeneoak kokatzen ari baitira, eta, horrela, eremu horiek marjinaltasun eta txirotasun gune bilakatu baitira. Etxebizitza-politikak taxutu eta praktikara eramatean, erreferentzia gisa hartu behar dira gure inguruko herrialdeetako batean egiazko giza ghettoak sortzearekin izandako esperientziak, halako fenomenoen agerpena eragozteko.

Hori horrela, plangintza orokorreko tresnek zonifikazio zorrotzegia egitea saihestu behar dute, eta hiri integratuagoa izan behar dute helburu, ikuspegi sozial, ekonomiko eta ingurumenekotik jasangarria izanen den hiri-ereduan oinarritua. Halaber, lurzoruaren merkatuan esku hartzeko tresna lehen aipaturikoen bitartez, giza talde homogeneoen kontzentrazioak saihesteko ahalegina egin behar da. Azkenik, gaur egun dauden marjinaltasun-guneak desagertarazteko, azpiegituren eta zerbitzuen planak egin behar dira, bai eta errehabilitaziorako eta infraetxeen eraldaketarako deklaraturiko eremuei laguntza ematekoak ere.

PROPOSAMENAK

Etxebizitzaren arloan esku-hartze publikorako politikak abiaraztean Parlamentuko ordezkarien iritziz kontuan hartu behar diren bi printzipio orokorretan oinarrituz, alegia, lurralde-aginteen arteko lankidetza eta koordinazioa, batetik, eta etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak aintzat hartzea, bestetik, eta gogoan izanik komeni dela arau bitartez zehaztea etxebizitza bati, bere osotasunean harturik, duintasun eta egokitasuna ematen dioten gutxieneko baldintzak, honako ekintza hauetarako proposamenak adierazten ditugu jarraian:

**1. Lurzoruaren merkatuan esku hartzeko neurriak**

**1.1** "Lurzoruaren udal ondareen" figura zaharra berrantolatzea. Horri dagokionez, honela jokatu behar da:

• Haien esparrua hedatu behar da, administrazio publiko guztien eta haiei loturiko edo haien menpeko zuzenbide publikoko entitateen jabetzakoak diren ondare-izaerako ondasun higiezin guztiak barnean hartzeraino, baldin eta hirigintza-planeamenduan hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuak badaude. Horrela, "lurzoru ondare publikoak" izena hartuko lukete.

• Arau bidez zehaztu behar dira "interes orokor/sozialeko bestelako helburuak/erabilerak" kontzeptu juridiko zehazgabeari buruz egin behar diren interpretazioak, eta haiek murriztu behar dira halako moduan non betiere bermaturik egonen baita lurzoruaren ondare publikoak osatzen dituzten ondasunen oinarrizko eta funtsezko helburua; hots, babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzea.

• Enkantearen sistema ez izatea ondare publikoetako osagai diren ondasun higiezinak besterentzeko modu bat, eta beraz, besterentzeko moduetatik enkantea kentzea. Ikuspegi horretatik, egokien jotzen den sistema lehiaketarena da. Zuzeneko adjudikazioa zehazki zerrendaturiko kasuetan baimendu behar da.

• Lurzoruaren Araubideari eta Balioespenei buruzko apirilaren 13ko 6/1988 Legeko 40. artikuluaren 3. puntua aldatu behar da.

• Nagusiki etxebizitzetarako erabilera daukaten kudeaketa-eremuetako guztizko etekin-aprobetxamenduaren portzentaje bat ezartzea babes publikoko nolabaiteko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzeko. Portzentaje horiek gauzatu beharko lirateke jarduketa integratuaren esparru bakoitzean (poligonoak edo jarduketa/exekuzio unitateak), ahalegina eginez gizarte-taldeak, erabilerak eta jarduerak orekaz nahasteko, eta horrela eremuen araberako bereizkeria agertzea saihesteko.

• Hiri-lurzoru finkatugabe edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkaturiko lursailen urbanizazio-prozesuak azkartu behar dira.

• Ahal den gehiena sinplifikatzea, arauen ikuspegitik, hirigintzaren kudeaketarekin zerikusia daukaten administrazio prozedurak, betiere herritarren parte-hartzea bermatuz.

• Administrazio-eginkizunak azkartzeko jardunbideak ezartzea, kasuko prozeduren tramitazioan atzerapenak saihestu ahal izateko. Ikuspegi honetatik, azpimarratu beharrekoa da administrazio-isiltasunaren figuraren erabilera.

• Espekulazio asmoz lurzorua merkatura atera gabe edukitzearen jokabidea eragozteko jardunbideak ezartzea. Ildo honetan, neurriak hartu behar dira, lurzoruaren urbanizazioari dagokionez, exekuzio-epeak beteko direla bermatzeko, eta bereziki urbanizatze-eginkizuna erraztu behar da, dela administrazioaren zuzeneko esku-hartzearen bitartez, dela esku-hartze pribatuko figuren bitartez.

**1.2** Errentan ematen diren etxebizitzen merkatua sustatzea

• Etxebizitza eskuratzeko moduen artean alokairua sustatzea, eta horretarako, neurri fiskalak hartu behar dira, xede izanen dutenak, batetik, nolabaiteko babes publikoa daukaten etxebizitzen eraikuntza sustatzea, eta bestetik, alokairu-etxebizitzen eskaintza eta eskaria ikuspegi ekonomikotik erakargarriago egitea.

• Neurriak hartu behar dira errentamendu-kontratuko harremanei babes juridiko eta berme handiagoak emateko; horretarako, administrazio publikoek programa jakin batzuk garatuko dituzte. Programa horien bitartez, babes berezia beharrezkoa deneko kasu batzuetan alokaturiko etxebizitzei egin ahal zaizkien kalteen eta errentaren ordainketa bermatuko dute administrazio publikoek.

• Administrazio publikoek nabarmen areagotu behar dute alokairurako etxebizitzen zuzeneko sustapena, bai eta beharrizan bereziko eta larrialdiko egoerei aurre egiteko xedeari loturik dauden jabetza publikoko etxebizitzen kopurua ere.

• Hirien zentroetako eta hirien kanpoaldeko auzoetako etxebizitzen errehabilitazio-programei ekin behar zaie, ondoren etxebizitza horiek alokairuan emateko. Horrekin batera, ingurune egokia bermatzera zuzendutako neurri aktiboak hartu behar dira.

**1.3** Babes publikoko etxebizitzen sustapena

• Etxebizitzaren arloko legegintza-eskumena erabili behar dute oraindik erabili ez duten autonomia erkidegoek; bereziki, babesturiko etxebizitzekin zerikusia daukaten zehapenei dagokienez.

• Gehien eskatzen diren ezaugarriak dituzten etxebizitzak sustatu behar dira merkatu libreko etxebizitzak eskuratzeko zailtasunik handienak dituzten herrietan, eta haien eraikuntzan indarreko araudia betetzen dela bermatu behar da.

• Daukaten egoera berezia dela-eta arreta berezia behar duten kolektiboei erraztasunak ematea etxebizitza bat eskura ahal izan dezaten. Aipagai ditugun kolektiboak dira zaharrak, gazteak, etorkinak, ezgaituak, familia ugarietako kideak edo tratu txarrak nahiz famili zamak jasaten dituzten emakumeak, banantze- edo dibortzio-prozesuetan daudenak edo tratu txarrak saihestearren euren bikotekidearengandik urruntzeko beharra dutenak; talde horiek errentarekin eta gizarteratzearekin zerikusia daukaten arazo bereziak izaten dituzte, eta arazo horiei aurre egin behar zaie aurrera eramaten diren esku-hartze politiketan.

• Era berean, arreta berezia merezi dute terrorismoaren biktimek, zeren eta, pairatzen duten jazarpena eta segurtasunik eza direla-eta, terrorismoaren biktima batena den babes ofizialeko etxebizitza batetik beste egoitza batera joatea erraztu beharko baita.

• Bermatu behar da babesturiko etxebizitza guztien adjudikazioa prozedura publikoen bitartez egitea; hain zuzen ere, publizitate, lehia publikoa eta gardentasun printzipioak errespetatuko dituzten prozeduren bitartez.

• Neurriak hartu behar dira, babesturiko etxebizitzak ezarritako epeen barrenean adjudikatzeko eta entregatzeko, eta gehiegizko atzerapenek haien adjudikazio-hartzaileei kalteak eragitea saihesteko.

• Aitorturiko eskumenak eraginkortasunez egikaritu behar dira, babesturiko etxebizitzak behar bezala zaintzen direla bermatzeko. Beharrezkoa baldin bada, exekuzio subsidiariora jo beharko da.

• Eragotzi behar da babesturiko etxebizitzak erabiltzea haien eraikuntza eta finantzaketaren helburuez bestelakoak direnetarako; horretarako,

babes ofizialeko etxebizitzaren behin betiko kalifikazioari izaera iraunkorra eman behar zaio.

• Arlo honetan ikuskapenak egiteko zerbitzu publikoak sortu behar dira, eta eraginkortasunez erreakzionatu behar da arauak hausten dituzten ekintzen aurrean, hala nola gehieneko kopuruak gainditzen dituzten prezioak kobratzea etxebizitza babestuen eskualdaketan; horretarako, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideak erabiliko dira, hala behar denean.

Toledon, 2003ko urriaren 20an

B. ARARTEKOEN LURRALDE-ERAKUNDEEN ARTEAN LANKIDETZAN ARITZEKO ESPARRU-HITZARMENA AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ARARTEKOEN KONFERENTZIA

Arartekoen lurralde-erakundeen arteko lankidetza sustatzeko eta ildo honetan proposa litezkeen ekimenetarako behar bezalako esparrua izateko, 2003ko urrian lankidetzarako esparru-hitzarmen bat sinatzea erabaki zuten arartekoek, eta horrek autonomia erkidegoetako arartekoen konferentzia bat erakarri zuen. Aipaturiko hitzarmenaren testua hauxe da:

**Lankidetzan aritzeko esparru-hitzarmena**

"Albaceten, bi mila eta hiruko urriaren hogeita bian

BILDURIK

Andaluziako Ararteko José Chamizo de la Rubia jauna

Kataluniako Sìndic de Greuges Antón Cañellas i Balcells jauna

Galiziako Valedor de Pobo José Ramón Vázquez Sandes jauna.

Euskal Autonomia Erkidegoko jarduneko Ararteko Mertxe Agúndez Basterra andrea.

Kanarietako Diputado del Común Manuel Alcaide Alonso jauna.

Aragoiko Justicia de Aragón Fernando García Vicente jauna.

Valentziako Sìndic de Greuges Bernardo del Rosal Blasco jauna.

Gaztela eta Leongo Procurador del Común Manuel García Álvarez jauna.

Nafarroako Ararteko María Jesús Aranda Lasheras andrea.

Gaztela-Mantxako Ararteko Henar Merino Senovilla andrea.

PARTE HARTZEN DUTE

Nork bere erakundearen izenean eta erakunde hori ordezkatuz, bakoitzaren araubidea ezartzen duten legeek ezarritakoaren arabera.

Parte hartzen duten alderdiek lankidetzan aritzeko esparru-hitzarmen hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta horretarako

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA.- Lankidetza eta elkarkidetza printzipioak, erakundeen arteko koordinazio eta leialtasun printzipioekin batera, erakunde hauen arteko harremanak oinarritzeko funtsezko irizpideak dira, haiek arautzen dituzten legeetatik ondoriozta daitekeen bezala.

BIGARRENA.- Printzipio horiei jarraikiz, autonomia erkidegoetako parlamentuetako ordezkariek harreman informal ugari izan dituzte beren eginkizunak betetzearekin zerikusia daukaten guztien intereseko gaiak lantzeko; izan ere, eginkizun horietan jardutean suertatzen diren gaiak antzekoak dira.

HIRUGARRENA.- Gai honi dagokionez, autonomia erkidegoetako arartekoen iritzi orokorra da harreman informalen bidezko jardunbidea gainditu eta harremanetan aritzeko bide arautu bat finkatu behar dela. Horretarako, egoki deritzote lankidetzarako eta esperientzien eta informazioaren elkartrukerako esparru bat eratzeari, legez ezarrita dauzkaten eginkizunak betetzean lorturiko eraginkortasuna hobetzeko.

LAUGARRENA.- Konstituzioko eskubide eta askatasunen babeserako erakunde hauek esleiturik dauzkaten helburuak modu eraginkorrean betetzeko beharrak are komenigarriago egiten du lankidetzan aritzeko hitzarmenak sinatzea; hitzarmen horiek, alderdi bakoitzaren autonomia eta independentzia errespetatuz, balio behar dute langintza hartan herritarrei zerbitzu hobea ematea ekarriko duten jarduketak eta neurriak bultzatzeko.

Horretarako, hitzarmena sinatzen duten alderdiak lankidetza-printzipioari buruz ados daudenez, eta lankidetzaren nondik norakoak arautzeko asmoz, lankidetzan aritzeko esparru-hitzarmen hau sinatu dute, honako klausula hauek dituena:

KLAUSULAK

LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da autonomia erkidegoetako arartekoen erakundeen artean berariazko lankidetzan aritzeko esparru juridikoa ezartzea, legez esleiturik dituzten eginkizunak betetzeari

dagokionez, horrela herritarren eskubide eta askatasun konstituzionalen defentsan aritzeko eginkizun hartan jardutean haien eraginkortasuna hobetu eta gehitzeari begira.

BIGARRENA.- AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ARARTEKOEN KONFERENTZIA

Horretarako, hitzarmen hau sinatzen duten erakundeen titularrek "Autonomia erkidegoetako arartekoen konferentzia" eratzea erabaki dute, haien arteko lankidetza eta elkarkidetza harremanak gauzatzeko bide modura, eta arau orokor gisa azaroaren 6ko 36/1985 Legeak arlo honetarako ezarritakoa ezertan galarazi gabe (lege horrek arautzen ditu Espainiako arartekoaren eta autonomia erkidegoetako kideko erakundeen arteko harremanak).

HIRUGARRENA.- ERDIETSI BEHARREKO HELBURUAK

Ildo horretan, behean sinatzen duten arartekoek ondoko helburuak erdiesteko beharrezkoak diren jarduketak eta neurriak "autonomia erkidegoetako arartekoen konferentziaren" bitartez sustatzeko konpromisoa hartzen dute:

a) Erakunde hauen arteko komunikazioa erraztea, eta beren eginkizunak betetzean elkarri laguntza ematea.

b) Autonomia erkidegoetako arartekoek betetzen dituzten eginkizun eta jardueren gaineko jakintza sustatzea, eta horien promozio eta ezagutarazpenerako lanak egitea, erakunde hauek indartzen laguntzeko.

c) Erakunde bat edo gehiago gauzatzen ari litekeen ekimen eta esperientziak haien aplikazioan interesaturik egon litezkeen beste batzuetara hedatzea posible egitea.

d) Elkarrekin batera aldizkako argitalpen bat kaleratzea, autonomia erkidegoetako arartekoen komunikazio, gogoeta eta adierazpenetarako bide izan dadin haien eginkizunak betetzeari dagokion orotan.

e) Haien eskumenekoak diren alderdiekin zerikusia daukaten baterako azterlan eta ikerketak sustatzea.

f) Baterako prestakuntza-jarduerak antolatzea, hala nola mintegiak, jardunaldi teknikoak, ikastaroak edo erakunde horien zerbitzuko langileen prestakuntza hobetzera eta haien espezializaziora zuzenduriko beste edozein jarduera.

LAUGARRENA.- ARAUBIDE ORGANIKOA

"Autonomia erkidegoetako arartekoen konferentziak" bere antolaketaren eta funtzionamenduaren araubidea onetsiko du. Edozein kasutan ere, berariaz xedaturik ez dauden gaietan, administrazio publikoen araubide juridikoari eta prozedurari buruzko administrazio-arau orokorrek organo kolegiatuei buruz xedatutakoari loturik daude.

BOSGARRENA.- LEHENDAKARITZA ETA EGOITZA

Konferentziako kide guztiek txandatan hartuko dute konferentziaren lehendakaritza, urtebeteko eperako.

Konferentziaren egoitza litzateke unean uneko lehendakaritza eskuratua duen erakunde bakoitzarena. Egoitza horretan eginen dira egin beharreko bilerak.

SEIGARRENA.-KONPROMISO EKONOMIKOAK

Baldin eta autonomia erkidegoetako arartekoen konferentziak harturiko ekimen eta erabakiek gastu-konpromisoak erakartzen badituzte, ekimen eta erabaki horiek baldintzaturik egonen dira beharrezkoak diren aurrekontu-kredituak egoteari, erakunde bakoitzak hitzarturiko proportzioan edo zenbatekoan.

Horretarako, hitzarmen hau sinatzen duten erakundeek beharrezkoak diren funtsak bideratu beharko dituzte, zeinek bere aurrekontuetan, haien helburuak betetzeko aurreikusitako jardueretatik eratorritako gastuei aurre egin ahal izateko.

ZAZPIGARRENA.- LAGUNTZA TEKNIKOA

Autonomia erkidegoetako arartekoen konferentziari eman beharreko laguntza teknikoa emanen duena unean uneko lehendakaritza duen arartekoa izanen da.

Horretarako, horren ardura duen erakundeak konferentziaren eskueran ipiniko ditu behar den laguntza teknikoa emateko nahitaezko giza eta gauza baliabideak.

ZORTZIGARRENA.- ESPARRU HITZARMENAREN GARAPENA

Esparru-hitzarmenean jasotako helburuak betetzeari begira autonomia erkidegoetako arartekoen konferentziako kideek erabaki ditzaketen jarduketak eta ekimenak eginen dira berariazko hitzarmenen bitartez. Hitzarmen horiek sinatuko dituzte arartekoen erakunde guztiek, edo elkarrekin interes komuneko ekimen edo esperientziaren

bat batera burutzea erabakitzen dutenek, esparru-hitzarmen honen helburuen alorrean betiere.

BEDERATZIGARRENA.- INDARRALDIA

Esparru-hitzarmen honek sinatu eta biharamunean hartuko du indarra, eta indarrean jarraituko du, aldeetako batek, gutxienez ere hogeita hamar egun aurretik, amaiaraztea eskatzen ez duen bitartean.

Aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, eta hitzarturiko guztia behar bezala jasota egon dadin, behean adierazitakoek honako dokumentu hau sinatzen dute, hamar aletan, idazpuruan aipaturiko tokian eta egunean

JOSÉ CHAMIZO DE LA RUBIA jauna,
Andaluziako Arartekoa

ANTÓN CAÑELLAS I BALCELLS jauna,
Kataluniako Sìndic de Greuges

JOSÉ RAMÓN VÁZQUEZ SANDES jauna,
Galiziako Valedor de Pobo

MERTXE AGÚNDEZ BASTERRA andrea,
EAEko jarduneko Arartekoa

MANUEL ALCAIDE ALONSO jauna,
Kanarietako Diputado del Común

FERNANDO GARCÍA VICENTE jauna,
Justicia de Aragón

BERNARDO DEL ROSAL BLASCO jauna,
Valentziako Sìndic de Greuges

MANUEL GARCÍA ÁLVAREZ jauna,
Gaztela eta Leongo Procurador del Común

MARÍA JESÚS ARANDA LASHERAS andrea,
Nafarroako Arartekoa

HENAR MERINO SENOVILLA andrea,
Gaztela-Mantxako Arartekoa

## C. ARARTEKOEN BESTE JARDUNALDI BATZUETAN ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKOETAN PARTE HARTZEA

- Europako Eskualdeetako arartekoen IV. Topaketa (Valentzia, 2003ko apirilaren 9/11):

- “El Defensor del Pueblo y los Derechos Constitucionales” jardunaldiak, Espainiako arartekoak antolatuak, Espainiako Konstituzioaren 25. urteurrena zela-eta (Madril, 2003ko urriaren 27/28):

## D. BATERAKO EKIMENETARAKO PROPOSAMENA: ADMINISTRAZIO JOKABIDE ZUZENAREN KODEA

Autonomia erkidegoetako arartekoen konferentzia sortu zen, hain zuzen, hilabete gutxi igaro zirenean erakunde horiek elkarlanean aritzeari buruzko zenbait proposamen abiarazi zirenetik (adibidez, koordinazio-jardunaldien eredu berria, jadanik Iruñean eta Albaceten aplikatua: intereseko gaiei buruzko eztabaida-tailerrak, herritarren eskubideen gaineko gaurkotasuneko gaiekin lotuak; baterako argitalpen bat prestatzea, printzipioz urtekaria, edo Europar arartekoaren, Ombudsman delakoaren, administrazio-jokabide zuzeneko kodea hartu eta, ontzat jotzen ziren aldaketak egin ondoren, lotesle gisa onesteko proposamena).

Proposaturiko diseinu orokor komun batetik abiaturik, erakunde bakoitzak bere jokabide zuzenaren kode berekia prestatzeari ekin dio, eta horretan garapen-maila ezberdina lortu da ararteko-erakunde bakoitzean, maila ezberdinetako konpromisoak hartu ahal izan baitituzte, euren giza baliabideen eta baliabide teknikoen arabera. Urteko txosten honen prestaketa-fasea amaitzen ari zela, hiru arartekok (Gaztela-Mantxakoak, Andaluziakoak eta Nafarroakoak) beren kode partikularra egin zuten, baita beren lurraldeko administrazio publikoei igorri ere, administrazio horiek ager zezaten ea bat egiten ote zuten ala ez erkidego horretako herritarrei zuzenduriko laguntzaren inguruko konpromisoekin.

Nafarroari dagokionez, arartekoaren administrazio-jokabide zuzeneko kodea, 2003ko azaroaren 3an aurkeztua, foru administrazioari igorri zitzaion antzeko konpromisoak har zitzan, baina orain arte administrazio horrek ez du adierazi kode hori onartzen ala arbuiatzen duen ere, ezta hari buruz inolako oharrik egin ere.

Baina, nahiz eta garrantzitsua izan Europako arartekoak eginiko kodetik eratorritakoa den kode horren edukia, bai eta autonomia erkidegoetako arartekoek elkarrekin lankidetzan aritzeko konpromiso publikoak hartzea ere, kode hori onesteak ondorio sakonagoak dituen prozesu bat ireki du ararteko batzuen erakundeetan; alegia, erakunde horien kalitate-planak prestatu eta abiaraztea. Itxuraz, prozesu horrek barne-kudeaketako zenbait jardunbideren hobekuntzan eraginen du, baina egiazko eta zuzeneko eragina izanen du herritarrentzako laguntzan eta haien eskubideak administrazio publikoen aurrean defendatzeko langintzan, lortzen den eraginkortasunaren maila igoko baitu.


CÓDIGO DE BUENA CONDUCTA


CARTA DE SERVICIOS
Y BUENA PRÁCTICA ADMINISTRATIVA


CÓDIGO DE BUENA CONDUCTA

## UDALERRI ETA KONTZEJUEKIN LANKIDETZAN ARITZEKO HITZARMENAK

| | |
|---|---|
| 1. ABLITAS | 20. LEITZA |
| 2. OIBAR | 21. LEKUNBERRI |
| 3. ALTSASU | 22. LESAKA |
| 4. ANTSOAIN | 23. LODOSA |
| 5. ARGUEDAS | 24. LOS ARCOS |
| 6. ARROITZ | 25. MENDABIA |
| 7. ARTAXOA | 26. MONTEAGUDO |
| 8. AZAGRA | 27. ERRIBERRI |
| 9. BARAÑAIN | 28. GARES |
| 10. BERRIOZAR | 29. ZARE |
| 11. BUÑUEL | 30. DONEZTEBE |
| 12. BURLATA | 31. ZANGOZA |
| 13. CADREITA | 32. TAFALLA |
| 14. CASTEJÓN | 33. TUTERA |
| 15. CINTRUÉNIGO | 34. BAZTAN IBARRA |
| 16. CORELLA | 35. ATARRABIA |
| 17. CORTES | 36. ESA |
| 18. LIZARRA | 37. ZIZUR NAGUSIA |
| 19. FALTZES | |

2002ko uztailean, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta arartekoaren erakundeak lankidetzan aritzeko hitzarmen bat sinatu zuten, Arartekoari kexak aurkeztu edo kontsultak egin nahi dizkioten herritarrei laguntza emateko, nork bere udaletxean aurkeztu ahal izan zitzan. Horretarako, egoki ziren euskarriak ere taxutu ziren.

Esparru-hitzarmen hori 2003ko bigarren seihilekoan bizkortasun handiz aplikatu da. Hain bizkor, non, 2003ko azken lau hilabeteetan bakarrik, guztira 51 hitzarmen sinatu baitzituzten erakunde honek eta Foru Komunitateko beste hainbeste udalerrik. Hitzarmen horietako batzuetan ezarritako klausulek Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin sinaturiko esparru-hitzarmen haren xedea zabaltzen zuten, zuzeneko lankidetza estuagoa ezartzen baitzuten bi erakunde-moten artean, udalerri zehatz horiei buruz arartekoak jaso litzakeen kexen kudeaketari begira.

Tuterako alkate berriak agerturiko interes berezia eskertzekoa da, bertakoa izan baitzen aipaturiko hitzarmena sinatzea eskatu zuen lehen udalbatza, maiatzaren 25eko udal eta autonomia erkidegoetarako hauteskundeak egin ondoren. Sinaturiko lehen hitzarmen hura (2003ko uztaila) eta gero, 2003. urtearen amaieran 26 hitzarmen-eskaera zeuden sinatu gabe. 2004ko lehen hiruhilekoan sinatu ziren. Besteak beste, Iruñeko Udalarekin ere sinatu zen. Udal horrekin berariazko agiri bat erabili behar izan zen, arartekoaren erakundea Iruñean bertan kokaturik baitago, eta horren ondorioz ez baitira beharrezkoak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin sinaturiko hitzarmenean beste herri batzuetarako ezarritako klausuletako batzuk.

## NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN HERRITARRAREN ESKUBIDEEN BERRI EMATEKO EGINKIZUNEAN LANKIDETZAN ARITZEKO ESPARRU HITZARMENA, NAFARROAKO UNIBERTSITATEAREKIN SINATUA (10)

Arartekoaren erakundeak eta Nafarroako Unibertsitateak sinaturiko esparru-hitzarmena bi erakunde horien borondate bateratuaren emaitza gisa sortua da, herritarrei berezkoak dituzten eskubideen berri emateko, eta haiengan eskubide horiei buruzko jakintza hobea sustatzeko. Helburu horretarako ildoan, hitzarmen hori 2003an bideratu zen elkarrekin “argitalpen-sorta bat” egitera, dibulgazio-izaera nabarmenekoa eta herritar guztien eskueran ipinitakoa, berri-emate eginkizun hori gauzatzeko modu gisa. Lehen urratsa “Herritarraren eskubideei buruzko eskuliburua” izan zen.

Lan-ildo hori Andaluziako arartekoak jorraturiko antzeko esperientzia batean oinarriturik zegoen. Nafarroako arartekoak aurretiazko hitzarmen bat sinatu zuen Andaluziakoarekin, azken horrek argitaraturiko herritarraren eskubideei buruzko eskuliburuan jasotako edukietako batzuk erabiltzeko.

Argitaratzekoak ziren bost aleetako bakoitzak jasoko zituen materialak hautatu ziren 2003an zehar, eta geroago, Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko zenbait kidek ikerketa juridikoko lan bati ekin zioten. Bitartean, arartekoaren erakundean, argitalpenari zegozkion alderdiak landu ziren, esparru-hitzarmena sinatu ondoren.

*(10) Ikus “Erakundearen argitalpenen plana”.*

**I-10. PARLAMENTURA JOATEA**

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, María Jesús Aranda Lasheras andreak, hiru agerraldi egin zituen 2003an Nafarroako Parlamentuko Foru Araubide Batzordean:

• Arartekoaren erakundeak 2002an zehar eginiko jarduerari buruzko urteko txostena Parlamentuari aurkeztea.

• Nafarroako adimen-osasunaren arloko laguntzari buruzko txosten berezia aurkeztea.

• "Abusuak edo tratu txarrak jasaten dituzten adingabeak babesteko protokolo bat prestatzea" gaiari buruz arartekoak emandako ebazpena aurkeztea.

• 2004. urterako lan-egitasmoa aurkeztea.

**I-11 KALITATEA, HELBURU GISA**

Erakundeak gero eta joera nabarmenagoa agertzen ari dira ematen dituzten zerbitzuekin lotura zuzena daukaten etengabeko hobekuntzako estrategiei heltzeko, eta konpromiso argi eta ebaluagarriak ezartzen eta komunikatzen dituzte, bai haien barnealdera –erakundeko pertsonak, beste unitate batzuk, hornitzaileak...– bai haien bezero eta kanpo-erabiltzaileekiko ere.

Kalitatearen inguruko interes orokorraren ondoriozko lehen urratsa, arartekoaren erakundean, erregelamendu berekia prestatzen hasteko ideia izan zen, alde batetik, eta, bestetik, barne erregelamendu horretan sartu ezin diren beharrizanen antolaketa.

Gainera, urrats hori helburu estrategiko gisa eman zen, nahiz eta erakundearen ohiko bizitzaren kanpotiko jarduera gisa egin zen. Badakigu ezerezetik abiatzen garela, eta are gehiago: eginkizun hori egiteko erabakia eta borondatea handiagoak direla gure beharrizanei buruzko sakoneko jakintza baino.

KALITATEARI BURUZKO GOGOETA OROKORRA

Arartekoaren erakundeak kalitateari buruzko gogoetari ekin zion, Nafarroako administrazio publikoen arteko beste bat den aldetik, Europako Ombudsmanak argitaraturiko jokabide zuzeneko kodeari jarraikiz. Hortxe sortua da geure "jokabide zuzeneko kodearen" proiektu berekia, ideia gisa helarazi zitzaiena izen bereko beste erakundeei, bai baikenekien lehen ekimen hori gauzatzeak segida geraezin bat abiarazten duela: kudeaketa-sistema baten aldeko apustua da, komunikazioaren aldetik osagai oso positiboa ere baduena, alegia, erakundearen komunikazioaren eta irudiaren kudeaketari dagokiona, multzo guztiaren osagarri gisa.

Horregatik eman zen lehen urratsa 2003ko abenduan, honakoa jakinik:

• Erakundearen kudeaketak iraun duen bi urte eta erdiko epea ez da nahikoa behar bezalako sendotasunez jarduteko, ezta gure urrats guztiak bide zuzenetik eginak izan balira ere.

• Plangintza, jarduera-ildoak hautatzea eta abar, "estilo" hutsa baino haratago doazen irizpideak dira, eta filosofia instituzional baten ikusmoldetik lortu nahi den antolamendu hobe batek dituen berezko elementuak dira.

• Hobe da prozesuak zehaztea, arartekoaren erakundeari buruzko nahitaezko ikuspegia mugatuta gelditu aurretik –dela administrazio-arloko tirabirengatik, kexengatik edo norbere borondatez aukeraturiko konpromisoengatik–.

• Hobe da giza taldeak positiboki "motibatzea" haien partaidetza duen hobekuntza baten ikuspegia emanez, haiei etorkizun ezezagun bat adieraztea baino.

• Erakundeari buruzko barne-ulermena zehaztu behar da, jarduteko ildo orokorrak aukeratu ondoren.

• Beharrezkoa gertatzen da metodo bat aplikatzea gure ekimenak eta besteren ekarpenek erakundearen hasieran iradoki zutenari.

Gogoeta horietatik ondorioztatzen da beharrezkoa dela zenbait konpromiso hartzea, eguneroko jardunak (ohiko administrazio-lanak, lan-taldeen trebetasun profesionalak edo, nahitaezko informazio-emailea den aldetik, administrazioak bere barne-antolamenduaren edo sentsibilitate zehatzaren arabera erakusten duen azkartasunak) horretara behartzen ez badu ere.

Baina kudeaketan kalitate-sistemak aplikatzea ez da soilik saiakuntza tekniko bat. Prozesu horren arrakasta, aldi berean, erakundearen beraren arrakasta izanen da, oso nabarmenki. Nahiz eta, hori bai, epe ertain eta luzeko kontua izan.

Konpromisoetan –plangintza, egokitzapena, emaitzak– oinarrituriko kudeaketa-sistema bat arartekoarena bezalako erakundeetan garatzeak baditu zenbait ezaugarri bereizgarri, halako sistema bat bestelako "entitateetan" (erakunde publiko edo pribatuak) aplikatzearekin alderatuta. Arartekoaren erakundearen eginkizunak berak, bestelako korporazio "kultura" bat ez ezik (identitatea, misioa, antolaketa), konplexutasun handiagoa ere agertzen du kalitate goreneko helburuetan oinarri-

turiko kudeaketa egitearen ikuspegitik: “administrazio” honen kalitatearen ondorio dira, batetik, ongi zerbitzaturiko herritarrak izaten duen asebetetze-sentimendua, eta bestetik, eskubideen egiazko indarraldia, zainketa eta aplikazioa. Eta horrek ezartzen dituen jomugak eta betebeharrak bestelakoak eta, agian, handiagoak izan ohi dira.

Eginkizunaren konplexutasun handiago horrek administrazioen aurrean ardurazko jokabide argi bat eskatzen du. Erakunde honen funtzionamendu ona ez da nahikoa. Bai oinarrizkoak eta bai oinarrizkoak ez diren eskubideen arloko eskakizunen gaineko erantzukizuna daukaten pertsonak “hobetu funtzionatu” behar horretaz jabearaztea beharrezkoa da. Eginkizun horretan sinesmen osoa izan behar da.

Kalitatezko kudeaketa gidatzen duen printzipioak arartekoaren eta administrazio publikoen arteko harreman berri bat sortarazi behar du, gaur egungo jarduna, delegazio/erantzun eta/edo onarpen bidezkoa, gaindituko duena. Irizpide komun berri horien abiapuntu gisa, halaber, “herritarraren interesa” zer den argituko duen definizio bat behar da. Horrela, bada, baterako gogoeta egiteko metodo bakarra ezar daiteke: teknikoek administrazioaren kalitatearen kontzeptuari buruz eztabaidatzea, herritarraren eskubideekin lotuta, betiere.

Arartekoaren erakundearen aburuz, jorratzen hasitako kalitate planaren azken helburuak horixe izan behar du, gure eginkizuna oinarritzen duen gaia berezia eta sentsibilitate berezikoa baita.

Adiskidetasunezko harremana izateko ohitura gutxietsi gabe, kalitateranzko prozesua hobea izan dadin lagundu baitezake, zehaztu beharko da zernolako kalitate-helburu lortu nahi diren, eta behar den eztabaida teknikoari ekin beharko zaio, horrela ikuspegi bateratuetara iritsi ahal izateko. Ikuspegi bateratu horietatik soilik egin ahalko zaio administrazioari jarraipen eraginkorra, herritarraren eskubideekiko begiruneari dagokionez, eta administrazio horrek jadanik ez du zertan sentitu izanen norbaitek prebentzio-helburuetarako edo bidegabeki eginiko zainketa jasaten duenik.

KALITATEAREN KUDEAKETA INTEGRALERAKO SISTEMA, “KONPROMISOEN BIDEZKO KUDEAKETA” DERITZONA.

Kudeaketa-sistema honen muina dira herritar/bezeroarekiko konpromisoa, herritarren igurikimenak elkarrekin aztertzea, plangintza estrategikoa, kanpotiko ebaluazio independentea, datu eta egitateetan oinarrituriko komunikazioaren zeregina, giza neurrira egokitzea, eta adierazleak agintekoadroen modura kudeatzea.

Gainera, prestakuntza-jarduerak, diagnostikoa egitekoak, sentsibilizaziorakoak eta abar egiten dira.

“Herritartasun eredua” delakoak, zeina arartekoaren erakundearen kalitate planean aplikatzekoa baita, erreferentzia-balio batzuk ezartzen ditu. Horrela, herritartasun ereduaren arabera, honelakoa da kalitatezko erakunde publiko bat:

1. Bere helburuetan (bai programakoetan bai instituzionaletan) sarturik duena bere langileak, bezeroak eta herritarrak gogobetetzea.

2. Erraztasunak ematen dituena bere agintari politikoek helburu horiekiko haien konpromisoa adieraz dezaten eta erakundearen arazoei eta herritarren beharrizanen bilakaerari aurre har diezaieten.

3. Sustapen-lana egiten duena bere zuzendariek etengabeko hobekuntzan esku har dezaten, ezarritako emaitzak lortu ahal izateko, eta modu eredugarrian egin dezaten kudeaketa, erabakiak egitateetan eta datuetan oinarrituz.

4. Planifikatu egiten du, lehentasunak identifikatzen ditu, ondorioak neurtzen eta ebaluatzen ditu, eta ematen dituen zerbitzuak berritzen eta berriro taxutzen ditu.

5. Osagarri modura jarduten du, lankidetzaren kultura sustatzen du eta eskumenen banaketak ezarritako mugak gainditzen ditu.

6. Langileen partaidetza sustatzen du, eta ahalegintzen direnak aintzat hartzen ditu.

7. Bere baliabide materialak interes publikoa defendatuz kudeatzen ditu.

8. Lanabes teknologikoak aplikatzen dizkie herritarren ikuspegitik hurbilen dauden funtzioei.

9. Gastu publikoaren arloko informazio eta jarraipenerako sistema on bat dauka, erabakiak datu fidagarrietan oinarrituz hartzea ahalbidetzen duena.

10. Harreman emankorrak ezartzen ditu bestelako erakundeekin.

11. Inguru eta ingurumenarekiko errespetua agerian uzten du, eta baliabide urriak aurrezteko politikak egiten ditu.

12. Langileen prestakuntzan eta jakintzen garapenean inbertitzen du.

13. Gizartearen igurikimenak aztertzen ditu eta herritarrak entzuten ditu. Halaber, partaidetzarako prozedura aktiboak ezartzen ditu.

14. Integratu egiten da eta elkarreraginean aritzen da bere inguruarekin eta bertako erakundeekin, eragileekin eta interesak dituzten taldeekin, eta haiekiko harremanak ebaluatzen ditu.

15. Giza baliabideen arloan egiten duen politikari gehitzen dizkio laneko giroaren azterketa eta bere langileen iritziak.

16. Indizeak ezartzen ditu, eta bezeroen ikuspegia aintzat hartzen du: haien kexak eta iradokizunak jasotzen ditu, zerbitzuen taxuketa aldatzeko eta helburuak betetzen dituzten unitateen lana ezagutzeko.

17. Sormena eta berrikuntza sustatzen ditu bere prozesuetan.

18. Arauak eta estandarrak zehazten ditu, metodoak eta prozedurak erabakitzen edo ezartzen ditu, eta haiek neurtu, berrikusi eta hobetzen ditu.

19. Barne-komunikazioko sistema baten bitartez erakundea sendotzen du.

20. Ematen dituen zerbitzuen ezaugarriak argitaratzen ditu eta bere helburuen betetze-mailari eta herritarren iritziari buruzko datuak eskaintzen ditu.

## NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ARARTEKOAREN ADMINISTRAZIO-JOKABIDE ZUZENEKO KODEA

2003ko ekainaren 18an, Nafarroako arartekoak ebazpen bat eman zuen, "NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ARARTEKOAREN ADMINISTRAZIO-JOKABIDE ZUZENEKO KODEA" onesten zuena. Zioak adieraztean, ebazpenak honela zioen:

Gure Foru Komunitatean eratu berri den Nafarroako arartekoak Espainian hainbat izenekin eraturik dauden herria defendatzeko beste erakunde batzuen helburu eta eginkizun antzekoak ditu. Erakunde horietako batzuek mendeetako esperientzia dute herritarren eskubide publiko eta pribatuen defentsan. Erakunde orok bezala, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ere etorkizunera begiratu eta nafarren behar eta eskubide berrietara egokitu nahi du. Alde horretatik, azpimarratu behar da administrazio zuzenerako eskubidea oinarrizko eskubidea dela, eta halaxe aintzat hartu behar dela, Europako Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Kartan aitortua dagoen gisan, Nizan 2000ko abenduan onetsia.

Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak –1999ko urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez gaurkotutakoa–, zalantzarik gabe, aurrerapen nabarmena ekarri du gai honetan.

Hala ere, administrazioaren jarrera batzuek, modu zuzenean juridikoki galdagarriak ez diren arren, eragin zuzena dute administrazioak herritarrei ematen dien zerbitzuaren kalitatearen hobekuntzan. Administrazio guztiek bat egiten dute helburu horren funtsari dagokionez, eta helburu hura gauzatu behar da herritarrek aipatu administrazioetako arduradunen ahalegin hori nabaritzeko moduan eta, aldi berean, herritar gisa, euren eskakizunak ase dituztela nabaritzeko moduan, jaso duten zerbitzuari dagokionez.

Administrazioek, herritarrekiko harremanetan, administrazioan zuzen jokatzeko kodea prestatzea ekimen erabilgarria izan daiteke, batez ere funtzionarioentzat, herritarrekiko harremanetan nola jokatu behar duten jakinarazten zaien neurrian, eta herritarrentzat ere, administrazio publikoekiko harremanetan itxarotea zilegi zaien jokabide motari buruzko informazioa ematen zaien heinean.

Horregatik, arartekoa lotu nahi zaio administrazioan zuzen jokatzeko kodeari, eta, aldi berean, Nafarroako Gobernua, udalak eta beraien mendeko erakundeak gonbidatu nahi ditu zeinek bere jokabide zuzeneko kodea idatzi eta aurrera eraman dezan.

Kode hau gardentasun eta motibazio printzipioetan oinarritzen da, administrazioa kontrolatzea errazten dutelakoan. Kodeak administrazioaren eraginkortasuna hobetu nahi du, edozein eskabideri zentzuzko epean erantzunez, kontuan harturik zerbitzu publikoak bere eginkizuna beteko badu, herritarren arazoak moldatzen lagundu behar duela. Eta ezin badu arazorik moldatu, ez da traba izan behar herritarrek berek egin ahal izan dezaten. Halaber, Kodeak administrazioa herritarrarengana hurbildu nahi du, informazioa emanez eta erabateko adeitasunez jokatuz.

Herritarrek Kode hau ezagut dezaten, eta hura zabaltzeko beste neurri batzuk bazter utzi gabe, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara emanen da.

Horrenbestez, Nafarroako arartekoa arautzen duen ekainaren 22ko 4/2000 Legeak eman dizkidan eskumenez baliaturik,

EBATZI DUT

1. "Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren jokabide zuzeneko Kodea administrazioan" onestea, Ebazpen honi eranskin gisa eransten zaiona.

2. Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Toki Erakundeei Kodearen edukia igortzea, haiek kode

hau edo antzekoak onets ditzaten iradokitzeko, aipatu administrazioek herritarrekiko jokabidea eta harrera arautzeari begira.

Iruñean, 2003ko ekainaren 18an

María Jesús Aranda Lasheras

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa

ARARTEKOAREN ERAKUNDEAN KALITATE-PLAN BAT ABIARAZTEA

2003an zehar abiarazi zen arartekoaren erakundearen kalitate plana. Erakundearen barnean banaturiko galdera-sortak abenduan bukatu ziren egiten, bai eta beharrizanen analisia ere. Horren guztiaren bitartez, 2004an zehar lantzen dihardugun lehentasun-taula prestatu zen.

**I-12. 2003ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA. 2003ko EKITALDIKO AURREKONTUEN BETETZEA AGERTZEN DUEN OROIT-IDAZKIA**

2003ko EKITALDIKO AURREKONTUEN BETETZEA AGERTZEN DUEN OROIT-IDAZKIA

Nafarroako arartekoaren 2003ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioari buruz honako hau adierazi behar dugu:

1. 2003rako luzatutako kredituek 741.715,36 euro egiten dute, eta horri gehitzen bazaizkio 118.899,78 euro egiten duten aurrekontu-aldaketak, 860.615,14 euroko aurrekontu behin betiko edo bateratua lortzen da.

Aurrekontu aldaketen argibideak honako taula honetan ematen dira:

| Aurrekontuko aldaketa mota | Zenbatekoa (eurotan) |
|---|---|
| 2002ko kreditu gerakinak gehitzea | 19.976,14 |
| Kreditu-gehikuntza, Batzarrak 2003-02-24an hartutako erabakia | 98.923,64 |
| Guztira | 118.899,78 |

Gehituriko kreditu-gerakinak bideraturik daude arartekoaren erakundeko plantilla handitzeak eragindako langileria-gastuak finantzatzera, eraikinean eta altzarietan hobekuntzak egitera, neurririk handienean, bai eta jendeari zerbitzu emateko bulegoa egokitzera eta erakundeko langileei mailegu bat ematera ere.

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2003ko otsailaren 24an harturiko erabakiaren bitartez, eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak eginiko eskaera ikusirik, ebatzi zen “Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak” izeneko kontusail batean kreditu gehikuntza egitea, 98.923,64 eurokoa, erakundearen aurrekontu beharrei aurre egiteko 2003. urtean. Lehen hiruhilekoan zehar aplikatu eta baimendu zen gehikuntza hura gastuen aurrekontuko I., VI., VIII. eta IX. kapituluetako zenbait kontusailetarako.

2. Gastuen aurrekontua (aitorturiko betebehar garbiak) 762.521,81 eurokoa da; hau da, betetzemaila % 88,6koa da. Kontuan hartu beharra dago “gastu erresultak” sartzen direla, 20.620,19 euroko zenbatekoarekin.

3. Dirusarreren aurrekontua (aitorturiko eskubide garbiak) 742.333,14 pezetakoa da, eta errealizazio-maila ehuneko 86,26koa izan da.

4. Aurrekontuaren likidazioak 98.711,51 euroko superabita erakusten du.

2003ko ekitaldian zehar eginiko gastuak honako aurrekontu-egiturari jarraikiz sailkatzen dira, eurotan:

| Eragiketa-mota | Behin betiko kredituak | Aitorturiko betebeharrak | Aitorturiko betebeharrak, guztizko ehunekoa |
|---|---|---|---|
| Eragiketa arruntak | 739.434,22 | 671.808,10 | % 90,85 |
| Kapital-eragiketak | 121.180,92 | 90.713,71 | % 74,86 |
| GUZTIRA | 860.615,14 | 762.521,81 | % 88,60 |

2003ko ekitaldian, eragiketa arrunten aurrekontu-betetzearen maila (gastuen egoera-orriko I-V kapituluak) ehuneko 90,85ekoa izan da, eta kapital-eragiketen betetzeak ehuneko 74,86 egin du.

Jarraian, aurrekontu-betetzearen egoera aztertuko dugu, kapitulu ekonomikoka:

A) GASTUEN EGOERA-ORRIA:

I. KAPITULUA. LANGILERIA GASTUAK.

Aurrekontu bateratuak 452.286,00 egiten du; hots, gastuen egoera-orriaren ehuneko 52,55. Aitorturiko betebeharrek 439.663,54 euro egiten dute. Aurrekontu-betetzearen mailak aurrekontu bateratuaren % 97,21 egiten du.

II. KAPITULUA ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK.

Gastu hauetara aurrekontuan bideraturiko dirukopurua 261.948,00 eurokoa da; hots, aurrekontuaren ehuneko 30,44.

Betetzea ehuneko 80,97koa izan da.

Kapitulu honen barnean erakundearen funtzionamendurako beharrezkoak diren zenbait gastu sartzen dira, hala nola bulegoko materiala, komu-

nikazioak, beste enpresa batzuek eginiko lanak, askotariko gastuak eta abar.

IV.KAPITULUA TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.

Behin betiko kredituek 25.200,22 egiten dute; hots, gastuen aurrekontuaren ehuneko 2,93. Errealizazio-maila % 79,54koa da, gehienbat praktiketan dihardutenikasleei dagozkien kopuruengatik, Nafarroako Unibertsitateko Praktika Juridikoko Eskolarekin eta NUParen Universidad-Sociedad Fundazioarekin sinaturiko lankidetza-hitzarmenari jarraituz.

VI. KAPITULUA. INBERTSIO ERREALAK.

Aurrekontu bateratua 112.173,92koa da, eta kapitulu honek gastuen aurrekontuaren % 13,03 hartzen du.

Betetzea ehuneko 77,39koa izan da.

Kapitulu honetako kreditu gehienak erabili dira arartekoaren erakundearen bulegoak egokitzeko, zenbait altzari, ordenagailuak eta inprimagailuak erosteko eta arartekoaren ibilgailu ofizialerako segurtasun-sistema bat erosteko.

B) DIRUSARRERAK.

Arartekoaren dirusarrerak heltzen dira, nagusiki (aurrekontuaren likidazioaren tauletan ikus daitekeen bezalaxe), Foru Ogasunetik jasotako transferentzietatik: ekitaldian izandako dirusarrera guztien % 99,58 osatzen dute.

Egiaztatu dugu arartekoaren aurrekontuaren betetzearen egoera-orriak eta 2003ko ekitaldian zehar kontabilizaturiko aurrekontuz kanpoko eragiketek islatzen dutela eginiko jarduera guztia.

GASTUEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2003ko ekitaldia

1. kapitulua

| LANGILEEN GASTUAK | Hasierakoak | Behin betikoak | Betebehar garbiak |
|---|---|---|---|
| Arartekoaren ordainsaria | 57.993,00 | 54.493,00 | 54.165,94 |
| Behin-behineko langileen ordainsariak | 180.591,00 | 201.091,00 | 200.541,93 |
| Funtzionarioen ordainsariak | 46.880,00 | 80.880,00 | 80.402,52 |
| Langile kontratatuen ordainsariak | 51.939,00 | 35.939,00 | 35.512,24 |
| Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantza | 77.569,57 | 79.592,00 | 69.040,91 |
| 1. kapituluko funtsa | 3.291,00 | 291,00 | 0,00 |
| 1. kapitulua, guztira | 418.263,57 | 452.286,00 | 439.663,54 |

2. kapitulua

| ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK | Hasierakoak | Behin betikoak | Betebehar garbiak |
|---|---|---|---|
| Bestelako errentamenduak | 470,00 | 470,00 | 452,84 |
| Eraikinak eta bestelako eraikuntzak konpondu, mantendu eta kontserbatzea | 10.818,00 | 13.818,00 | 8.848,35 |
| Makineria eta instalazioak konpondu, mantendu eta kontserbatzea | 3.005,00 | 3.005,00 | 2.431,09 |
| Informazioa lantzeko ekipoak konpondu eta kontserbatzea | 1.606,00 | 1.606,00 | 3.021,27 |
| Bestelako ibilgetua konpondu eta kontserbatzea | 3.005,00 | 3.005,00 | 1.143,23 |
| Bulegoko materiala, inbentariaezina | 25.748,00 | 26.748,00 | 25.534,30 |
| Prentsa, aldizkariak eta bestelako argitalpenak | 2.500,00 | 2.500,00 | 3.297,98 |
| Telefono bidezko komunikazioak | 16.532,00 | 16.532,00 | 12.104,36 |
| Posta eta telegrafo bidezko komunikazioak | 3.000,00 | 4.500,00 | 7.563,11 |
| Aseguru primak | 6.303,00 | 6.303,00 | 3.890,54 |
| Arartekoa | 9.500,00 | 5.200,00 | 1.795,38 |
| Ordezkatze-lanetako eta protokoloko eginkizunak | 6.300,00 | 6.300,00 | 5.905,82 |
| Arartekoaren bidaia ofizialak | 4.500,00 | 8.800,00 | 5.628,14 |
| Jarduera orokorrak eta zabalkundekoak | 39.917,00 | 39.917,00 | 37.189,74 |
| Bilerak eta hitzaldiak antolatzea | 11.466,00 | 16.466,00 | 10.332,28 |
| Liburuak eta bestelako argitalpenak editatzeko gastuak | 39.017,00 | 39.017,00 | 16.840,78 |
| Informazio agentziak | 34.195,00 | 9.095,00 | 832,41 |
| Garbiketa-zerbitzuak | 1.030,00 | 13.030,00 | 12.504,40 |
| Eginiko beste lan batzuk | 17.000,00 | 27.000,00 | 41.993,51 |
| Hornidurak | 2.015,00 | 2.015,00 | 1.446,00 |
| Ordezko materialak | 500,00 | 500,00 | 0,00 |
| Garbiketarako materiala | 500,00 | 1.100,00 | 1.252,45 |
| Jantziak | 500,00 | 500,00 | 0,00 |
| Bestelako gastu arruntak | 500,00 | 3.000,00 | 2.126,37 |
| Zerbitzuko langileen dietak eta bidai gastuak | 17.821,00 | 10.321,00 | 5.966,23 |
| Lanpostuen betetzeari dagozkion dietak eta gastuak | 1.200,00 | 1.200,00 | 0,00 |
| 2. kapitulua, guztira | 258.948,00 | 261.948,00 | 212.100,58 |

4. kapitulua

| TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | Hasierakoak | Behin betikoak | Betebehar garbiak |
|---|---|---|---|
| Partikularrentzako kalte-ordainak eta gastuak | 3.761,00 | 3.761,00 | 0,00 |
| Hitzarmenak beste erakunde batzuekin | 20.787,00 | 20.589,22 | 19.668,98 |
| Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako transferentziak | 850,00 | 850,00 | 375,00 |
| 4. kapitulua, guztira | 25.398,00 | 25.200,22 | 20.043,98 |

6. kapitulua

| INBERTSIO ERREALAK | Hasierakoak | Behin betikoak | Betebehar garbiak |
|---|---|---|---|
| Eraikinak | 1.010,00 | 15.944,21 | 30.155,37 |
| Makineria eta instalazioak | 2.631,00 | 39.631,00 | 21.309,20 |
| Bulegoko altzariak | 7.010,00 | 15.010,00 | 9.338,33 |
| Informazioa lantzeko ekipoak | 19.414,79 | 32.588,71 | 23.012,23 |
| Liburuak eta bestelako argitalpenak erostea | 9.000,00 | 9.000,00 | 2.992,00 |
| 6. kapitulua, guztira | 39.065,79 | 112.173,92 | 86.807,13 |

8. kapitulua

| AKTIBO FINANTZARIOAK | Hasierakoak | Behin betikoak | Betebehar garbiak |
|---|---|---|---|
| Etxebizitza-maileguak | 10,00 | 3.907,00 | 3.906,58 |
| Soldata-aurrerakinak | 10,00 | 5.000,00 | 0,00 |
| 8. kapitulua, guztira | 20,00 | 8.907,00 | 3.906,58 |

9. kapitulua

| PASIBO FINANTZARIOAK | Hasierakoak | Behin betikoak | Betebehar garbiak |
|---|---|---|---|
| Fidantzak eta gordailuak itzultzea | 10,00 | 100,00 | 0,00 |
| Ezustekoak | 10,00 | 0,00 | 0,00 |
| 9. kapitulua, guztira | 20,00 | 100,00 | 0,00 |

DIRUSARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2003ko ekitaldia

| Kapitulua | Azalpena | HASIERAKO AURREIKUSPENAK | BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK | AITORTURIKO ESKUBIDE GARBIAK |
|---|---|---|---|---|
| 3 | TASAK ETA BESTELAKO DIRUSARRERAK | 1.803,04 | 1.803,04 | 1.701,79 |
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 700.205,52 | 700.205,52 | 700.205,52 |
| 5 | ONDARE DIRUSARRERAK | 601,01 | 601,01 | 61,19 |
| 7 | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | 39.065,79 | 39.065,79 | 39.065,79 |
| 8 | AKTIBO FINANTZARIOAK | 30,00 | 118.929,78 | 446,48 |
| 9 | PASIBO FINANTZARIOAK | 10,00 | 10,00 | 852,37 |
| | GUZTIRA | 741.715,36 | 860.615,14 | 742.333,14 |

## I- 13. NAFARROAKO COMPTOS GANBERAREN TXOSTENA

Arartekoaren kontu orokorra (2003ko ekitaldia)

2004ko apirila

Aurkibidea

I. Helburua eta norainokoa

II. Iritzia

II. 1. 2003ko gastuen aurrekontuaren betetzeari dagokionez

II. 2. Ondare egoerari dagokionez

II. 3. Legezkotasuna

III. Finantzen egoera orriak 2003-12-31n

III. 1. Arartekoaren 2003ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

III. 2. Egoeraren balantzea 2003ko abenduaren 31n

III. 3. Emaitzen kontua

### I. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2004rako jarduketa-programaren barruan sartu da arartekoaren fiskalizazio txostena egitea, 2003ko ekitaldiari buruzkoa.

Lan hau egitean helburu hauek bilatzen dira:

• 1. helburua. Arartekoaren gastuen eta dirusarreren aurrekontuaren betetzeak 2003ko ekitaldian egindako eragiketak behar bezala agertzen dituela egiaztatzea.

• 2. helburua. 2003ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena.

• 3. helburua. Fiskalizazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezkotasun printzipioa bete ote den egiaztatzea.

Metodologiari dagokionez, lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, Comptos Ganbera honek erabili ohi dituen auditoria prozedurak eta programak erabili ditugu, bere Auditoria Gidan jasota dituenak eta Espainiako estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoriarako onetsiriko arau eta printzipioei jarraituz garatuta daudenak.

Zelaiko lana 2004ko martxoan egin zuen auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu arartekoaren bulegoko langileen laguntza, lan hau egitea erraztu duelako.

### II. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, arartekoaren 2003ko ekitaldiko gastuen likidazioaren egoera-orria aztertu dugu. Haren ardurapean egina da, eta txosten honetako III. atalean jaso dugu.

Gure azterketan, Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoriarako onetsiriko arau eta prozedurak aplikatu ditugu.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

#### II.1. 2003ko GASTUEN AURREKONTUAREN BETETZEARI DAGOKIONEZ

2003rako gastuen aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak egokiro islatzen du ekitaldi horretan egindako jarduera.

#### II.2. ONDARE EGOERARI DAGOKIONEZ

Egoera-balantzeak nahiko ongi agertzen du finantza eta ondare egoera 2003ko abenduaren 31n.

#### II.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, arartekoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2004ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**III. FINANTZEN EGOERA ORRIAK 2003-12-31n**

III. 1. ARARTEKOAREN 2003ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera (eurotan)

| Azalpena | Hasierako aurrekontua | Aldaketak | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Ordain- dutakoa | Ordaintzeke | Gerakina | Hurrengo ekit. gehitua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Langileria gastuak | 418.263,57 | 34.022,00 | 452.286,00 | 439.663,54 | 439.663,54 | 0,00 | 12.622,46 | |
| Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea | 258.948,00 | 3.000,00 | 261.948,00 | 212.100,58 | 194.560,06 | 17.540,52 | 49.847,42 | 25.917,96 |
| Transferentzia arruntak | 25.398,00 | -197,78 | 25.200,22 | 20.043,98 | 20.043,98 | 0,00 | 5.156,24 | |
| Inbertsioak | 39.065,79 | 73.108,13 | 112.173,92 | 86.807,13 | 83.727,46 | 3.079,67 | 25.366,79 | 22.095,02 |
| Aktibo finantzarioak | 20,00 | 8.887,00 | 8.907,00 | 3.906,58 | 3.906,58 | 0,00 | 5.000,42 | |
| Pasibo finantzarioak | 20,00 | 80,00 | 100,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 100,00 | |
| Gastuak, guztira | 741.715,36 | 118.899,35 | 860.615,14 | 762.521,81 | 741.901,62 | 20.620,19 | 98.093,33 | 48.012,98 |

## III. FINANTZEN EGOERA ORRIAK 2003-12-31n

### III. 1. ARARTEKOAREN 2003ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Dirusarreren kapitulu ekonomikoen arabera

| Azalpena | Hasierako aurrek. | Aldaketak | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko eskubideak | Kobratutakoa | Kobratzeke dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Tasak eta bestelako dirusarrerak | 1.803,04 | 0,00 | 1.803,04 | 1.701,79 | 1.701,79 | 0,00 |
| Transferentzia arruntak | 700.205,52 | 0,00 | 700.205,52 | 700.205,52 | 700.205,52 | 0,00 |
| Ondare bidezko dirusarrerak | 601,01 | 0,00 | 601,01 | 61,19 | 61,19 | 0,00 |
| Kapital-transferentziak | 39.065,79 | 0,00 | 39.065,79 | 39.065,79 | 39.065,79 | 0,00 |
| Aktibo finantzarioak | 30 | 118.899,78 | 118.929,78 | 446,48 | 446,48 | 0,00 |
| Pasibo finantzarioak | 10 | 0,00 | 10,00 | 852,37 | 852,37 | 0,00 |
| Dirusarrerak, guztira | 741.715,36 | 118.899,78 | 860.615,14 | 742.333,14 | 742.333,14 | 0,00 |

Oharra: Finantza-aktiboei buruzko 8. kapituluan eginiko 118.899,78 euroko aldaketak honako honen ondorio dira: aurreko ekitaldiko kreditu-gerakinak gehitzea (19.976,14 euro) eta beste kreditu-gehikuntza batzuk (98.923,64 euro), Nafarroako Ogasunaren Diruzaintzari itzuli beharreko gerakinarekin finantzatuak.

## III.2. EGOERAREN BALANTZEA 2003KO ABENDUAREN 31N

| | AKTIBOA | | (eurotan) | |
|---|---|---|---|---|
| | Kontzeptua | 2003 | 2002 | Aldak. 03/02 |
| IBILGETUA | | 179.003,25 | 101.367,41 | 77.635,84 |
| Ibilgetu materiala | | 167.123,57 | 80.316,44 | 86.807,13 |
| 202 | Eraikinak eta bestelako eraikuntzak | 30.155,37 | 0,00 | 30.155,37 |
| 203 | Makineria, instalazioak eta tresneria | 38.487,17 | 17.177,97 | 21.309,20 |
| 205 | Altzariak eta tresnak | 34.569,01 | 25.036,68 | 9.532,33 |
| 206 | Informazioa lantzeko ekipoak | 57.569,54 | 34.557,31 | 23.012,23 |
| 208 | Bestelako ibilgetu materiala | 6.536,48 | 3.544,48 | 2.992,00 |
| Ibilgetu inmateriala | | 8.419,58 | 21.050,97 | -12.631,39 |
| 215 | Aplikazio informatikoak | 8.419,58 | 21.050,97 | -12.631,39 |
| Ibilgetu finantzarioa | | 3.460,10 | 0,00 | 3.460,10 |
| 254 | Epe luzeko maileguak | 3.460,10 | 0,00 | 3.460,10 |
| KONTU FINANTZARIOAK | | 152.040,52 | 221.753,28 | -69.712,76 |
| 570 | Kutxa | 169,87 | 38,42 | 131,45 |
| 571 | Bankuak eta kreditu-erakundeak | 151.870,65 | 221.714,86 | -69.844,21 |
| AKTIBOA, GUZTIRA | | 331.043,77 | 323.120,69 | 7.923,08 |

| | PASIBOA | | (eurotan) | |
|---|---|---|---|---|
| | Kontzeptua | 2003 | 2002 | Aldak. 03/02 |
| ONDAREA ETA ERRESERBAK | | 226.163,86 | 121.343,55 | 104.820,31 |
| 100 | Ondarea | 178.150,88 | 101.367,41 | 76.783,47 |
| 1291 | Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak | 48.012,98 | 19.976,14 | 28.036,84 |
| EPE LABURREKO ZORRAK | | 104.879,91 | 201.777,14 | -96.897,23 |
| Aitorturiko betebeharren hartzekodunak, indarreko ekitaldia | | 20.620,19 | 45.671,21 | -25.051,02 |
| Zorrak entitate publikoekin | | 83.407,35 | 156.105,93 | -72.698,58 |
| 4750 | Foru Ogasun publikoa, PFEZgatik hartzekoduna | 24.554,14 | 0,00 | 24.554,14 |
| 4759 | Foru Ogasun publikoa, kreditu itzulketagatik hartzekoduna | 50.698,53 | 150.929,61 | -100.231,08 |
| 477 | Gizarte Segurantza hartzekoduna | 8.154,68 | 5.176,32 | 2.978,36 |
| Jasotako fidantzak eta gordailuak | | 852,37 | 0,00 | 852,37 |
| 520 | Jasotako epe laburreko fidantzak | 852,37 | 0,00 | 852,37 |
| PASIBOA, GUZTIRA | | 331.043,77 | 323.120,69 | 7.923,08 |

Oharra: 475 kontuaren (Ogasun publikoa, kontzeptu fiskalengatik hartzekoduna) zenbatekoa xehekaturik eman da, informazio hobea ematearren.

III.3. EMAITZA-KONTUA.

2003ko ekitaldiko emaitza arrunten kontua

2003KO EMAITZA

| euroak | Gastuak | DIRUSARRERAK | euroak |
|---|---|---|---|
| 449.520,31 | Langileria gastuak | Interesak | 61,19 |
| 202.243,81 | Kanpoko lanak, hornidurak eta zerbitzuak | Kapital-transferentziak | 39.065,79 |
| 20.043,98 | Transferentzia arruntak | Transferentzia arruntak | 700.205,52 |
| | | Bestelako ohiz kanpoko dirusarrerak | 0,40 |
| 69.226,59 | Ekitaldiko emaitza arruntak (etekin arrunta) | Bestelako dirusarrerak | 1.701,79 |
| 741.034,69 | Guztira | Guztira | 741.034,69 |

2003KO EKITALDIKO EMAITZA EKONOMIKO ETA ONDAREKOAREN AKTIBAZIOA

| Kontzeptua | Zenbatekoa (eurotan) |
|---|---|
| Emaitza ekonomiko eta ondarekoa | 98.711,51 |
| Ondarea | 29.484,92 |
| 2003ko inbertsio garbi aktibatuak (26.877,19) | |
| Aktibo eta pasibo finantzarioen aldaketa garbia (2.607,73) | |
| Emaitza ekonomiko eta ondareko doitua | 69.226,59 |

2003KO EKITALDIKO EMAITZAREN BANAKETA

| Kontua | Kontzeptua | Zenbatekoa (eurotan) |
|---|---|---|
| | JATORRIA | |
| 1290 | Emaitza ekonomiko eta ondareko doitua | 98.711,51 |
| | APLIKAZIOAK | |
| 4760 | Foru ogasun publikoa, kreditu itzulketako hartzekoduna | 50.698,53 |
| 1291 | Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak | 48.012,98 |

**I- 14. AURREKONTUKO INFORMAZIOA**

ALDERATURIKO AURREKONTUA, 2001 - 2003

| | BEHIN BETIKO KREDITUAK | | |
|---|---|---|---|
| KONTUSAILA | 2001 | 2002 | 2003 |
| Kapitulua: 1<br>LANGILEEN GASTUAK | 215.498,90 | 415.686,90 | 452.286,00 |
| Kapitulua: 2<br>ONDASUN ARRUNTETAKO ETA<br>ZERBITZUETAKO GASTUAK | 123.207,48 | 258.948,52 | 261.948,00 |
| Kapitulua: 4<br>TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 12.020,24 | 25.398,24 | 25.200,22 |
| Kapitulua: 6<br>INBERTSIO ERREALAK | 84.141,69 | 62.076,11 | 112.173,92 |
| Kapitulua: 8<br>AKTIBO FINANTZARIOAK | 0,00 | 0,00 | 8.907,00 |
| Kapitulua: 9<br>PASIBO FINANTZARIOAK | 0,00 | 0,00 | 100,00 |
| GUZTIRA | 434.868,31 | 762.109,77 | 860.615,14 |

**I- 15 .ETORKIZUN HURBILAREN PLANGINTZA EGITEA: 2004**

LANERAKO PLANA

“2004. urteari buruzkoa, Nafarroako arartekoaren erakundearen estrategiako ardatz gisa. Komeni da ildo estrategiko berriei heltzea, horrela indartu ahal izateko erakundearen barne- eta kanpo-langintza, misioa eta hurrengo urteetarako dituen ekintza-planak.”

Hauxe da, arartekoaren erakundearen hiru urteko plana 2001ean aurkeztu eta gero, etorkizunari buruz hitz egiteko asmoz egiten den lehen agerraldia (...). Eta, azkenik, erakundearen lanerako planari buruzko aurrerapena oraintsu berrituriko Parlamentu batean egiten delako.

Karguaren jabetza hartu nuenetik (...) erakunde honen oinarrizko helburuetako bat izan da Parlamentuarekiko harreman hau estutzea. Jarrera berekoia, nola ukatuko dugu bada; izan ere, harremanaren bizitasun horren baitan dago parlamentariek informazio gehiago eskuratzea herritarrek helarazten dituzten gaiei buruz. Bestalde, zenbat eta estuago izan, orduan eta hobea izanen den harreman horretatik konfiantza sortu behar delako, informazioan oinarritua, Parlamentua eta Foru Komunitateko arartekoa diren bi erakunde hauen artean.

Foru Komunitateko Herritarren Eskubideen Gutuna prestatzeko xedez arartekoaren erakundeak askotariko elkarteekin azken asteotan izan dituen bilerak baliatuz, azpimarratzen aritu naiz garrantzitsua dela ulertzea ezen administrazioak kudeatzen dituen zerbitzu horiek guztiak, herritarrek jasotzen dituzten prestazio horiek guztiak (...) jatorrizko eskubide haien gauzatze praktikoa direla; hain zuzen ere, administrazioaren kudeaketaz, zerbitzuen kudeaketan administrazio publikoek lortzen duten eraginkortasunaz eta, askoz ere garrantzitsuago, administrazio publikoen jardueraren bidezkotasunaz hitz egiten dugunean batzuetan ahaztu egiten ditugun eskubide haiena. Soilik ideia hori aintzat hartuz gero –alegia, zerbitzuak aurretiazko eskubideen ondorioa direla, eta eskubideak ez direla zerbitzuetatik jaiotzen–ulertu ahal izanen digute hobeto honakoa esaten dugunean politikaren esparrutik edo eskubide horien defentsatik: beharrezkoa dela, eskubide-urraketa jakin batzuk gertatzen direnean, administrazio publikoek beren erantzukizunekoak diren eginbeharrak egitea; baita haiek, administrazioen begietara, kudeaturiko zerbitzuak soilik, are ongi kudeaturiko zerbitzuak, izatearen itxura daukatenean ere.

Eskubideak hedatzea ez da soilik zerbitzuak hedatzea. Hezkuntzarako eskubidea zaintzea ezin da izan, administrazio publikoentzat, behinola politikoki onetsiriko hezkuntza-ereduaren kudeaketaren gainean arartekoaren erakundeak eginiko begiraletza-lan hutsa. Eskubideak hedatzeak esan nahi du, halaber, beharrizanei aurrea hartzea, aurreikuspenak gizarte-eskakizun premiazkoenei egokitzea.

Kasuko zerbitzuak kudeatzeko onetsitako –edo onetsi gabeko– aurrekontuaren kudeaketara ohituak, administrazio publikoek halako urruntasun batean dihardute lanean errealitate txikiekiko eta errealitate kolektiboekiko.

Eskubideen eta zerbitzuen arteko dikotomia horretan, garrantzitsuena da erne egotea, herritarrei zer gertatu edo gertatuko zaien. Ziur aski, gure erakundeak aztertu behar dituen administrazioen kudeaketan modu arduratsuan eraginkortasunik handiena lortzeko modu bat izanen da hori.

Comptos Ganberako lehendakariak, berriki, egoitza honetan eskatu zuen kudeaketa ekonomikoa aldez aurretik konprometitua izatea, gerora ikuskaturiko aurretiazko kudeaketa-konpromisoak har zitezela. Arartekoa naizen aldetik, erantsi nahiko nuke Nafarroan kokaturik dauden administrazio publikoek gauza izan beharko luketela eskubideen eta askatasunen kudeaketari buruzko ikuskapen independenteak gainditzeko, antzeko konpromisoetatik abiatuta. Eta proposamen hau egiten dut hauteskunde-garaia, Foru Komunitatean behintzat, iragan dela aprobetxatuz.

Gure erakundean, 2003. urtea amaituko da oreka kualitatibo handiagoa lortuta bi hauen artean: herritarrek administrazioei buruz aurkezten dituzten kexak eta herritarrek beren eskubideak, eta ez soilik zerbitzuak, hobetzeko aurkezten dituzten eskaerak. Eta urtea amaitzen denean, eskaera horiei buruzko jakintza berariazkoa handiagoa izanen da. Informazio horrekin, arartekoaren erakundeak Parlamentu honen eta Nafarroako administrazioen informazioa handitzera bideraturiko ekintzak aurkeztu ahalko ditu eta, horrela, doitasunak kexei aurrea hartu ahalko die, eta kudeaketak, bestalde, kexen gai den errealitateari.

Aurrea hartu nahi izate horren agerpen dira Herritarren Eskubideen Gutuna, Nafarroako zaharrentzako laguntzari buruzko txosten berezia eta adingabeen tratu txarren eta sexu-abusuen arloko protokoloaren jarraipena. Horrekin batera, iristen diren kexak eta kontsultak kudeatzen dira. Horrela, arartekoaren erakundea kudeatzea konplexuagoa izanen da agian, baina gehiago hurbilduko zaio proaktibotasunari buruz nik neukan hasierako ideiari.

Aldi berean, 2003. urtearen bukaerara arte kudeaketa aldatzeari ekinen diogu. Kudeaketa berria 2004. urtearen hasieran abiaraziko dugu. Kudeaketa-eredu berriak ahalbidetuko digu kexek ematen diguten informazioa hobeto aprobetxatzea, kexak hobeto aztertzea eta modu eraginkorragoan kontrolatzea nola aplikatzen dituzten gure Komunitatean dauden administrazioek arartekoaren erakundeak emandako eta haiek onarturiko ebazpenak.

Antolaketan eginiko aldaketa orok bilatzen duena baldin bada antolaketaren eraginkortasun eta efizientzia handiagoa, eta informazioak laguntzen baldin badu gure eskubide eta askatasunak gozatzeko aukeren berdintasuna areagotzen, aldaketa horiei gure babesa emanen diegu, eta hilabete honen bukaeran administrazio-jokabide zuzeneko kode bat proposatuko dugu; kode hori zorroztasunez aplikatuko diogu gure buruari, eta Nafarroako Unibertsitatearekin hitzarturiko argitalpen-planetik sorturiko herritarren eskubideen eskuliburuaren lehen aleak banatuko ditugu.

2004ko lanerako planaren laburpenari begirada bat eman aurretik, iruzkin bat besterik ez dugu egin nahi, dagokion testuinguruan kokatzeko hura.

2004. urtea Nafarroako arartekoaren erakundearen estrategian ardatza izateaz, eta datozen urteetan barne-izaerako ildo estrategiko berriak, erakundearen kanpo-lana eta misioa indartzera bideraturikoak, eta horiei dagozkien ekintza-planak ezartzearen komenigarritasunaz

| 2002-2004 urteetako plan estrategikoa bizirik dago | • Erakundearen misioaren, ekipamenduen eta langileen inguruan planak zehaztutakoa betetzen ari da<br>• Jarduketaren ildo nagusiak definitu ziren bezalaxe daude eta normaltasunez gauzatzen dira, nahiz eta aurreikusitakoa baino neurri apalagoan, langileen arloan dagoen baliabide falta agerikoaren ondorioz<br>• 2004, urteak, plan honen amaiera urtea denez, barneko eraginkortasun eta antolaketa irizpideen aldeko apustua eta horiek abiaraztea ekarri behar du, iragarritako jarduerekin edo berri batzuekin batera |
|---|---|

ESTRATEGIA
KALITATEA

PROZESUA KALITATERANTZ

- Barneko nahiz jendaurreko konpromisoa
- Dagokion exijentzia herritarren eskubideen defentsan
- Metodoa eta tresna, biak bat
- Erantzukizun banatua barneko taldeen artean
- Etengabeko exijentzia
- Antolaketarako metodo berria
- Antolaketa berria
- Banakakoen eta taldeen erantzukizun berriak

ESKATZEN DU

- Lidergoa
- Erabakimena
- Irmotasuna
- Parte-hartzea
- Konfiantza
- Gaitasun kritikoa
- Taldea

MISIOAREN LIDERGOA EXIJITZEN DU

- Aurreratzea
- Gaiak edo erabakiak hautatzeko tinkotasuna
- Borondate eta gaitasun analitikoa
- Norberaren irizpide ezaguna
- Eztabaidarako proposamena
- Talde hurbila
- Eztabaida
- Irizpideak bateratzea.
- Gehiengoa onartzea
- Gehiengoa ordezkatzea

MISIOA

Herritarren eskubideen/herritarren eskubide zibilen indarra sendotzea botere publikoen interesek eta herritarren exijentziek tentsioa ezartzen duten gizartean; administrazioaren gaitasuna eta eraginkortasuna, eta premia berriak agertzea eskubide gisa edo dagoeneko badiren baina behar adina garatu gabe dauden beste batzuk eskatzea

HELBURUAK

Arartekoaren Erakundearen gaitasun guztiak abian jartzea

Barneko egituren egokitzapena

Gizartearen sektoreekiko elkarlana sendotzea

Talde politikoekiko harremana sendotzea

Erakundearen autonomia funtzionala eta administratiboa sendotzea

Eremu berriak bereganatzea Parlamentuarekiko harremanean.

Erakundea, Nafarroako herritarren eskubideen aldeko erreferente

MISIOAREN LIDERGOA EXIJITZEN DU

- Aurreratzea
- Gaiak edo erabakiak hautatzeko tinkotasuna
- Borondate eta gaitasun analitikoa
- Norberaren irizpide ezaguna
- Eztabaidarako proposamena
- Talde hurbila
- Eztabaida
- Irizpideak bateratzea.
- Gehiengoa onartzea
- Gehiengoa ordezkatzea

<u>Erakundearen beraren eremua diseinatzea,</u> administrazioaren edo herritarren ekimenez erakundeari sortzen zaion jardueraz bestelakoa

Eztabaida publikorako guneak sortzea, <u>gizartearen inplikazio argiarekin</u>

<u>Laguntzaile sare egonkor bat sortzea,</u> erakundearen kontzeptu orokorrarekin bat etorriz ekintza parlamentariorako edo administrazio publikoen esku-hartzerako proposamen sorburu izan daitezen

Jarrera proaktiboa eskubideak arriskuan dauden edo argiro urratzen diren egoeren aurrean

Erakundearen protagonismo publikoa

| | | |
|---|---|---|
| MISIOAREN LIDERGOA EXIJITZEN DU<br>• Aurreratzea<br>• Gaiak edo erabakiak hautatzeko tinkotasuna<br>• Borondate eta gaitasun analitikoa<br>• Norberaren irizpide ezaguna<br>• Eztabaidarako proposamena<br>• Talde hurbila<br>• Eztabaida<br>• Irizpideak bateratzea.<br>• Gehiengoa onartzea<br>• Gehiengoa ordezkatzea | | Kudeaketa eta azterketarako proaktibitatea, kanpoko beste iturri batzuek emandako datuetan oinarriturik |

| | | |
|---|---|---|
| ZERTAN IZAN LIDER<br>• Aurreratzea<br>• Gaiak edo erabakiak hautatzeko tinkotasuna<br>• Borondate eta gaitasun analitikoa<br>• Norberaren irizpide ezaguna<br>• Eztabaidarako proposamena<br>• Talde hurbila<br>• Eztabaida<br>• Irizpideak bateratzea.<br>• Gehiengoa onartzea<br>• Gehiengoa ordezkatzea | ANTOLAKETA<br><br>Barne antolaketa moldatzea erakundearen misioak sortutako egiazko eskakizunetara, zalantzarik gabeko eta batera onartutako erantzukizunen egokitzapena, barneko elkar ulertzea eta jardutea errazteko | Herritarrek kexa egile gisa duten garrantzia eta erakunde osorako kexek duten garrantzia aintzat harturik<br><br>1. ZUZENEKO LAGUNTZARAKO BULEGOA SENDOTU ETA EGITURATZEA KUDEAKETARAKO ORGANO BEREIZI IZATEKO<br><br>2. KEXAK ADJUDIKATU ETA HAUTATZEKO ERANTZUKIZUNARI BURUZKO IRIZPIDE BERRIAK EZARTZEA, BAI ETA ERABAKIAK HARTZEAREN AMAIERAKO EMAITZARI BURUZKOAK ERE<br><br>3. KEXEN JARRAIPEN OSOA EGITEKO PROZESUA AZTERTU ETA BERRANTOLATZEA |

| | | |
|---|---|---|
| ZERTAN IZAN LIDER<br>• Aurreratzea<br>• Gaiak edo erabakiak hautatzeko tinkotasuna<br>• Borondate eta gaitasun analitikoa<br>• Norberaren irizpide ezaguna<br>• Eztabaidarako proposamena<br>• Talde hurbila<br>• Eztabaida<br>• Irizpideak bateratzea.<br>• Gehiengoa onartzea<br>• Gehiengoa ordezkatzea | | Erakundeak gaitasun handiagoa bereganatu ondoren aholkulari teknikoen arloan<br><br>4. BANAKETA, AZTERKETA ETA ERANTZUKIZUN HORIEK EKARRIKO DUTE BEREKIN IRIZPIDE BERRIAK EZARTZEA AHOLKULARIEK KEXEN ARLOAN EGIN BEHARREKO LANARI DAGOKIONEZ DUTEN ZEREGINARI BURUZ<br><br>5. KEXEN AZTERKETA BI ALDERDITATIK, GAIAREN ETA UKITUTAKO PERTSONEN ARABERA: AZTERKETA BERTIKALA (SEKTOREKA) ETA ZEHARKAKOA, KEXA EGILEA DEN TALDEAREN EDO NORTASUNAREN ARABERA |

| | | |
|---|---|---|
| ZERTAN IZAN LIDER<br>• Aurreratzea<br>• Gaiak edo erabakiak hautatzeko tinkotasuna<br>• Borondate eta gaitasun analitikoa<br>• Norberaren irizpide ezaguna<br>• Eztabaidarako proposamena<br>• Talde hurbila<br>• Eztabaida<br>• Irizpideak bateratzea.<br>• Gehiengoa onartzea<br>• Gehiengoa ordezkatzea | TALDEAK<br><br>Erakundean, erantzukizuna askoz handiagoa da ordezkaritza baino. Horren sendotasuna etorriko da taldeen aurrean duen barne lidergotik | Erakundearen egokitzapen funtzional eta organikoak, bere hirugarren/laugarren urtean, antolaketa ereduaren, eta beraz arartekoaren erakundearen behin betiko oinarriak ezarri behar ditu.<br><br>Erakundeak baliabideen eta taldeen arloan izan beharreko bilakaerak eskatzen du erantzukizun berriak onartzea eta beste batzuk antolatzea, bete nahi den zeregin aurreikusiak zehaztuko duen neurrian.<br><br>Etapa berri honetan ezinbestekoa da behar den antolaketa ezartzea, egungo errealitatean dauden erantzukizun, sostengu eta laguntza osagarrien –nahitaez berrikusi beharrekoak– korapiloa askatuz |

| | | |
|---|---|---|
| ZERTAN IZAN LIDER<br>• Aurreratzea<br>• Gaiak edo erabakiak hautatzeko tinkotasuna<br>• Borondate eta gaitasun analitikoa<br>• Norberaren irizpide ezaguna<br>• Eztabaidarako proposamena<br>• Talde hurbila<br>• Eztabaida<br>• Irizpideak bateratzea.<br>• Gehiengoa onartzea<br>• Gehiengoa ordezkatzea | KALITATE PLANA<br><br>2004/2006 hiru urteko planak ekarri behar du aurreko planaren berrikustea, antolaketa eta eraginkortasun irizpideekin | **Kalitate plan** batek sendotuko du egindako lanaren oinarria eta etorkizunean egin beharrekoa erraztuko du, eraginkortasun ratioak ezarriko ditu eta urte hauetako boluntariotasuna eramanen du jarduketa neurtuko parametroetara.<br><br>Kalitatearen kudeaketa irudi faktorea dela uler daiteke azkenean, baina ezer baino gehiago erakundearen eginkizuna eraginkortasun eta efizientzia handiagoaz erdiesteko bitartekoa da.<br><br>Kalitate planak irizpideak ezartzen ditu erakundearen kudeaketa islatzeko helburuen inguruan, eta helburuak eta ahaleginak moldatzen ditu erakundearen beraren giza baliabideen neurrira.<br><br>Konpromisoen araberako kudeaketa da bermerako osagai erantsia, despolitizatua, erakundearen lanaren gainean herritarrei ematen zaiena |

| | | |
|---|---|---|
| NOLA JARDUN<br>• Ezagutu<br>• Bereizi<br>• Ebaluatu<br>• Hautatu<br>• Planifikatu<br>• Erantzukizuna atxiki<br>• Jardun | LAGUNTZA<br><br>Herritarrei Zuzeneko Laguntza emateko Bulegoaren antolaketa<br><br>(I) | Herritarrekin harremana izateko lehen gunea da<br><br>Zuzeneko Laguntza emateko Bulegoko arduradun baten figura sortzea<br><br>Kalitate Plan berariazkoa ezartzea bulego horretarako<br><br>Bulegoa egituratzea aholkulari/bekadunekin<br><br>Zuzeneko laguntzan aritzen diren pertsonen kopurua handitzea (aholkulariak/bekadunak), beste bi gehituta: bata, Praktika Juridikoaren Eskolatik etorriko dena eta bestea unibertsitate bateko gizarte laneko departamentu batetik<br><br>Aholkulariaren/aholkularien inplikazio zuzena, herritarrei kexak aurkeztean laguntza espezializatua emateko laguntza izateko |

| | | |
|---|---|---|
| NOLA JARDUN<br>• Ezagutu<br>• Bereizi<br>• Ebaluatu<br>• Hautatu<br>• Planifikatu<br>• Erantzukizuna atxiki<br>• Jardun | LAGUNTZA<br><br>Herritarrei Zuzeneko Laguntza emateko Bulegoaren antolaketa<br><br>(eta II) | Administrazio publikoak eta antzeko erakundeak eta gure erakundea elkar lotzeko eta herritarrei zerbitzu hobea emateko premia teknikoak aztertzea.<br><br>Herritarrei zuzeneko laguntza emateko bulegoa, erakundearen zabalkunderako ekintzen erreferente |

| | | |
|---|---|---|
| NOLA JARDUN<br><br>GIZARTEARI BEGIRA<br>2004ko ekintza plana<br><br>Jarduketa ohikoak | Toki Plana<br><br>• Udalekiko hitzarmenak, NUKFaren eta Arartekoaren arteko hitzarmen orokorraren ondorioz<br>• Bilerak udal gobernu berria duten udalekin | 2003an hasitako prozesuaren jarraipena |

| | | |
|---|---|---|
| NOLA JARDUN<br><br>GIZARTEARI BEGIRA<br>2004ko ekintza plana<br><br>Jarduketa ohikoak | Txosten bereziak 1: Nafarroako zaharrentzako laguntza<br><br>Honakoak hartzen ditu barne:<br>• Egoerari buruzko txostena<br>• Proposamena<br>• Zeharrentzako zentro publiko nahiz pribatuetan daudenen herritar eskubideen katalogoa | (2003an hasita, hasierako helburuak zabalduta)<br>• BALIABIDEAK Foru administrazioak emandako informazioa<br>• BALIABIDEAK ETA BEHARRAK Bilerak elkarteekin (azterlan kualitatiboa)<br>Bilera oinarrizko gizarte zerbitzuekin (azterlan kualitatiboa)<br>Bilerak udalekin (azterlan kualitatiboa)<br>Dauden txostenen balantzea<br>• Bisitak zahar-etxeetara (azterlan kualitatiboa)<br>• Zaharrek gizarte laguntza jasotzeko eskubidearen babesa (Estudio jurídico)<br>• Gizartea eta adina. Aldaketa sozialak eta sozioekonomikoak zaharrengan (dokumentu berariazkoak) |

| | | |
|---|---|---|
| NOLA JARDUN<br>GIZARTEARI BEGIRA<br>2004ko ekintza plana<br>Jarduketa ohikoak | Txosten bereziak 2: Herritarrentzako arreta Nafarroako Informazio Publikoaren Bulegoetan | • BALIABIDEAK Foru administrazioak eta Foru Komunitateko udal nagusiek informazio bulegoen sareari eta haien baliabideei buruz emandako informazioa<br>• Herritarrek administrazio publikoen aldetik arreta eta informazio egokia jasotzeko eskubidearen babesa (Azterlan juridikoa)<br>• BEHARRAK Herritarrak, Nafarroako administrazio publikoen informazioaren aurrean (azterlan kualitatiboa)<br>• Herritarrak, Nafarroako administrazio publikoen informazioaren aurrean (azterketa lana) |

| | | |
|---|---|---|
| NOLA JARDUN<br>GIZARTEARI BEGIRA<br>2004ko ekintza plana<br>Jarduketa ohikoak | Txosten bereziak 3: 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntza Nafarroako Foru Komunitatean | • BALIABIDEAK Foru administrazioak eta Foru Komunitateko udal nagusiek 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzako ikastetxeen sareari eta haien ustiapen sistemari buruz emandako informazioa<br>• Haurrek 0tik 6 urtera bitarte laguntza eta hezkuntza jasotzeko eskubidearen babesa Azterlan juridikoa)<br>• BEHARRAK Herritarrak, 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza beharren aurrean (azterlan kualitatiboa)<br>• 0tik urtebetera bitarteko haurren hezkuntzaren protagonistak eta arduradunak |

| | | |
|---|---|---|
| NOLA JARDUN<br>GIZARTEARI BEGIRA<br>2004ko ekintza plana<br>Jarduketa ohikoak | Txosten bereziak 4: Adingabeen eskubideen katalogoa egitea | • Adingabeei aplikatutako herritarren eskubideen laburpena izanen da<br>• Adingabeen kontrako abusuen arloan jarduteko 2002ko protokoloaren garapena izanen da<br>• Adingabeen kontrako abusuen arloan jarduteko 2002ko protokoloaren jarraipena izanen da |

| NOLA JARDUN<br>GIZARTEARI BEGIRA<br>2004ko ekintza plana<br>Jarduketa ohikoak | Txosten bereziak 5: Immigrazioa Nafarroan. Ezagututako errealitatea 2002/04 | • Datuak<br>Foru administrazioak, Foru Komunitateko udal nagusiek eta sektorean jarduten duten elkarteek emandako informazioa<br>• Etorkinen eskubideen babesaren bilakaera Foru Komunitatean (azterlan juridikoa)<br>• 2002ko txosten bereziaren oihartzunak<br>Erakunde honek egindako “Immigrazioa Nafarroako Erriberan” izeneko txosten bereziaren jarraipena<br>• Errealitate berriak |
|---|---|---|

| NOLA JARDUN<br>GIZARTEARI BEGIRA<br>2004ko ekintza plana<br>Jarduketa ohikoak | Nafarroako arartekoaren eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko argitalpen plana | • Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideen esku-liburua<br>3., 4. eta 5. liburukiak<br>• Besterik (bi argitalpen) |
|---|---|---|

| NOLA JARDUN<br>GIZARTEARI BEGIRA<br>2004ko ekintza plana<br>Jarduketa ohikoak | Eskola-kanpaina<br>• Arartekoaren eta Nafarroako Rural Kutxaren arteko lehen eskola-lehiaketa<br>• Arartekoaren eta Nafarroako Rural Kutxaren arteko bigarren eskola-lehiaketa | • Sari ematearen antolaketa<br>• Dirutakoak ez diren sarien antolaketa<br>• Sariak emateko ekitaldiak<br>• Bigarren Hezkuntzarako unitate didaktikoa<br>• Deialdia prestatzea.<br>• Materialak ikastetxeetara bidaltzea<br>• Bigarren Hezkuntzarako unitate didaktikoaren diseinua eta maketazioa<br>• Unitate didaktikoa argitaratzeko ekoizpena |
|---|---|---|

| | | |
|---|---|---|
| Aurreikusi beharreko aurrekontu beharrak | • Arartekoaren kalitate plana | • **Arartekoaren kalitate plana egin eta planifikatzea Antolatzea**<br>- Antolatzea<br>- Prestakuntza<br>- Bitarteko teknikoak<br>• **Arartekoaren zerbitzu-agiria**<br>• Zerbitzu-agiri orokorra, Europako Jokabide Zuzenaren Kodetik datorrena<br>• **Zuzeneko laguntza emateko bulegoko kalitate plana**<br>- Antolatzea<br>- Prestakuntza<br>- Bitarteko teknikoak<br>• Zuzeneko laguntza emateko bulegoko lang.<br>• Zuzeneko laguntza emateko bulegoko gauza eta giza baliabideak |

| | | |
|---|---|---|
| Aurreikusi beharreko aurrekontu beharrak | • Argitalpen plana (I) | • **2003ko urteko txostena**<br>-Diseinua eta maketazioa<br>-Argitalpen ekoizpena<br>-Material grafikoa<br>-CDaren edizioa<br>• **Zaharrei buruzko txostena**<br>-Ikerketa (azterketa lana)<br>-Argitalpen ekoizpena<br>-Material grafikoa<br>-Diseinua eta maketazioa<br>-Argitalpen ekoizpena<br>-Material grafikoa<br>-CDaren edizioa<br>• **Zaharren Eskubideen katalogoa**<br>-Diseinua eta maketazioa<br>-Argitalpen ekoizpena<br>-Material grafikoa<br>• **Adingabeen Eskubideen katalogoa**<br>-Diseinua eta maketazioa<br>-Argitalpen ekoizpena<br>-Material grafikoa<br>• **Espedienteetako karpetak** |

| | | |
|---|---|---|
| Aurreikusi beharreko aurrekontu beharrak | • Argitalpen plana (II)<br><br>- Herritarren Eskubideen Buletina<br><br>- Eskola-kanpaina | • **Herritarren eskubideen eskuliburua (3., 4. eta 5. liburukiak)**<br>-CDaren edizioa<br>• **Foru Komunitateko herritarren eskubideen agiria (3.500 ale).**<br>-CDaren edizioa<br>4 edizio<br>• **Lehen hezkuntzako unitate didaktikoa**<br>-Diseinua eta maketazioa<br>-Argitalpen ekoizpena<br>-Banaketa.<br>• **Eskola-lehiaketaren deialdia eta haren materialak**<br>• **Iragarkiak:**<br>-Prentsa<br>-Irratia |

| | | |
|---|---|---|
| Aurreikusi beharreko aurrekontu beharrak | • Arartekoaren telefonoari buruzko kanpaina<br><br>• Udalekiko hitzarmenak<br><br>• Herritarren eskubideei buruzko web orria<br><br>• Komunikazio eta nazioarteko harremanen arloko aholkularitza kontratua | • Iragarkiak honakoan:<br>-Irratia<br><br>• Materialak<br>• 100 xafla<br>• Metakrilatozko 100 euskarri<br>• 1.000 eskuorri/gutunazal<br>• 100 kutxa<br><br>• Edukiak osatzea<br>Edukiak gaurkotzea |

**I-16 –2004KO AURREKONTUA**

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 43. artikuluak, erakundearen aurrekontuari dagokionez, aurreikusten du urtero titularrak prestatuko duela aurrekontu proiektu edo proposamen bat, Parlamentuaren aurrekontu proiektua egiteko arauekin bat.

Horretarako, erakundeak berak prestatu du 2004ko ekitaldirako aurrekontu proiektua, guztira 908.081 euro egiten duena, gastuetan eta dirusarreretan.

Dokumentuak erakundearen laugarren aurrekontualdirako jardunaren gidalerro izatea du xede, eta aurreko ekitaldiaren garapenaren azterketan eta 2002tik 2004ra bitarteko hiru urteko planean dauden aurreikuspenetan oinarrituta –Nafarroako Parlamentura igorria bere garaian– egin da.

Bai giza baliabideen aldetik bai espazio fisikoari dagokionez aurre egin zaionean erakundearen hasierako hazkuntzari, 2004ko aurrekontu-proiektuan jaso nahi da ikusmolde berri honek berarekin dakarren gastu-gehikuntza, zeina % 5,52koa izatea kalkulatu baita, 2003ko aurrekontu bateratuarekin alderatuta.

Aurreko proiektuaren ildo berean, orain aurkezten dugunak dagozkion aurreikuspenak ditu langileei buruzko I. kapituluan, eta bere asmoa da funtsean II. kapituluko gastuak bateratzea, horiek baitira, aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta, gehikuntza agertzen dutenak.

Langileen gastuei buruzko I. kapituluaren kasuan, 2003ko ekitaldian zehar aurrerapausoak eman dira plantillaren osaketan; azkenik, honako hauek osatzen dute: 4 aholku-emailek eta arartekoaren idazkari batek, horiek guztiak izendapen librekoak. Funtzionarioentzat gordetako postuak dira administrazio-kudeaketako teknikari bat, bi administrari eta gelazain bat. Ekitaldi honetan plantilla hori finkatu egin da, eta horri urte osoan zehar aurre egiteko aurreikuspenak jasotzen dira, aurreko urtean ez bezala, aurreikuspen horiek postu berrien betetze-egunaren arabera egin baitziren.

Horrela, datorren ekitaldirako ez da proposatu langileria gehitzea, hori aurten bertan ekin nahi zaion kalitate-plana abiarazi eta horren emaitzen ondoko ekitaldien baitan egonen da-eta. Halaber, 2004an egiten hastekoak diren lanen eta ekintzen bilakaeraren arabera jokatuko da.

II. kapituluan, ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuenean alegia, erakundearen jardunbiderako beharrezkoak diren gastuak finkatuko direla aurreikusten da, aurten handitzen joan baitira, erakundearen jardunbiderako nahitaezkoak diren zenbait zerbitzu eman beharraren ondorioz.

II. kapitulu horretako 2265 kontusailean (“zenbait gastu”), 2266 kontusailean (“jarduera orokorrak eta zabalkundekoak”), 2266 kontusailean (“bilerak eta hitzaldiak antolatzea”) eta, azkenik, 2267 kontusailean (“liburuen eta bestelako argitalpenen edizio-gastuak”) eginiko kontsignazioek agertzen dute zer kopuru bideratzen diren erakundeak egiten dituen jardueren artean kanpora begira isla handiena daukatenei aurre egiteko.

Azkenik, 2271 kontusailari (“garbiketa zerbitzuak”) eta 2279 kontusailari (“eginiko beste zenbait lan”) dagokienez, kontratatuterik dauzkagun zerbitzuei aurre egiteko zenbatekoak daude aurreikusirik, hala nola garbiketa, aholkularitza eta plangintza orokorrak, itzulpen arruntak eta laguntza informatikoa, besteak beste.

VI. kapituluari dagokionez (“kapital-gastuak”), instalazioak eta ekipoak 2003ko ekitaldian egin zen egitura-zabalkuntzari egokitzeko beharrezkoak direnak sartu dira aurrekontuan.

Dirusarrerei dagokienez, Nafarroako Gobernutik jasotako transferentziak, bai gastu arrunterakoak bai kapital-gasturakoak, azpimarratu behar ditugu, bai eta arartekoaren erakundeko zenbait langileri emandako maileguaren kuoten itzulketari buruzko aurreikuspena ere.

Laburbilduz, planteatzen den aurrekontu proiektu edo proposamena egokia da erakundearen beharretarako, 2002tik 2004ra bitarteko urteetarako hiru urteko planean dauden aurreikuspenen esparruan. Esan bezala, horrek hurrengo ekitaldietan pixkanaka garatzen joan beharko luke, uneko beharrizanetara moldatzeko.

Iruñean, 2004ko urrian

Nafarroako Arartekoa

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoko aurrekontuaren proiektuaren sailkapena, kapitulu ekonomikoen araberakoa, Nafarroako 2004. urteko aurrekontu orokorrei buruzko foru lege proiektuari eransteko

| | |
|---|---|
| Transferentzia arruntak | 855.381 euro |
| Kapital-transferentziak | 51.230 euro |
| Guztira | 906.611 euro |

16.01 GASTUEN ETA DIRUSARREREN LABURPEN EKONOMIKOA, KAPITULUEN ARABERA

Gastuen laburpen ekonomikoa, kapituluen arabera

| | |
|---|---|
| I. kapitulua- Langileria gastuak | 537.200 euro |
| II. kapitulua.- Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 286.781 euro |
| IV. kapitulua.- Transferentzia arruntak | 32.000 euro |
| VI. kapitulua.- Inbertsio errealak | 42.000 euro |
| VIII. Kapitulua.- Aktibo finantzarioak | 10.000 euro |
| IX. kapitulua.- Pasibo finantzarioak | 100 euro |
| Gastuen aurrekontua, guztira | 908.081 euro |

Dirusarreren laburpen ekonomikoa, kapituluen arabera

| | |
|---|---|
| III. kapitulua.- Tasak eta bestelako dirusarrerak | 100 euro |
| IV. kapitulua.- Transferentzia arruntak | 855.381 euro |
| V. Kapitulua.- Ondare-dirusarrerak | 500 euro |
| VII. kapitulua.- Kapital-transferentziak | 51.230 euro |
| VIII. kapitulua.- Aktibo finantzarioak | 770 euro |
| IX. kapitulua.- Pasibo finantzarioak | 100 euro |
| Dirusarreren aurrekontua, guztira | 908.081 euro |

16.02. GASTUEN AURREKONTUA. 2003ko EKITALDIA

Gastuen laburpen ekonomikoa, kapituluen arabera

| Kontzeptuak | 2003ko proiektua | %, guztira |
|---|---|---|
| I. kapitulua- Langileria gastuak | 537.200 euro | % 59,16 |
| II. kapitulua.- Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 286.781 euro | % 31,58 |
| IV. kapitulua.- Transferentzia arruntak | 32.000 euro | % 3,52 |
| VI. kapitulua.- Inbertsio errealak | 42.000 euro | % 4,63 |
| VIII. kapitulua.- Aktibo finantzarioak | 10.000 euro | % 1,10 |
| IX. kapitulua.- Pasibo finantzarioak | 100 euro | % 0,01 |
| Guztira | 908.081 euro | % 100,00 |

| GAKO EKONOMIKOA | | | | | IZENA | KONTUSAILA, | KONTZEPTUA | ARTIKULUA | KAPITULUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C.C. | Kap. | Art. | Kontz. | Azpik. | | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA |
| 1000 | 1 | | | | LANGILERIA GASTUAK | | | | 537.200 |
| | | 10 | | | GOI KARGUAK | | | 55.300 | |
| | | | 100 | | Goi kargudunen lansariak | | 55.300 | | |
| | | | | 1000 | Arartekoaren lansariak | 55.300 | | | |
| | | 11 | | | BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK | | | 223.500 | |
| | | | 110 | | Behin-behineko langileen lansariak | | 223.500 | | |
| | | | | 1100 | Behin-behineko langileen lansariak | 223.500 | | | |
| | | 12 | | | FUNTZIONARIOAK | | | 110.500 | |
| | | | 120 | | Funtzionarioen lansariak | | 110.500 | | |
| | | | | 1230 | Funtzionarioen lansariak, guztira | 110.500 | | | |
| | | 13 | | | LANGILE KONTRATUDUNAK | | | 52.200 | |
| | | | 131 | | Aldi baterako langile kontratudunak | | 52.200 | | |
| | | | | 1310 | Aldi baterako langile kontratudunen lansariak | 52.200 | | | |
| | | 16 | | | GIZARTE KUOTAK, PRESTAZIOAK ETA GAST. | | | 95.700 | |
| | | | 160 | | Gizarte kuotak | | 95.700 | | |
| | | | | 1600 | Gizarte Segurantza | 87.100 | | | |
| | | | | | I. kapituluaren funtsa | | | | |
| | | | | 1604 | I. kapituluaren funtsa | 8.600 | | | |
| 1000 | 2 | | | | ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERB GAST. | | | | 286.781 |
| | | 20 | | | ERRENTAMENDUAK | | | 480 | |
| | | | 203 | | Makineria eta instalazioen errentamendua | | 480 | | |
| | | | | 2032 | Hari musikala | 480 | | | |

| GAKO EKONOMIKOA | | | | | IZENA | KONTUSAILA, | KONTZEPTUA | ARTIKULUA | KAPITULUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C.C. | Kap. | Art. | Kontz. | Azpik. | | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA |
| | | 21 | | | KONPONKETA ETA KONTSERBAZIOA | | | 19.500 | |
| | | | 212 | | Eraikinen eta bestelako eraikuntzen konp. eta kontserb. | | | | |
| | | | | 2120 | Eraikinen konponketa, kontserb. eta mantentze-lanak | 12.500 | | 12.500 | |
| | | | 213 | | Makineriaren, instalazioen eta tresneriaren konponketa eta kontserbazioa | | | | |
| | | | | 2130 | Makineriaren, instalazioen eta tresneriaren konponketa eta kontserbazioa | 2.500 | 2.500 | | |
| | | | 216 | | Informatikako prozesuetako ekipoen konponketa eta kontserbazioa | | | | |
| | | | | 2160 | Informatikako prozesuetako ekipoen konp. eta kontserb. | 3.500 | 3.500 | | |
| | | | 219 | | Bestelako ibilgetu materialaren konponk. eta kontserb. | | | | |
| | | | | 2190 | Bestelako ibilgetu materialaren konponk. eta kontserb. | 1.000 | 1.000 | | |
| | | 22 | | | MATERIALA, HORNIDURAK ETA BESTELAKOAK | | | 254.301 | |
| | | | 220 | | Bulegoko materiala | | 23.950 | | |
| | | | | 2200 | Bulegoko material ez-inbentariagarria edo arrunta | 19.450 | | | |
| | | | | 2201 | Bulegoko ekipoak, material ordezgarria | 5.000 | | | |
| | | | | 2202 | Prentsa, aldizkariak eta aldizkako bestelako argitalpenak | 4.500 | | | |
| | | | 222 | | Komunikazioak | | 15.100 | | |
| | | | | 2220 | Telefono bidezko komunikazioak | 11.300 | | | |
| | | | | 2221 | Posta eta telegrafo bidezko komunikazioak | 4.700 | | | |
| | | | 224 | | Aseguru primak | | 4.500 | | |
| | | | | 2243 | Aseguru primak | 4.500 | | | |
| | | | 226 | | Zenbait gastu | | 142.931 | | |
| | | | | 2262 | Arartekoa | 4.000 | | | |
| | | | | 2263 | Gizarte eta protokolo lanak | 6.600 | | | |
| | | | | 2264 | Arartekoaren bidaia ofizialak | 9.200 | | | |
| | | | | 2265 | Jarduera orokorrak eta zabalkundekoak | 46.989 | | | |
| | | | | 2266 | Bilerak eta hitzaldiak antolatzea | 36.661 | | | |
| | | | | 2267 | Liburuak eta bestelako argitalpenak editatzeko gastuak | 36.481 | | | |

| GAKO EKONOMIKOA | | | | | IZENA | KONTUSAILA, GUZTIRA | KONTZEPTUA GUZTIRA | ARTIKULUA GUZTIRA | KAPITULUA GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C.C. | Kap. | Art. | Kontz. | Azpik. | | | | | |
| | | | | 2268 | Informazio agentziak | 3.000 | | | |
| | | | 227 | | Beste enpresa batzuek egindako lanak | | 57.720 | | |
| | | | | 2271 | Garbiketa-zerbitzuak | 13.600 | | | |
| | | | | 2272 | Prestakuntza ikastaroak | 4.500 | | | |
| | | | | 2279 | Eginiko beste lan batzuk | 39.620 | | | |
| | | | 228 | | Hornidura osagarriak | | 9.200 | | |
| | | | | 2280 | Hornidurak | 4.500 | | | |
| | | | | 2282 | Ordezko materialak | 1.000 | | | |
| | | | | 2284 | Garbiketarako materiala | 1.200 | | | |
| | | | | 2285 | Jantziak | 1.000 | | | |
| | | | | 2287 | Beste gastu batzuk | 1.500 | | | |
| | | 24 | | | BESTELAKO KALTEORDAINAK | | | 11.700 | |
| | | | 240 | | Zerbitzuetako langileentzako kalteordainak | | 11.700 | | |
| | | | | 2401 | Zerbitzuetako langileen dietak eta bidai gastuak | 10.500 | | | |
| | | | | 2402 | Lanpostuak betetzeko dietak eta gastuak | 1.200 | | | |
| 1000 | 4 | | | | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | | | | 32.000 |
| | | 48 | | | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | | | 32.000 | |
| | | | 481 | | Partikularrentzako kalteordainak eta gastuak | | 3.000 | | |
| | | | | 4810 | Partikularrentzako kalteordainak eta gastuak | 3.000 | | | |
| | | | 482 | | Hitzarmenak beste erakunde batzuekin | | 28.500 | | |
| | | | | 4820 | Hitzarmenak beste erakunde batzuekin | 28.500 | | | |
| | | | 483 | | Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako trans. | | 500 | | |
| | | | | 4830 | Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako trans. | 500 | | | |

| GAKO EKONOMIKOA | | | | | IZENA | KONTUSAILA, | KONTZEPTUA | ARTIKULUA | KAPITULUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C.C. | Kap. | Art. | Kontz. | Azpik. | | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA |
| 1000 | 6 | | | | INBERTSIO ERREALAK | | | | 42.000 |
| | 60 | | | | INBERTSIO BERRIKO PROIEKTUAK | | | 42.000 | |
| | | | 602 | | Eraikinak eta bestelako eraikuntzak | | 7.500 | | |
| | | | | 6020 | Eraikinak | 7.500 | | | |
| | | | 603 | | Makineria, instalazioak eta tresneria | | 3.000 | | |
| | | | | 6031 | Instalazioak eta makinak | 3.000 | | | |
| | | | 605 | | Altzariak eta gauzakiak | | 7.500 | | |
| | | | | 6050 | Bulegoko altzariak | 7.500 | | | |
| | | | 606 | | Informazioa lantzeko ekipoak | | 18.000 | | |
| | | | | 6060 | Informazioa lantzeko ekipoak | 18.000 | | | |
| | | | 608 | | Bestelako ibilgetu materiala | | 6.000 | | |
| | | | | 6083 | Liburuak eta bestelako argitalpenak erostea | 6.000 | | | |
| 1000 | 8 | | | | AKTIBO FINANTZARIOAK | | | | 10.000 |
| | | 82 | | | MAILEGUAK | | | 10.000 | |
| | | | 822 | | Epe ertainera eta luzera emaniko maileguak eta aurrerakinak | | 10.000 | | |
| | | | | 8224 | Etxebizitzako maileguak | 5.000 | | | |
| | | | | | Soldata-aurrerakinak | 5.000 | | | |
| 1000 | 9 | | | | PASIBO FINANTZARIOAK | | | | 100 |
| | | 93 | | | ITZULKETAK | | | 100 | |
| | | | 930 | | Fidantzen itzulketa | | 100 | | |
| | | | | 9300 | Harturiko fidantzak eta gordailuak | 100 | | | |

## 16.03. DIRUSARREREN AURREKONTUA. 2004ko EKITALDIA

Dirusarreren laburpen ekonomikoa, kapituluen arabera

| Kontzeptua | 2004ko proiektua | Guztira, % |
|---|---|---|
| III. kapitulua.-<br>Tasak eta bestelako dirusarrerak | 100 euro | % 0,01 |
| IV. kapitulua.-<br>Transferentzia arruntak | 855.381 euro | % 94,20 |
| V. Kapitulua.-<br>Ondare-dirusarrerak | 500 euro | % 0,06 |
| VII. kapitulua.-<br>Kapital-transferentziak | 51.230 euro | % 5,64 |
| VIII. kapitulua.-<br>Aktibo finantzarioak | 770 euro | % 0,08 |
| IX. kapitulua.-<br>Pasibo finantzarioak | 100 euro | % 0,01 |
| Guztira | 908.081 euro | % 100 |

| GAKO EKONOMIKOA | | | | | IZENA | KONTUSAILA, | KONTZEPTUA | ARTIKULUA | KAPITULUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C.C. | Kap. | Art. | Kontz. | Azpik. | | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA |
| 1000 | 3 | | | | TASAK ETA BESTELAKO DIRUSARRERAK | | | | 100 |
| | | 39 | | | BESTELAKO DIRUSARRERAK | | | | 100 |
| | | | 399 | | Bestelako dirusarrerak | | | 100 | |
| | | | | 3990 | Bestelako dirusarrerak | | 100 | | |
| 1000 | 4 | | | | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | | | | 855.831 |
| | | 40 | | | NAFARROAKO GOBERNUAREN TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | | | | 855.831 |
| | | | 400 | | Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak | | 855.831 | | |
| | | | | 4000 | Gastuen kap. (1+2+4)- Dirusarreren kap. (3+5) | 855.831 | | | |
| 1000 | 5 | | | | ONDARE DIRUSARRERAK | | | | 500 |
| | | 52 | | | GORDAILUEN ETA GERORAPENEN INTERESAK | | | 500 | |
| | | | 520 | | Gordailuen eta gerorapenen interesak | | 500 | | |
| | | | | 5200 | Gordailuen interesak | 500 | | | |

| GAKO EKONOMIKOA | | | | | IZENA | KONTUSAILA, GUZTIRA | KONTZEPTUA GUZTIRA | ARTIKULUA GUZTIRA | KAPITULUA GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C.C. | Kap. | Art. | Kontz. | Azpik. | | | | | |
| 1000 | 7 | | | | KAPITAL TRANSFERENTZIAK | | | | 51.230 |
| | | 70 | | | NAFARROAKO GOBERNUAREN KAPITAL TRANS. | | | 51.230 | |
| | | | 700 | | Nafarroako Gobernuaren kapital transferentziak | | 51.230 | | |
| | | | | 7000 | Gastuen kap. (6+8+9)- Dirusarreren kap. (8+9) | 51.230 | | | |
| 1000 | 8 | | | | AKTIBO FINANTZARIOAK | | | | 770 |
| | | 82 | | | EMANDAKO MAILEGUEN ITZULKETAK | | | 770 | |
| | | | 821 | | Epe ertainera eta luzera emaniko maileguen itzulketa | | 770 | | |
| | | | | 8214 | Etxebizitza maileguen kapital itzulketak | 670 | | | |
| | | | | 8215 | Soldata aurrerakinen itzulketak | 100 | | | |
| | | 87 | | | DIRUZAINTZAKO GERAKINA | | | 100 | |
| | | | 870 | | Diruzaintzako gerakina | | | 100 | |
| | | | | 8700 | Diruzaintzako gerakina | | 100 | | |
| 1000 | 9 | | | | PASIBO FINANTZARIOAK | | | | 100 |
| | | 93 | | | JASOTAKO GORDAILUAK ETA FIDANTZAK | | | 100 | |
| | | | 931 | | Jasotako fidantzak eta gordailuak | | 100 | | |
| | | | | 9310 | Jasotako fidantzak eta gordailuak | 100 | | | |

## 16.04. 2004ko PLANTILLA ORGANIKOA

### 2004kko NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOAREN PLANTILLA ORGANIKOA

| Lanpostua | Kopurua | Araubide juridikoa | Maila | Izendapen askea | Batera-ezintasuna | Lanpostu osag. | Mailako osag. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Arloko aholkulari arduraduna | 2 | C | – | X | – | | – |
| Aholkulari teknikoa | 2 | C | – | X | – | | – |
| Arartekoaren idazkaria | 1 | G | – | X | – | | – |
| Administrazio kudeaketako teknikaria | 1 | F | B | – | 35 | 20 | – |
| Administraria | 2 | F | C | – | – | 31,68 | 12 |
| Gelazaina | 1 | F | D | – | – | 22 | 15 |

F: Funtzionarioa
C: Nafarroako Arartekoaren Bulegoko behin-behineko kargua – Izendapen askea
G: Kabineteko behin-behinekoa – Izendapen askea

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

# HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* ..........................................................................................................................................

*Helbidea* ..................................................................................................................................................

*Telefonoa* .............................................................. *Hiria* ..............................................................................

*P. K.* .............................................................. *Probintzia* ..............................................................................

---

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

| HARPIDETZAREN PREZIOA<br>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA | IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA<br>**NAFARROAKO PARLAMENTUA**<br>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»<br>Navas de Tolosa, 1<br>31002 IRUÑA |
|---|---|
| Urtebete ........ 41,00 euro<br>Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ........ 1,05 »<br>Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ........ 1,23 » | |

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, SL (Lizarra).

Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua